

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2012-06-29
EGUBAKOITZA
515. ZENBAKIA
12. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

Axpe, Munduko Txapelketan

Bartzelonan izango
da arrasatearra | 28



Maialen Axpe. | JULEN IRIONDO

Gure ibarreko bainulekuak bete dira
dagoeneko ume eta gaztetxo | 2



1.222 jarleku eta 150 mahai,
Bergarako San Martzialen | 19



lñigo Arregi arrasatearra euskal
artisten museo irekian, Bizkaian | 31



Azken ukituak

Datorren astean jakinaraziko dute noiz zabalduko duten Aretxabaletako kiroldegi berria. LKS, Athlon eta Ondoan enpresek osatutako hirukoak kudeatuko du; astelehenean sinatuko dute kontratua. Uztailean atek ireki nahi dizkiete herritarrei, zabaldu aurretik ikus dezaten. | 12

Langilea kiroldegiko errotulu batean erremate-lanak egiten. | ADOX

SINADURAK

	DIEGO MARIARTU 6
	6 ENEKO AZKARATE
	MARJO PAGALDAI 21
	26 PILAR ETXANIZ
	AGURNE BARRUSO 40

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6
ELKARRIZKETA 10 | HERRIAK 12 | KIROLA 28
KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35
TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37
ESKELAK 37 | NON-ZER 38

Eskoriatzako, Aramaioko eta Elgetako jai nagusiak izango dira asteburuan

Eskoriatza eta Elgetan
atzo hasi ziren; gaur,
Aramaion | IKUS 'HERRIAK' SAILA



Aramaion Lisabö izango da. | GOIENA

Urdirozko udalekuan ibilitakoen topaketa egin nahi dute

Uztailaren 7an
egingo dute topaketa,
Bergaran | 5

"Zentro- eskumako eta ezkerreko abertzaleen arteko lehia izango da"

Dani Maeztu | Aralarko
legebiltzarkidea | 10



Bainulekuak bete dira ume eta gaztetxoak

Ikasturte bukaera eta sargoria igarri egin dira Gurasoak lasai egon daitezke, sorosleen lanari esker

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Bainu denboraldia ezin hobeto hasi da bailaran; batetik, ume eta gaztetxoek eskolatik oporrak hartu dituzte, eta hori ondo igarri da; eta, bestetik, joan den astean egin duen sargori izugarria arintzeko gogoarekin zegoen jende askok ere bainulekuetara jo du. Horrelako sei daude Deba-goienean -Arrasaten, Musakola- kanpoko igerilekuak eta Udala auzoko Uxarte baserrikoak; Bergaran, Agorrosin ekintza guneko kanpoko igerilekuak; Oñatin, kiroldegiko igerileku estaliak eta Usakoko presa; eta Eskoriatzan, umeendako kanpoko igerilekua eta berdegunea, eta igerileku estaliak.

Bainurako eta eguzkitan egoteko ere, zenbait estilo eta giro izan dira. Hala, Bergarako Agorrosingo igerilekuak edo Usako ume eta gaztetxoak gainezka izan dira; Agorrosin, astelehenean 2.254 sarrera izan zituzten, eta martitzenean, 2.070; jolas eta salto egiteko leku aproposenak, baina ez hainbeste lasai-lasai egon eta bainua modu erlaxatuan hartu gura zutenendako. Lasaitasun hori -eta bista ikusgarriak-

Udala auzoan, Udaltzen oinean dagoen Uxarte jatetxe eta igerilekuan topatu zuten hainbat familiak.

Esaneko erabiltzaileak

Bergarako Agorrosingo igerilekuan zebiltzan bainulariak zaintzen ibili zen Aitor soroslea. Haren esanetan, "buruko minak" ere ematen zizkion hainbeste jenderen segurtasunaren arduradun izateak: "Igartzen dugu, bai, ume eta gaztetxoek oporrak hartu dituztela; joan den astean lasai-lasai ibili ginen, eta oraingoan...", esaten zuen. Gaineratu duenez, soroslearen esanak lehenengoan betetzen

ez dutenek ematen diote lan handiena eta horiekin dute sorosleek "betiko borroka". Hala ere, sorosle jardutea "esperientzia aberasgarria" dela ere onartu zuen.

Baina gaztetxo asko esanekoak dira eta, gurasoek ez ezik, eurek ere ondo ikusten dute bateren bat eurak zaintzen egotea; hala zioten Usakon bainatzen zebiltzan bi umeak: "Aholkuak gure hobe beharrez ematen dizkigute". Eider Quintas soroslearen esanetan, Usakora joaten diren ume eta gaztetxoek "ondo dakizkitez" arauak: nondik salto egin daitezkeen eta nondik ez, adibidez, Usakon oso garrantzitsua dena: hala, giltzatik salto egitea librea da, baina ez da presatik bertatik salto egin behar, azpian harriak daudelako. Iaz, gazte batek kolpe handia hartu zuen buru-hezurrean.

Ume askok gurago dute Usako igerilekuak baino; hala esan ziguten, behintzat, joan den eguztenean uretan gustura zebiltzan umeek. "Usako gurago dugu, ura fresko dagoelako", esan zuen neskatila batek. "Hasieran, oso hotz dago ura, baina gero, ez da hotzik igartzen", azaldu zuten. Hala ere,



Ume eta gaztetxo piloa ibili da egunotan Usakon. | JOSETXO ARANTZABAL



Bi gazte, Bergarako igerileku ondoan eguzkia hartzen. | ARRITXU BARRUSO

DATUA
2.254

SARRERA

Joan den astelehenean, 2.254 sarrera kontabilizatu zituen Bergarako Udalak Agorrosin ekintzagunean.

DATUA

3

SOROSLE

Oñatiko Usakoko presan, hiru sorosle ibiliko dira oraingo denboraldian, txandaka, 15:00etatik 20:00etara bitartean.

uretatik dardara baten irteten ziren bainulariak.

Sorosle zerbitzua dagoenetik, orain bost urte ezker, gurasoek lasai uzten diete seme-alabei Oñatiko presara joaten, badakitelako zainduta egongo direla. Seme-alabekin joaten dira guraso asko ere; Oñatitik ez ezik, inguruko herrietatik ere bai. Hala, Aretxabaleto ama bat semeak konbentzitu joan zen Usakora seme-alabekin: "Semeak esaten zidan

IRABAZI AFARI BAT ZURE KUADRILLARENTZAT

Sagardoarekin lotutako hitz, esamolde edota esaldiak biltzen ari gara. Inoiz entzunak, zein asmatuak.

Bidali nahi adina proposamen: lehiaketa@sagardogorenak.com #gorenak

SARIA: 8 lagunentzako afaria GORENAK taldeko zuk nahi duzun sagardotegian.

Epea: Uztailaren 5a baino lehen. (Uztailaren 8ko Berrian jakingo da irabazlea).

Epaimahaia: Joxerra Garzia, Arantxa Iturbe eta Xabier Paya.

ALORRENA ALIZALEA BARRAZTEGI REGURISTAIN EGI-LUZI GARTZIATEGI GAZTANAGA GURUTZETA HASTOIS OXAZOIA SARASOIA ZAKIN

WWW.SAGARDOGORENAK.COM

GORENAK
EUSKAL ITURBERRI SAGARDO GORENAK

OINAK LURREAN TINKO, KALITATEZ ETA INDarREZ, DENAK NORABIDE BEREAN TIRAKA, NAGUSI IZATEN JARRAITZEKO.

HORREGATIK DARAMAGU SAGARDOEN EUSKAL SELEKZIOAREN TXAPEL BELTZA.



Udalatxan magalean daude Uxarteko igerilekuak. | LEIRE KORTABARRIA

Usako oso ondo dagoela, joan egin behar genuela... eta hementxe gaude. Umeekin nonbaiten pasatu behar da arratsaldea", esaten zuen, presa ertzean jesarrita oinak freskatzeko zituen bitartean.

Arrasateko lehenak

Askok jakingo ez duten arren, Udala auzoko Uxarte baserrikoak dira Arrasaten izan ziren lehenengo igerilekuak. Hango alaba Maite Uribarrenek azaltzen duen moduan, aitaita-amamek "bisio hori" izan zuten eta igerilekuak zabaldu zituzten herri osoarendako.

Gaur egun ere jende dezente erakartzen jarraitzen dute. Egundako osoko sarreraren truke, eguzkitan etzan edo bazkaldu, bidez eta

altuera hartako giroaz gozatu eta bainua har daiteke. Hango igerilekuetara batik bat 20 eta 40 urte arteko jendea joaten da, egun-pasa egitera. Gehienak "finkoak" direla esaten du Uribarrenek: "Behin etorri, gustatu eta urtero etortzen dira", esaten du.

Ekainean, 31.290 bisitari

Arabako Uribarri Ganboako natura-ingurunera joan dira hainbat debagoiendar, joan den zapatuan han ere bainu denboraldia hasi zenetik. Hain zuzen, ekainaren 1etik 24ra bitartean, Garaio, Landa eta Mendixurrea 10.430 ibilgailu eta 31.290 bisitari kontabilizatu ditu Arabako Foru Aldundiak, eta 190 bizikleta alokatzen eman ditu bitarte horretan.

Udako lehen bainuak



AINHOA ALONSO

"Askotan etortzen naiz igerilekura, amatxorekin. 2 metro hartzen ditu igerilekuak, baina hor ere sartzen naiz; ez dit beldurrik ematen".

IÑAKI AZKUNAGA

"Hasieran, ura pixka bat hotza egoten da, baina gero ohitu egiten naiz eta oso gustura ibiltzen naiz uretan".



OIER AZKUNAGA

"Bainatzera etortzen naiz igerilekura. Izoikia ere jaten dut. Jende gutxi dagoenean hobeto ibiltzen naiz. Gustura etortzen naiz".



Ingurune pribilegiatua

Garaio, Landa eta Mendixurrea debagoiendar asko joaten da udan. Bada, Arabako Foru Aldundiak azpimarratzen du Garaio ez dela soilik bainua hartzeko lekua, baizik eta Komunitate-Garrantziako Lekua (LIC) eta ingurumen balio handiko lekua. Hala, Garaio eta Landa arteko Ibilbide Berdeak arrakasta handia du: ekainaren 16tik 26ra, dagoeneko 7.800 erabiltzaile izan ditu, urtearen lehen erdian kopuruaren %9, dagoeneko.



TOYOTA | EuskoAuto

AUKERA IBILGAILU BERRIAK 15 UNITATE ERABILGARRI

TOYOTA AURIS

AURIS 90D Active [2012] DIESELA



DESKONTU BEREZIA %21

PSP: ~~18.950€~~
DTUA: -3.951 €
14.999€

TOYOTA AURIS

AURIS 130 1.6 Active [2012] GASOLINA



DESKONTU BEREZIA %26

PSP: ~~18.950€~~
DTUA: -4.951 €
13.999€



Euskoauto Prever Plana barne. Matrikulazio gastuak ez daude barne.

KONTSULTA ITZAZU EUSKOAUTOREN PREVER PLANAREN BALDINTZAK

TOYOTA EUSKOAUTOREKIN AUTOA FINANTZATUZ GERO, 5 URTEKO GARANTIA DOAN

EuskoAuto www.euskoauto.toyota.es

BERGARA
Olabarrena, z/g
Tel: 943 762 385

ELGOIBAR
Olaso industrialdea
Olaso kalea 23 - Tel: 943 747 417

PASAIA ANTZO
San Markos errepidea 32
Tel: 902 345 245

OLABERRIA
Karobi industrialdea
Tel: 943 805 926



Zaborra zelaian botata, eta hesia, apurtuta. | BERGARAKO UDALA

Jendetzaren ondorio txarrak

Astelehenean eta martitzenean, bakoitzean, 2.000 sarreratik gora izan ziren Bergarako Agorrosinen. Horietatik asko igerilekura eta berdegunera joan zen jendeari zegokion. Bada, eguzten goizean, zelaian zabor piloa eta orain hilabete gutxi ipini zuten hesia apurtuta topatu zuten arduradunek. Udaleko Kirol teknikariak, Iñaki Ugarteburuk, erabiltzaileen "laguntza" eta Agorrosingo langileenganako "errespetua" eskatu du.

Arrasateko KZguneak GPSak lagako ditu 'Ibilbideak' proiektuaren barruan

Aire zabalean kirol jarduerak sustatzea da proiektu horren helburua

MONIKA BELASTEGI | ARRASATE

Arrasateko KZguneak *Ibilbideak* proiektuan hartuko du parte, erkidegoko beste bederatziz KZgunerekin batera. Eusko Jaurlaritzak martxoan aurkeztu zuen *Ibilbideak* proiektua, herritarrak ariketa fisikoa egitera animatu nahi dituen ekimena, hain justu ere, eta ondoko jarduerak batu dituzte: ibilaldiak, mendi lasterketak, errepideko txirrindularitza, mendi txirrindularitza, hipika, itsuak, igeriketa, parapentea, patinajea eta arraunketa, besteak beste.

Orain, KZguneak batu zaizkio ekimenari, proiektua bultzatzeko asmoz, eta aste honetatik aurrera, EAEko hamar KZgunetan, tartean Arrasatekoan, ibilbideok jasotzen dituzten GPSak mailegatu dituzte.

Informazio guztia GPSan

GPSotan oso era grafiko eta errazean zenbait eremu interesgarriak ibilbideak eta jarduerak aurki daitezke fitxa batean, baita beste erabiltzaileek ibilbide horri buruz egindako balorazioak, ira-



Ainhoa Gutierrez, GPSarekin. | M.R.

dokizunak edo ekarpenak ere. Dagoeneko, 20 kirol ezberdinetako 700 ibilbide baino gehiago igo dira webgunera eta 500 pertsona zein entitate baino gehiagok eman dute izena.

KZgune bakoitzean bost GPS izango dituzte. Mailegu horren bitartez, GPSa inoiz erabili ez dutenei teknologia horren erabilpena erraztu nahi diete. Horretarako, gailuotako programa -TwoNav Aventura- egokitu egin dute hainbat funtzionalitate muga-tuz. Hori horrela, gailuak pizten, hizkuntza aukeratzen eta ibilbidea hautatzen baino ez dio utziko erabiltzaileari.

Maileguan hartzeko baldintzak

Zerbitzua erabiltzeko, beharrezkoa da KZgunean erregistratuta egotea. Bestetik, erabilera baldintzak onartzen dituela hitz ematen duen adostasun-agiria sinatu behar du erabiltzaileak, non datu pertsonalak idatzi behar dituen. Horrekin batera, 18 urteak beteta izan behar dira. Adingabeen kasuan, haien guraso edo legezko tutore

batek lagunduta etorri beharko dute, eta guraso edo tutore horrek sinatu behar du adostasun-agiria.

Mailegua zazpi egunerako izango da, gehienez, baina beste zazpi egunerako ere berritu daiteke. Gailua galdu, apurtu, ebatsi edo hondatzen bada, haren ordez beste gailu berri bat, berdina, jarri beharko du erabiltzaileak.

Mailegatzeko interesa duenak Arrasateko KZgunera jo dezake -Kulturateko 3. solairua- astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

DATUA

5

GPS GAILU

Arrasateko KZgunean bost gailu izango dituzte doan maileguan lagatzeko.

Sai arreak aztergai bihar Arantzazun

Harrapari hori ezagutzera emateko doako berbaldia eta behaketa antolatu ditu parketxeak

M.B. | ARRASATE

Arantzazuko natura-turismoaz gozatzeko aukera eskainiko die, beste behin, bisitariei bihar, zapatua, Birding turismoa ekimenaren barruan. Inguruko fauna izango da aztergai, eta, zehazki, bertako sai arreak kolonia. Sarraskijale hori tamaina handiko hegazti harraparia da, zazpi kilo ingurukoa, eta hegan doala hiru bat metroko zabalera har dezake. Aizkorri-Aratz Parke Naturala bisitatzen duen edonork erraz ikus dezakeen hegaztia da.

Berbaldia eta behaketa

Arantzazuko Parketxeko iturrien esanetan, jardunaldia berbaldi batekin hasiko da, Mikel Olano ornitologoarekin. Hain justu ere, 11:00etan Sai arrea Arantzazun delako hitzaldi-solasaldia egingo du. Haren azalpenen bitartez, eta modu errazean, animalia horren alderdi biologiko interesgarrienak ezagutu ahal izango dira; besteak beste, espeziearen

jatorria, elikadura, ugalketa, gaixotasunak eta beste espezieekin duen bizikidetzak.

Sarraskijale horri buruzko saio teorikoaren ostean, atal praktikoa ere egongo da. Hori horrela, Gandiaga Topagunearen terrazetako batetik behaketa egingo dute, 12:30ean, aditu, zale eta hasiberriek hegaztiok azter ditzaten. Bertarazten den orok nor bere prismatik, monokulo edo teleskopioa eramatea gomen datzen dute antolatzaileek. Hala eta guztiz ere, antolakuntzak beharrezko baliabideak jarriko ditu. Parte-hartzea doakoa izango da.

'Birding turismoa'

Birding turismoa Arantzazuko Parketxeak antolatutako ekimena da, Arantzazuko ingurunean turismoa bultzatzeko asmoz. Turismo esperientzian oinarritzen da; bizipen pertsonalen bidezko turismoa da, zapatukoan sai arreak zuzeneko begiztatzearen bidez lortutakoa.

Arrasaterako Musakolako sarrera itxi egin dute sei bat hilabeterako

M.B. | ARRASATE

Arrasaterako sarreretako bat, Musakolako, itxita dago eguazten arratsaldea ezkerreko. Axeriko zubia, San Isidro ermitaren ondoan dagoena, konpondu egin behar dute, eta hori da sarrera itxeko arrazoia. Hori horrela, gainontzeko sarrera-irteerak erabili beharko dira Arrasatera sartzeko: Osinakoa, Takolokoa eta Mugarrietakoa -hori bikoitza da: batetik, San Andres auzora eta, bestetik, tuneletik, Uribarri eta Erguin aldera joateko.

Arrasateko Udalak Osinakoa bidegurutzean zirkulazio handia pilotatuko dela uste du, eta, horregatik, neurri zuzentzaile bat hartzea aurreikusiko dute: Aretxa-

baletatik datozenak ezin izango dira Osina aldera sartu, egun sartzen diren lekutik. Kaskonategiko biribilgunera -Eroskikoa- joan beharko dute eta bertan buelta hartuta sartuko dira Osina aldera.

Garraio publikoan ere eragina

Garraio publikoari dagokionez, Musakolatik sartu eta irteten diren autobusek Osinako zubitik sartu-irten beharko dute errepide nagusira (GI-627). Ondorioz, atzerapenak egon daitezke ordu-tegietan, eta Musakolako geralekuaren inguruan ere aldaketak egon daitezke. Pesak, esaterako, ez du Musakolako geralekua erabiliko obrek iraun bitartean.



Irudian Axeriko zubia, Musakola sarreran. | I.M.B.



| GOIENA

Haritz Azkarraga

Tabakalerako gerentea

"Tabakalerako obrak bukatzea izango da nire lehentasun nagusia"

A.A. | ARRASATE

Haritz Azkarraga arrasatearra Tabakalerako gerente izendatu dute asteon. Gaur egun Kurasaaleko zuzendari teknikoa eta gestio sistemen ardura duna da. Aurretik LKSn eta Fagorren ibilia da eta Arrasaten zinegotzi ere izan zen 1999tik 2003ra Euskal Herri-tarrok taldearen izenean. Arrasate Irratian elkarriketa egin diote.

Zer dakar Tabakalerako gerente izateak?

Ardura handia. Garbi dago lan handia dagoela egiteko, eta niretzako, zer esanik ez, erronka profesional handia da. Salto kualitatiboa da nire karrera profesionalean, eta ilusioz, gogoz eta ikasteko asmoarekin arituko naiz, baina baita emateko asmoarekin ere.

Noiz hasiko zara?

Egia esan, oraindik letra txikia ez dugu idatzi. Izendapena asteon egin da eta horretan gabiltza orain. Martitzenean Kultura diputatua harremanetan jarri zen nirekin, elkarriketa txiki bat izan genuen; eguaztenean Donostiako Udaleko idazkariak deitu zidan horretaz jarduteko... Nik uste dut abuztuan hasiko naizela lanbide berrian.

Zein izango da zure zeregina?

Zalantza barik, egin behar den lehen gauza da bertan sartu, eta zer dagoen ikusi. Eta gero, gauzak priorizatu. Garbi dagoena da nire kasuan orain lehentasun nagusia dela, eta hala jakinarazi zidan Kultura diputatuak, bada, obra bera, eraikina bera. Epe batzuk daude betetzeko, 2015a da bukatzeko jarrita dagoen epea eta nire betebeharrak garrantzitsuena hiru urteotan obra izango da. Behin eraikina bukatuta, beste fase baten sartuko gara. Horrez gain, gestioa ere badago, eguneroko gestioa, finantzak, aliantzak bilatzea, Tabakalera bera gestionatu eta lantaldea antolatzea.



Juan Martin Elexpuru eta Olatz Olaso. | TXOMIN MADINA

Urdirozko udalekuan ibilitakoen topaketa egin nahi dute hango bizipenak batzeko

Uztailaren 7an egingo dute topaketa, Bergaran; liburu bat eta DVDa kaleratzea da asmoa

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Urdirozko (Nafarroa) euskal udalekuan azkeneko urteetan jardun duen taldeak, udalekuaren historia eta han ibilitakoen bizipenak liburu batean eta DVD batean batzeko lanean dabil. "Erabaki genuenean udalekuarekin aurrera ez egitea, bai ikusten genuen esperientzia eta bizipen asko zeudela eta horiek jaso nahi genituela. Hortik abiatuta liburu eta DVDa egitea pentsatu genuen", azaldu zuen Olatz Olaso Urdiroz-

zko ume, sukaldari eta begirale ibilitako bergararrak, Goiena telebistako *Magazinean* egindako elkarrizketan.

Urdirozko euskal udalekuak 24 urtez funtzionatu zuen, 1982tik 2006ra eta milaka ume igaro ziren handik, asko Debagoienekoak: "Urtean hamabost eguneko hiru txanda egiten ziren, eta txanda bakoitzean 125 bat ume egoten ziren", azaldu zuen Olaso.

Hori kontuan izanda, liburu zein ikus-entzunezkoarako infor-

mazioa jasotzeko, Urdirotzen begirale, sukaldari, laguntzaile, ume... ibilitakoak batzeko topaketa antolatu dute uztailaren 7an. Lanaren barruan ahalik eta jende gehienaren ekarpenak jaso nahi dituzte eta helburu horrekin, hiru lekutan, Bergaran, Hernanin eta Zarautzen *urdiroztarren* topaketak egitea pentsatu dute. "Liburuan udalekuaren historiarekin batera, Urdirotzen egondakoen bizipenak, emozioak... jasotzea ezinbestekoa dela pentsatu dugu", azaldu zuen Olatz Olaso.

Lehenengo topaketa Bergaran

Lehenengo topaketa Bergaran egingo dute, uztailaren 7an eta bertan batu nahi dituzte Debarroko eta inguruko lagunak. Talde dinamika batzuen bitartez, Urdirozko oroitzapenak, anekdotak, bizipenak... jasotzeko. Adi berean, bilkura aprobetxatuko dute dituzten argazki eta material batzuk erakusteko eta jendeak izan ditzakeen argazki zein bestelako materiala batzeko ere bai, Olasoren esanetan: "Hitzordua zabalik dago Urdirotzetik pasatu diren guztiei. Saioa hiruzpalau ordukoa izango da, 09:30ean hasita Aranzadi ikastolan, eta interesatuek www.udalekuak.eu/topaketa webgunean eman dezakete izena.

Liburua eta DVDa

Juan Martin Elexpuru Bergarako idazle eta Badihardugu eta *Ahotsak.com* taldeetako kideak egingo du liburua, eta hark azaldu zuen jarraituko duten lan sistema, *Magazinean*-n: "Liburuan jasoko dugu historiaren azterketa kronologikoa eta Urdirotzen umeekin egiten ziren ekintzak ere jasoko ditugu. Ezin da ahaztu euskal udalekuaren hasierako zein ondorengo helburua izan zela haurrek uda denboran eus-

kara ez galtzea. Hala, udalekua zen modu bat giro euskaldun baten 15 egun pasatzeko, eta edukietan hori hartzen zen kontuan, euskal kulturaren heziketa oso garrantzitsua izan da".

DVDari dagokionez, alde batek, zenbait grabazio egin dituzte -euskal udalekuaren sortzaile-

tako bati, esaterako- euskal udalekuaren sustraia jasotzeko. Bestalde, grabazio horrekin eta zenbat argazki eta irudi zaharrekin muntaia egingo dute, 20-25 bat minutuko.

Aurten amaitu nahi dute lana eta datorren urtean argitaratzea da asmoa.



1984. urteko sukaldari eta begirale taldea. | GOITIKOETXEA KULTURA ELKARTEA

24 urteko ibilbidea izan duen udalekua

Euskarazko udalekuaren hasiera Ikastolen sorrerarekin lotu behar da. 1960ko hamarkadan aro berriko ikastolak sortzen hasi ziren eta haien inguruan sortu ziren euskarazko udalekuak ere. Mugimendua hasi eta urte gutxira bitan zatitu zen: Ikastolako umeak bakarrik hartzen zituen taldea eta edozein eskolotako haurrak hartzen zituena. Bigarren antolakuntza horrek hartu zuen Euskal Udalekuak izena, eta Urdirozko hor kokatzen da.

Urdirozko euskal udalekua 1982tik 2006ra bitartean egon zen martxan eta 24 urteotan milaka ume hartu zituen.



Umeak jolasean. | GOITIKOETXEA K.E.

Aniztasuna kudeatzeko moduz gogoeta egin eta erabakiak hartzeko Udalanitz sortu dute

M.B. | ARRASATE

Gipuzkoako Foru Aldundiko Migrazio eta Aniztasun Zuzendaritzak eta lurraldeko 30 udalek Udalanitz sarea jarri dute abian. Erakundeen arteko ekimena da, non Aldundiak eta udalek gogoeta egiten duten lurraldeko aniztasuna kudeatzeko moduz. Helburua, hala ere, gogoeta egiteaz gain, erabakiak hartzea da. Alde horretatik, zeharo lotuta dago Migrazio eta Aniztasun Zuzendaritza Gipuzkoako jendartearen era-

gileekin egiten ari den dinamika parte-hartzailearekin, *Jatorri anitz, herri bat* ekimenearekin, hain justu ere.

Aldundiarekin batera parte hartzen ari diren 30 udalerrien artean Debagoienekoak ere badira; Arrasatekoa, esaterako. Sarea abian jartzeko batzarra hilaren 21ean egin zuten Lasarte-Orian eta parte hartu zuten Migrazio eta Aniztasun Zuzendaritzak eta sareko udaletako hainbatek.

Goienako hedabideez erabiltzaileek duten iritziaren gaineko galdeketa aurkeztuko dute 4an

Goiena Komunikazio Taldeko hedabideen gainean irakurleek, ikus-entzuleek eta erabiltzaileek duten iritzia eta portaerak ezagutzeko Aztiker enpresak galdeketa egin du. Horren emaitzak eta ondorioak azaltzeko aurkezpene antolatu du Goienak uztailaren 4rako, eguaztena, 18:30ean, Arrasateko Kulturateko areto nagusian. Interesa duten guztiak gonbidatuta daude aurkezpenera.

Sandra Carrasco: "Gustatu edo ez, ETako hiltzaileak atxilotzeko garai da"

Isaias Carrasco arrasatearraren ustezko hiltzailea atxilotu dute asteon

M.B. | ARRASATE

Isaias Carrasco Arrasateko zinegotzi sozialistaren ustezko hiltzailea atxilotu dute asteon, polizia araberako. Ustezko bi ETakide atxilotu zituzten martitzenean Frantzian: Ugaitz Errazkin hernaniarra eta Burlatoko Jose Javier Oses. Bada, Ugaitz Errazkin Isaias Carrascoren ustezko hiltzailea da, polizia iturrien arabera. Inaxio Uri enpresaburu azpeitiarraren hilketa ere egotzen diote.

Errazkinen atxilotzearen harira, Isaias Carrascoren alabak, Sandrak, "sekulako lasaitasuna" hartu duela esan du Ser irratian egindako adierazpenetan, eta espero duela "egindakoagatik ordaintzea". Gehitu zuen ez zekielako "bere aitaren hilketarekin zerikusia zuen inork aske jarraitzen" zuenik.

Bestalde, Xabier Mikel Errekondo Amaiurren bozeramaileari, "adierazpen inozoak" egitea leporatu dio, atxilotetak "gatazka konpontzeko kontrako nora-

bidean" doazela esan zuelako. "Gustatu edo ez, orain ETako hiltzaileak atxilotzeko garaia da", gehitu du Sandrak kalera-tutako agirian.



vibike
bikes & triathlon

Zure ziklismo, running eta triatloi esparrua Gasteizen.

Parking propioa. 400 m²ko erakusketa zure zain.




Bergarako Atea 24 • Gasteiz • www.vibike.com

ZABALIK

DIEGO MARTIARTU
http://goiena.net/iritzia/



Aulki esterkorarioa

S an Joan egun seinatua igaro berritan, zilegi bekit Joana Ama Santuaren istorioa berripaper honetara ekartzeko. 882. urtean Ingelheim am Rhein-en jaioa, txiki-txikia zelarik erakutsi zituen Joanak buruargitasun apartekoa, talentua eta ikasi nahi asegitza. Garai hartan, baina, eliz karrekar bano ez zuen bermatzen ikasketa ibilbide sendo bat, eta gure Joana, mutil jantzirik eta gizon plantak eginez, erlijioaren munduan sartu zen Johaness Anglicus gezurrezko izenez: trahesti bat avant la lettre. 855eko uztailen, ondo merezitako igoera meteoriko baten ondoren, Aitasantu kargua hartu zuen Joanak Benedikto III.a edo Joan VIII.a izenez. Handik bi urtera, Sajoniako Lanbertorekin izandako haragizko harremanaren ondorioz haurdun zegoelarik, Joana uzkurduarekin hasi eta prozesioan zihola, kale gorrian bertan eta jende guztiaren bistan erditu zen.

Kristau zintzoek, ustezko Aita Santuaren tripa puztua, sabelkeriari baino, sabelpeko apentziei zor zitzaie la ohartuta, berehalakoan hil zituzten harrika inpostorea eta haren ume sortzez lohia. Gero, gorpuak zaldi baten buztanari sokaz lotu eta arrastaka eraman zituzten kalejiran, haurren zein adinekoen gozamenerako. Justizia zerutierra lurrean garaile, once again.

Berriro ere halakorik gerta ez zedin, tramankulu bat asmatu zuten Vatikanon: aulki esterkorarioa. Komun izandako bat birziklatu eta zulodun tronu bihurtu zuten Aita Santu hautatu berriari gizontasunaren froga egiteko. Aulkiak bazuen aurrealdean beste zulo bat, ukabil baten neurrikoa, diakono batek eskua sartu eta pontifize gorenaren atributuak gizonezko bati zegozkionak zirela egiaztatzen. Behin gizontasuna egiaztatuta, zere moniara bildutako denek entzuteko moduan esaten zuen diakonoak: Testiculum habet et bene pendebant! (Hemen badago potrorik dilin-dalan zintzilik!).

USTEAK USTE

ENEKO AZKARATE | eazkarate@goiena.com

Twitterren dohainak

E lena Valenciano parlamentari sozialistak barkamenak eskatu ditu Espainiaren eta Frantziaren arteko partiduan Twitterretik Ribery-ren gainean esandakoengatik. Damututa-edo, "Twitter es un territorio confuso para mi" idatzi du bere blogean. Rafaela Romero Gipuzkoako batzarkide sozialistak "idiota" deitu dio Cristiano Ronaldori, Espainiak Portugal penaltietan mendean hartu eta berehala. Edozer esateko erabiltzen da Twitter. Ohiko hedabideetan esatera ausartzen ez direnak kontatzeko ere bai. Baita pertsona ospetsu edo herri ordezkariak ere. Hori da bere dohainetako bat: balio digu ezagutzeko benetakoki egia, ezkutukoak, mozkorraldietan barru-barrutik irten-dakoak... Oso interesgarria!

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | http://goiena.net/iritzia/



HANDIK ETA HEMENDIK

Egunkari euskaldun hutsa ikusezina da

Leire Narbaiza Arizmendi
http://eibar.org/blogak/leire/

Pasadizo bi, egunkari bi, denboran errepikatzen den errealitate gordina.

Egun batean, klasean, 3. mailako (EGA) ikasleei artikulu batzuk banatu nizkien, ia egunero egiten dudana bezala. Seguruenik, Onintza Enbeita edo Anjel Lertxundiren bat izango zen, ez naiz gogoratzen. Edizio digitaletik inprimatuta zeuden; beraz, *Berria.info* logoa zeramaten. Banatutakoan ikasle berri batek, mutil jatorra, ikastolan ikasitakoa, baina bertatik irten zenetik euskararik egin ez zuenak, galdetu zidan: "Leire, ikusi dut banatzen diguzun orrietan beti helbide bera agertzen dela. Zer da, euskaraz dagoen web orriren bat?".

Ez nekien barre, negar, oihu edo zer egin! Ez zekien *Berria* existitzen zenik! Irakasle gelara joan, eta paperezko edizioa eroan nion. Sekula ikusi barik zeukan! Ni flipatzen nenbilen,

haluzinatzen, ahoa bete hagin. Ez zekien euskara hutsezko egunkari bat zegoenik!

Hau gertatzerakoan, beste historia batekin gogoratu nintzen. Duela 20 bat urte, Bergarako UNEDko euskara sailean "Sakontze maila" (EGAtik gorakoa) egiten genbiltzan Eibarko lagun batzuk, tartean Luistxo Fernandez, orduan *Euskaldunon Egunkaria*-n beharrean. Goiz erdian atsedena izaten genuen, eta kafea hartzera joaten ginen. Taldeko baten lehengusina ere etortzen zen gurekin batzuetan. Neska hau Gipuzkoako Goierriko ikastola bateko andereñoa zen.

Tabernarantz gindoazela gutako baten batek plazako kioskoan *Egunkaria* erosi zuen. Eta goierriar honek galdetu zuen: "Ze periodiko da hori? *Egunkaria*, guk. -Bai, baina zein? -*Euskaldunon Egunkaria*. -Euskaraz? Baina badago periodikorik euskaraz?"

Imajina dezakezue denon aurpegia, eta Luistxorena zer esanik ez! Kontua da "Sakontze"-n ia jende guztiak ekartzen zuela *Egunkaria* besazpian klasera! (Orain ez bezala) Nola izan zitekeen neska hark inoiz ez ikusi izana? Jakin ere ez jakitea

existitzen zenik?

Lehenengo anekdota otsailaren 20aren inguruan gertatu zen. Jakina, *Berria* erakustean mutilak esan zidan berak itxi zutena ezagutzen zuela, baina ez zekiela besterik atera zenik. Orduan, azalpenak ematen hasi behar nintzen zer izan zen bidegabekeria hura. Gainera, epaiketan errugabeak zirela esan zutela aipatu nien; izan ere, Ermuan nabil klaseak ematen...

Baina nola azaldu Goierriko irakasle hari eta Ermuko ikasle honi *Euskaldunon Egunkaria*-k zer garrantzi zuen guretzako? Zer izan zen hura sortzea eta euskaraz lehenengo aldiz berripapera irakurtzea? Albisteak euskara hutsez (eta egokian) leitzea? Zer apurru zitzaigun bihotzean itxi zutenean?

Eta *Berria*-k ere gure bizitzetan, lanean, ikas-prozesuan horrelako garrantzia izan du (eta izan behar du)? Zer litzateke atzera ere euskara hutsezko kazeta barik geratzea, bai beste sumario batengatik, bai euskaldunon interes faltagatik, bai diru ezagatik? Hori ere katastrofikoa litzateke! Behar dugulako, nahi dugulako, gurea delako. Zizta dezagun!

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi
Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetzea eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER ARRASATE 20500:
Utalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00


ORDEZKARITZA ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetzea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetzea@goiena.com

Legu Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eskerrik asko!

Emi Izura, Pakita Ramos, Mari Carmen Fernandez, Eva Gutierrez, Olatz Pagaldai, Asun Arzaburu, Rosa Carrillo, Marivi Carrillo eta Amaia Arrizabalaga
(Ausartak antzerki taldea)
Eskoriatza

Eskerrik asko, Mikel Errasti, zure gutuna oso hunkigarria suertatu zaigu eta.

Antzerki tailerreko ikasturteari bukaera emateko antzezlan xume hau taularatu genuen, baina ez genuen espero halako arrakastarik izatea.

Honek poztasun eta motibazio handia ekarri dizkigu, baita gogo handia lanean eta ikasten jarraitzeko.

Gure esku kanpo gelditzen da nora jo antzezlan hau beste herrietan antzezteko, baina gu prest gaude edozein tokitara joateko, gure helburu bakarra da jendea irribarretsu ateratzea emanaldia ikusi ondoren, guk eszenatokiaren gainean oso ondo pasatzen dugulako, eta uste dugu garai hauetan barre egitea oso garrantzitsua dela.

Eta horrek balio badu emakumearen egoerari buruz hausnarketa txiki bat egiteko, ba, hobeto.

Orduan, norbaitek nahi badu gure obra edozein herritan ikustea, harremanetan gurekin jarri

GUTUNAK

Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne).
GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

eta ahal badugu oso pozik joango gara.

Gure helbidea hau da:
ausartak.antzerkitaldea@gmail.com.

Mila esker, txalo zaparrada bota zenigutenei eta lagundu diguzutenei ikuskizun hau aurrera ateratzen.

Aintzane Oiarbideri

Ander Urrondo
Eskoriatza

Kaixo, Aintzane.

Facebook etab.en garai hauetan, dirudienez, ohoretzat hartu behar da norberak trol bat izatea; hau da, futbolaren terminoetan, markaketa estua egingo dizun aurkari bat izatea, eta zu, Aintzane, izarren ligan sartua zaude.

Batzuen gustuarentzat

Goienan gehiegi idatzi eta agertzen zara, eta hori ere badakigu.

Ezagutzen ditugu horren inguruko presioak.

Azken finean, zuk ere badakizu aipatzen duzun zurekiko jarrera obsesibo hori ez dela propio zurekiko, ordezkatzen duzun alderdiarekiko baizik.

Horra hor obsesioa.

Pentsa! Batzuek 35 urte pasa ondoren herria altxatzen arlo guztietan, beste batzuek jendea erailtzen, txantaitzen, mehatxatzen pasa dute denbora, erailketa, txantai eta mehatxu horiek txalokatuz, beldurra sozializatuz, beldur hau pax batasunikoan integratuz, orain kendu nahi dituzten zaborrontziak edo telefono kabinak errez, edota espainiarren mesedetan abertzaletasunaren kausa kakaztuz; baina, ordea, gaur egun bezala, eurek defendatu

dituzte beti herri interesak.

Ez zenuen ba horrelako zalantzarik izango, ezta?

Borroka armatua herri borroka baitzen, eta herri armatua inoiz ez zanpatua...

Ah! Eta eredia, albaniarra, noski.

Aizu, aukera baduzu ikertu ezazu Albanian zaborra atez ate jasotzen duten, inguru haietatik kopiatutako eredia ematen baitu.

Inola ere, zure txantxitrolaren ustetan historiaren zama beti izango omen du zuk ordezkatzen duzun alderdiak, eurek orain barniz historikoekin makilatu kontzientzia zamarik suposatu behar izango ez balie moduan.

Ez die suposatuko, ez, ez baitute kontzientziarik.

Izango balute, Lizarralde jaunarengatik hasita, ez liekete atez ateko gai honetan bezala, inoren kontsultak

egiteko eskaerari zilegitasunik ukatu behar, baina horrelakoa da hauen Demokrazia Euskal Herriarentzat, eurak iritsi artean ez da ezer egin, egin bada gaizki egin dago, gauza oro hasieratik berregin behar da, azkenean, errealitatera jaisten direnean, aurrekoek egin eta eurak borrokatu zituzten gauza guztiak errepikatzen bukatzeko.

A! Eta kontsultak irabaztera baldin badoaz baino ez dira deituko, noski, gainontzekoetan herria ezjakina baita, adibidez, Zestoan.

Hemen, Aintzane, garrantzitsuena ez baita zer egin edo proposatzen den, baizik eta gure Mugimendu Nazionalagatik egin edo proposatua izatea.

Eta pax batasunikoan denok pozik, baldin eurek agindu eta gainontzekook isiltzen bagara.

Beste huraren bakezko 25 urte haiek bezala.

Bukatzeke, gomendio bat.


Ez itzazu horrelakoak kafea hartzen gonbidatu, garai bateko euren aitona integristekin gertatzen zen bezala, zenbat eta gehiago argudiatu eta arrazoitu, orduan eta gehiago erradikalizatzen baitira.

Kafea garratzu egingo zaizu, eta zuri ordinaraziko dizute EAJkoa zarelako. Aldi berean, eta aurreko arrazoi

POLTSIKOAN

Goiena.net prest sakeleko telefonoan!

- ▶ Albistek
- ▶ Gaiak
- ▶ Iritziak
- ▶ Parte hartzeko atala
- ▶ Blogak
- ▶ Gida komertziala
- ▶ Irratia
- ▶ Tebista



PARTE HARTU Parte hartu zorian agurrak, eskelak eta ezkon-zorionak bidaltzen.



HERRIAK Albistek, herria eta gaika antolatuta. Etkeko ordenagailuan bezala



AGENDA Edozein unetan dataren, herriaren edo ekintza motaren araberako bilaketa.



GIDA KOMERTZIALA Ukitu batekin nahi dugunari telefonoz deitzeko aukera.

Deskargatu!

Beheko QR kodea irakurrita, aplikazioa jaitsi daiteke Google play edo App Store dendetan.



m.goiena.net

beragatik, zerga iraultzailearen bat ipiniko dizute eta txintik ere ezingo duzu esan Aberri, Herri interesen onuran izango baita, eta beste edonorekin hartuak izan ditzakezun kafe guztiak alde aurretik kontabilizatuak izaki, besteak beste, txibato pila dauzkatelako, edozein arrazonamenduren aurretik aurpegiatuko dizkizute, Inkisizioaren beraren antzera. Har dezatela kafea Torquemadarekin.

Ekainaren 30a: Fan Hemendik Eguna Oñatin

Ander Astigarraga eta Oier Fernandez

(Fan Hemendik Batzordearen izenean)
Oñati

Kaixo, debagoiendar.

Larunbat honetarako, ekainaren 30erako, Oñatiko Fan Hemendik Batzordeak II. Fan Hemendik Eguna antolatu du.

Bertan, bigarren urtez jarraian, Euskal Herrian dauden indar okupatzaileek gure herritik alde egitea eskatu eta aldarrikatuko dugu.

Euskal Herrian, orokorrean, eta Oñatin, partikularrean, indar

okupatzaileen presentzia sufritzen ari gara azken hamarkadetan, baina orain, bizi dugun egoera politiko berrian, egoera iraultzeko aukera dagoela uste dugu.

Gaur inoiz baino arrazoi gehiago daude Euskal Herriaren desmilitarizazioan konpromisoak hartzen joateko, eta ildo hau jorratzeko asmoz, Fan Hemendik Batzordeko Oñatiko Guardia Zibila bere kuarteletik bidaltzeko helburuarekin lanean gabiltza. Garbi daukagu desmilitarizazioa Euskal Herriarentzat onuragarria izango dela esparru guztietan (politikoan, sozialean zein ekonomikoan).

Beraz, aldarrikapen honen alde borrokatzea guztiz zilegi dela uste dugu.

Oñatiko eta Debagoieneko herritarren gehiengo zabalaren bultzada dugulakoan gaude eta bide honetatik, 2011n Oñatiko Udalak aho batez Guardia Zibila Oñatitik bidaltzeko konpromisoa berretsi zigun mozio bidez.

Helburua errealitate bihurtzeko hitzetatik ekintzetara pasa gara eta beste urte batez, debagoiendar guztion bultzada eskatzera gatozkizue, gazte zein heldu, emakume zein gizon, guztiok egon baikara beraien jomugan.

Honetarako, ekainaren 30erako gertatu dugun

egitarauan parte hartzera animatu nahi zaituztegu, bereziki arratsaldeko zazpitan plazan hasiko den manifestazioan.

Gonbita bidalita, zuen erantzunaren zain geratzen gara.

Denon artean lortuko dugu.

Horrelakoa da ziklismoa, onerako eta txarrerako

Mikel Aranzabal
Eibar

Aurrekoan, Realaren gorabeherak izan nituen hizpide, eta gustua hartu diot gutun erakusleio honi.

Eurokopa, arrisku saria eta horrelakoa alde batera utzi, eta zentra gaitzen bihar Liejan (Belgika) hasiko den Frantziako Tourrean.

Bai, bihar, zapatua, ekainak 30, hasiko da Frantziako Tourra.

Hiru asteko itzuli handiena, mitikoena, ikusgarriena.

Izan ere, adjektibo ugari jar diezazkiokegu proba gogor horri.

Azkeneko urteetan, Armstrong estatubatuarren

eta Contador espainiarren nagusitasun argiak zirela-eta, beti zegoen argi zein zen favorito bakarra. Ez zegoen besterik.

Horrelakoa da ziklismoa, onerako eta txarrerako.

Aurten, berriz, ez dago favorito argirik. Ala bai?

Hasiera baten, hautagai nagusia Cadel Evans australiarra da, iaz irabazi zuelako eta pedal kolpe ona erakutsi berri duelako Criterium du Dauphine proban.

Edozelan ere, izen bat dago guztien gainetik, izen bat apustu guztietan: Bradley Wiggins britainiarra.

Denboraldi ederra darama Sky taldeko liderrak, eta Tourreko irteera puntura inoiz baino hobeto iritsiko da.

Ez hura bakarrik, baita Sky taldeko ziklista guztiak ere.

Bai, bai, guzti-guztiak.

Rogers, Porte, Boasson Hagen, Froome, Cavendish...

Beldurra emateko moduko taldea osatuko dute, Tourra bera irabazteko, esprintak irabazteko, erlojupekoak irabazteko...

Zera, pentsa... talde horretako masajistik bizikleta gainean jarriko balira ere, maila emango lukete...

Horrelakoa da ziklismoa, onerako eta txarrerako.

Izan ere, oso ohikoa da taldeburu bat ondo dabilenean

talde osoa ere primeran ibiltzea.

Armstrong bera Tourrean zenean, talde osoa ibiltzen zen maila gorenean: gora, behera, haize-babesetan...

Tira, utz dezagun Armstrong alde batera, orain badauka-eta zerekin kezkatu...

Horrenbestez, ematen du Sky talde britainiarrak *pozima* berezia deskubritu duela Frantziako Tourra goitik behera menderatzeko, eta Wiggins ederto egokitzen zaio aurtengo Tourra.

A, barkatu, Joko Olinpiarrak Londresen dira aurten...

Ba, kasualitate hutsa.

Horrelakoa da ziklismoa, onerako eta txarrerako.

Edozelan ere, beti egon daitezke ezustekoak, beti egon daitezke erorikoak

-Wigginsena berarena iazko edizioan-, beti egon daitezke sekula ezer egin ez eta derrepentean maila handia ematen dutenak...

Horrelakoa da ziklismoa, onerako eta txarrerako.

Eta euskaldunez zer esan... Pirinioetako etapak astean zehar jarri dituzte, baina, hala ere, ez ditugu ikusiko euskal ziklistak aurreneko postuetan goi mailako etapetan, maillot beltzak bakarrik ikusiko ditugu-eta aurrean.

Izan ere, horrelakoa da ziklismoa, onerako eta txarrerako.

Euskal Herrian
ihesi

Lurraldeak

Zonaldeak

Gomendioak

Jarri zure
bannerra

Gehitu
herri bat

Proposatu
zerbait

Osa dezagun guztion artean geure gida sarean

Non jan dezaket Bermeon? Zer ikusi beharko nuke Maulen?
Non egin dezaket lo Tuteran? Bastidarrek bertara joateko egun berezirik gomendatzen al dute?

Hurbil diezaigun elkarri Euskal Herria

**Euskal Herriko lehen
turismo webgune interaktiboa**

Herrietako informazio praktikoa, mapak, bideoak, ARGIAko Ihesi erreportajeak, erabiltzaileen gomendioak, zeure proposamenak egiteko lekua, zure iragarkia 0,50 €-tik aurrera...

ihesi.com



argia
proiektua

Goiena Rent: ibilgailuak alokatzeko zerbitzu berria

Oñatiko Zubillaga auzoan du egoitza, eta Debagoieneko herritarrendako eta enpresendako sortu dute

Ibilgailuak alokairuan hartzeko enpresa sortu dute Jon Obeso eta Maite Almeida oñatiarrek. Auto txikiak, monobolumenak, furgonetak, ezkontzetarako luxuzko autoak... bezeroak behar duen ibilgailua alokatzeko zerbitzua da Goiena Rent.

BEZEROAK GURA DUEN TOKIRA

Oñatiko Zubillaga auzoko Olaburu industrialdean du egoitza ekainaren hasieran sortu den enpresa horrek, baina bailara osoari eman gura dio zerbitzua. "Ikusi genuen bailarako asko Gasteizeraino joaten zirela ibilgailu bat alokatu gura zutenean, bazegoela zerbitzu horren hutsunea Debagoienean, eta horrelaxe animatu gara. Legazpi, Zumarraga eta Urretxura ere zabaldu dugu zerbitzua. Emaztea, Maite, da inizatiba izan duena, ni laguntzailea baino ez naiz", dio Jon Obesok.

Herritarrak, enpresak zein tailerrak izan daitezke Goiena Renteko bezero, eta haiek gura duten tokira eramango diete behar duten ibilgailua. Horretarako, nahikoa da bizpahiru egun aurretik eskaera egitea, ze auto eta non hartu gura duten zehatzeko. Eskaera telefonoz, e-postaz edo bulegora bertara joanda egin daiteke. Alokairua egiteko, bezeroak gutxienez 23 urte izatea eta Europako Bata-suneko gidabaimena izatea nahikoa da. Arrisku orotarako estaldura izango du ibilgailuak, eta bezeroak aukeratuko du zenbateko frankizia gura duen, edo frankiziarik gabe hartuko duen.



Jon Obeso eta Maite Almeida, alokatzeko dituzten bi auto ondoan dituztela.

AIREPORTUKO ZERBITZUA

Tourrera joateko, sanferminetara joateko, asteburua pasatzeko zein oportetara joateko aloka dezake bezeroak ibilgailua. "Turistendako eskaintza ere zabaldu dugu. Bailarako hotelekin, adibidez, adosten ari gara egonaldia

eta ibilgailua eskaintzea, pakete berean, turistei", azaldu du Maite Almeidak.

Horrez gain, aireportuko zerbitzua ere lotuta dute. "Bilboko aireportuarekin ibili gara gure zerbitzua haraino eskaintzeko lanean, eta lortu dugu. Zerbitzu

hori behar duenak ere izango du", jarraitu du Almeidak.

FURGONETAK ERE BAI

Goiena Rent zerbitzua Estatuan diharduen I Rent enpresaren ordezkari bat da. Horrela, Estatu barruko logistika ere anto-

la dezakete Jon Obesok eta Maite Almeidak. Adibidez, posible da auto bat Oñatin hartu, Madrillgo aireportuan utzi eta oportetarik bueltan han beste auto bat hartu eta etxeratzean, Oñatin entregatzea.

Hori egin daiteke autoekin zein furgonetekin. "Orain, gainera, eskaintza berezi bat dugu bederatzi plazako furgonetekin eta auto txikiekin. Udako planak koadrilan egiten dituztenendako interesgarria; laster autokarabana ere izango ditugu alokatzeko", aurreratu du Maite Almeidak.

"Bezeroak gura duen tokian hartuko du autoa"

"Bederatzi plazako furgonetak ere baditugu"

"Bilboko aireportuarekin ere lotura dugu"



- Era guztietako ibilgailuak alokagai.
- Ibilgailua etxeko nahiz lantokiko atarira eramaten dugu.
- Asteburuetan eskaintza bereziak autoetan eta furgonetetan.

Goiena i-rent
Ibilgailuen alokairua

943 71 66 52 / 619 44 71 75
Zubillaga auzoa 20 1.a ZM5 (Olaburu zentroa) • OÑATI
info.goienarent@i-rent.es • www.irent-central.es/onati

Dani Maeztu | Aralarko legebiltzarkidea Gasteizen

"Ezkerreko eta zentro-eskumako abertzaleen arteko lehia izango da"

- ▶ Hurrengo hauteskundeetan abertzaleak nagusi izango direla dio Aralarko kideak
- ▶ Patxi Lopezena "ideologia bako gobernua" dela dio, "murrizketak ekarri" dituen

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Aralarrek Gasteizko Legebiltzarrean zeuzkan lau ordezkarietatik alderdian geratu den bakarra da Maeztu. Durangarra, abokatua, Ermuan bizi da. Aralarko krisiaz dihardu, Lopezen agintaldiaz, hauteskondeez. "Ideologia bako gobernua" irizten dio sozialisteari.

Aralartik botatako hiru legebiltzarkideek aktak utzi dituzte. Zela bizi izan duzu prozesu hau guztia?

Oso gogorra izan da, besteak beste, Aralar alderdi txikia delako, 11 urteko ibilbidea duen alderdi gaztea, gainera. Eta denok eza gutzen dugu oso ondo elkar. Gainera, denetik jasan behar izan dugu urte hauetan guztietan eta harremanak sendotu egin dira. Gauza bat da politika eta beste bat harreman pertsonalak. Baina oso zaila da ezberdintzea. Zauriak sendatuko dira eta arazoak konponduko ditugula uste dut.

Zela eragingo dio Aralarri honek guztiak?

Ezin jakin. Onerako ez da izan, jakina, eman dugun irudia ez delako ona izan. Alderdi ezberdina da gurea eta formetan-eta ez gara fin ibili. Argi daukat nondik etorri den krisia eta zerk sortu duen eta uste dut alderdiak koherentziaz jokatu duela. 2011n ezohiko kongresua egin zuen Aralarrek eta, han, alderdikideen %70ek erabaki genuen apustu estrategikoa: ezkerreko eta subiranotasunaren aldeko ziren alderdiekin indar metaketa egitea. Bagenekien erabaki horrek hainbat arazo sortuko zituela Aralarren barruan, iritzi ezberdinak zeudelako, baina ez genuen espero hala amaitzea eta ezadostasun horiek horren ageriko egitea. Desadostasunak eta ezberdintasunak beti egon dira Aralarren barruan; hori aberasgarria da. Baina erabiltzen duzunean alderdiaren kargua alderdiaren aurka egiteko, hori ez zait zilegi iruditzen. Hori izan da tristeena.

Legebiltzarreko jarduna amaitu dela uste duzu ala udazkenean, oraindik, gogor etorriko zarete berriro?

Herri honek hauteskundeak behar ditu, argi eta garbi. Egoera ekonomikoarengatik eta politikorengatik, batik bat. Iritzi politikoa guztiak ordezkatuta egoteko aukera eskainiko duen Legebiltzarrak behar dugu. Ahalik eta gobernu indartsuena ateratzeko Legebiltzar berri horretatik. Izan ere, alder-



Dani Maeztu, Arrasaten, aste honetan. | ENEKO AZKARATE

di sozialistak soilik jarraitzen du gobernuan norberaren interesengatik. Jarraitzea komeni zaiolako: PPK Espainian eta Bilduk Gipuzkoan, botoak gal dezaketela ikusten duelako. Izan ere, uste baitu gobernu kudeaketak kalte egingo diela alderdi horiei. Nahi dute luzatu agintaldia propaganda egiteko, horretarako, Legebiltzarra eta Jaurlaritza erabiliz.

Asko espekulatu da hauteskundeak aurreratu egingo ote diren. Ze data darabilzue esku artean?

Urrian eta azaroan ez badira, eta nik uste dut ez direla izango, abenduan eta urtarrilean ez dira izango; hortaz, datorren urteko otsail edo martxora joango ginateke. Lopezen jarrera ikusita, nahiz eta errorea izan, uste dut 2013an izango direla hauteskundeak.

"Ze ekarri digu gobernu horrek? Ezer gutxi: breziki murrizketak"

"Ez mugitzeko aitzakia ere badira Frantziako azken atxiloketak"

Zela definituko zenue Lopezen agintaldia?

Ideologia bako gobernua. Sozialista abizena daukan alderdi bat da PSE-EE, baina ez da ez sozialista eta ez ezer. Batean honen alde eta hurrengoan bestearen alde egiteko lotsarik ez du: PPrekin hasi eta PPren oposizio izaten amaituko du. Basagoitik eta PPren 13 botoek jarri zuten Lopez karguan. Zer ekarri digu gobernu horrek? Ezer gutxi, murrizketak bereziki.

ETako ustezko beste bi kide atxilotu dituzte Frantzian. Ze balorazio egiten duzu?

Justiziarekin karguren bat duen edonor atxilotu behar da. Ikusi beharko da errudun diren edo ez. Ze, badakit ze interesekin eta ze irakurketa politikoa egiten diren kontu hauena. Batzuek nahiago dute iraganeko mezuak zabaldu, ez mugitu, lehengo diskurtsoan jarraitu, deseroso daudelako egoera berrian. Ez mugitzeko aitzakiak ere badira atxiloketa hauek.

Presoen gaineko dokumental bati 9.000 euroko laguntza eman izanagatik, Bildu legez kanpo uzteko zantzuak ikusten dituela esan du Espainiako Barne ministroak. Bildu legez kanpo utz dezakete?

Harrigarria da, auzitegi Konstituzionalak Sortu legeztatu eta astebetara halakoak entzutea. Zalapartaka hasi diren horiek ez dute dokumentala ikusi. Eta oso

larri da, ze agerian geratzen da intentzio politikoa hutsarekin egiten direla. Batzuek erakusten dute, oraindik, demokrata zein den eta zein ez den erabakitzeo harropuzkeria.

Ezker abertzale ofizialak, Aralar, EA eta Alternatiba irentsi edo fagoztatu egin dituela dio hainbatek. Zer diozu?

Alderdi txikiok ekarpen handiak egin ditzakegu. Aralar, duela 11 urte sortu zenean, ze parametro politikotan jarduten zen ikusi eta gaur egun ezker abertzale osoa ze parametrotan dabilen ikustea garrantzitsua da.

Aralar gustura dago koalizio horretan?

Bai. Arazoak ditugu, jakina. Eztabaidak. Bestalde, lau alderdi politikoa gara eta kultura ezberdinetik gatoz, baina beti defen-

datu dugu ezkerreko eta burujabetzaren aldeko alerdiaren indar metaketa. Aukera ez soilik elektoral moduan, baizik eta epe luzeko estrategia moduan.

Hauteskundeak begi bistan ditugu, aurreratu ala ez, eta lehendakari-gaiak, programak, zerrendak... osatzen doaz apurka-apurka. Euskal Herria Bildurenak zela daude?

Laster, uztailean, aste pare bat barru, jakingo da gure lehendakari-gaia. Baina gure mezua gainerako alerdiaren ezberdina da. Guretako ez da inportanteena aurpegi soil bat, hautagaia. Programa da inportanteena. Ez da samurra, eredu kapitalista globalizatu honetan, aukera sozio-ekonomiko sinesgarri berria eskaintzea. Proiektu hori aurrera ateratzeko pertsona taldea ere osatzen gabilta.

Asteburuan argitaratu dute boto intentzioaren gaineko lehen inkesta. Horren arabera, Euskal Herria Bildu izango da bigarren indarra eta EAJ nagusi bost bat legebiltzarkideren aldearekin...

Oso zaila da inkesta horrekin bat etortzea. Batetik, inkesta delako eta, bestetik, Vocento taldearena delako. Edozelan ere, ikusten da abertzaleek gehiengo izango gairela eta geure arteko lehia izango dela, ezkerreko eta zentro-eskumako abertzaleen artean.



"Lopez jarrera ikusita, uste dut 2013an izango direla bozketak"

"Zalapartaka dabilzan horiek ez dute ikusi presoen dokumentala"

TORRA+PORTELLA

Zure seme edo alabaren ideiarik onena bezain jostagarria. Horrelakoa izatea nahi duzu bere denboraren zatirik handiena igaroko duen lekua. Magikoa, abegikorra, bere adinerako pentsatutako aukera praktikoekin. Umeentzako logeletan proposamen ugari dituzu made in Kibuc. **Zuk egiten duzu Kibuc.**

ZU zara funnya



gutxieneko prezioa bermatuta ok



1.176 €

98 € x 12 hilabete interesik gabe*



3D proiektuak doan

KIBUC Gure Ametsa

Landeta Hiribidea 1, Azpeitia Tel. 943 15 16 81 gureametsa@kibuc.com

www.kibuc.com



Proiektu eta eraberritze integralak

KIBUC
altzariak eta osagarriak

Azkenean etxean

Niko programa Argi eta kolore ugari osatutako proposamena, zure seme-alaben beharretara eta espaziora egokitzen dena. Trinkoa, ohe ateragarria eta ateratzeko estalkia L 203,8 zm-koak, 2 ateko armairuarekin (L78,4 zm-koa) eta kuboekin. Akaberek: decapéak, testuratu zuria eta laranja iluna. Neurria: L 281,8 zm. Adierazitako akabera eta neurrietarako balio duen prezioa. BEZ barne. *Irekitze-gastuak % 2, eta finantza-erakundeak ontzat emateari baldintzatua.

HERRIAK



Aretxabaletako kiroldegia. | ADOX



Kiroldegiko rokdromoa probatzen. | ADOX



Kiroldegi berriko solariuma. | XABIER URTZELAI

ARETXABALETA

Kiroldegiari azken ukituak ematen

Sinatu dute kiroldegia kudeatzeko akordioa Udalak eta LKS, Athlon eta Ondoan-ek osatutako hirukoak

USOA AGIRRE | ARETXABALETA

Apirilaren bukaeran egindako ezohiko osoko bilkuran erabakia hartu ostean, duela egun batzuk sinatu dute Aretxabaletako Udalak eta LKS, Athlon eta Ondoan enpresek osatutako hirukoak Aretxabaletako Ibarra kiroldegia kudeatzeko hitzarmena.

Sinatutako hitzarmenaren arabera, 10 urtez kudeatuko du

kiroldegia enpresa talde horrek; eta kontratua luzatzeko aukera egongo da.

Dagoeneko hasi dira kiroldegian lanean enpresa horietako arduradunak: Iker Etxeberria izendatu dute kiroldegiko zuzendari, eta ari dira azken erremateak egin, kiroldegia ekipatu eta langileak kontratatzen. Seinaleztapen guztia, adibidez, hamar egun

barru bukatuta egotea espero du Etxeberriak.

Ate irekiak, uztailean

Kiroldegiaren irekieraren data zehatzaren berri datorren astean, eguaztenean, emango dute, prentsaurreko batean. Kiroldegia zabaltzeko egun zehatza emateaz gain, bertan zehaztuko dituzte beste zenbait kontu. Adibidez,

uztailean atek ireki nahi dizkiete herritarrei kiroldegi berria zabaldu aurretik ikus dezaten, eta, horretarako, ate irekien egun bereziak antolatuko dituzte. Etxeberriak azaldu digunez, "kiroldegia aretxabaletarra da eta garrantzitsua da jendeak ezagutzeari ireki aurretik. Ezagutzen dutenean pentsatzen dut arrazoi gehiago eta gogo handiagoa izango dutela bertako ekintzetan izena emateko".

Ate irekien berri, baina, eguazteneko prentsaurrekoan emango dute. Bertan erakutsiko dute kiroldegia izango duen irudi korporatibo berria, Adox diseinu eta komunikazio enpresak egindakoa. Komunikazio plan bat ere diseinatu dute Udaleko arduradunek, aretxabaletar guztiei kiroldegiko ekintzen, matrikulazioen, eta abarren berri emateko.

Uztailean zehar kirol ekintzek segituko dute. Orain arte moduan, Zaindus gimnasioan izango dira ekintzok.

IKER ETXEBERRIA
ZUZENDARIA

"Aretxabaletako jendea aintzat hartuko dugu kiroldegian lan egiteko"

Jarduera fisiko eta kirolletako lizentziaduna da Iker Etxeberria eibararra. Kirolaren arloan "denetik" egin duela esan digu, eta azken 11 urteotan Athlonen aritu da lanean. Ibarra kiroldegiko zuzendaria izango da.

Badirudi gauzak nahiko aurreratuta doazela kiroldegian, ezta?

Dagoeneko hasita gaude lanean, eta azken erremateak egitea falta da. Eraikuntza-enpresak giltzak eman bezain laster hasiko gara ekipatzen; datorren astean hasiko gara materiala jasotzen.



U.A.

Langileak kontratatzeke lanean ere ari zarete.

Pleguetan jartzen zuen moduan, Aretxabaletako jendea aintzat hartuko dugu, profilak betetzen diren heinean. Adibidez, Zaindusen lanean ari diren bi monitorea gurekin etorriko dira lanera. Hasieran 10-12 lanpostu sortuko dira: harrera, mantenua, sorosleak, ur ekintzetako monitorea, beste ekintza batzuetako monitorea eta garbitzaileak.

Fitness gelan zelako ekipamendua egongo da?

Punta-puntako ekipamendua egongo da. Hornitzaile ezberdinak begiratzen ari gara eta erabakia ez da erraza, gauza asko hartu behar direlako kontuan, baina nahi duguna da Ibarra punta-puntako ekipamendua egotea.

MAI-ko APLIKAZIOA ZURE MUGIKORREAN!
Erdi eta Goi Mailako zikloak, lanerako formazioa, ikasturteko egutegia, mapa, lan poltsa, proiektuak... eskura.

<http://m.imaltuna.com>
Eskuragarri ere:

MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA

MATRIKULA
Uztailaren 5etik 11ra.

Ibargarai, 1
20570 Bergara
943 76 38 40/943 76 24 91

Ordutegia
08:00etatik 14:30etara
15:30etatik 18:30etara

www.imaltuna.com
imaltuna@sarenet.es



Kurtzetxiki mendian dagoen 10 hektareatako lautada da Udalak egokituko duena; argazkian, langileak garbiketa egiten. | PELLO GARAI

Udazkenerako gertu izango dute Kurtzetxiki, baserritarrendako

- ▶ Ganadua hara eramateko aukera eskaini gura die baserritarrei
- ▶ Diputazioak dirulaguntza eman dio Udalari, ingurua narrez garbitzeko

UBANE MADERA | ARRASATE

Kurtzetxiki mendia erabat eraldatuko da datozen urteotan. Joan den astean jakin genuen Udalaren asmoa dela Kurtzetxiki egoki seinalatzatu, herritarrendako pasealeku moduan indartu, eta bertako "altxorrak" ezagutaraztea; besteak beste, bertako artadia eta elurzuloa.

Bada, horrez gainera, lan gehiago ere egingo dituzte aurten paraje hartan: udazkenerako Kurtzetxikiko 10 hektarea narrez garbituta izango dira, belar hazia ereingo dute eta itxitura batzuk egingo dituzte.

Gipuzkoako Foru Aldundiak hori egiteko dirulaguntza agindu

dio Arrasateko Udalari, baldintza batekin: urriaren 31rako gauzatu beharko dituztela lanok.

Hain zuzen, Diputazioak 40.000 euro emango ditu. Eta garbiketa lanak egitea kostatzen den 70.000 eurora arteko desberdintasuna (30.000 euro) Udalak berak ipiniko du; Ingurumen Saileko aurrekontuetan hala dute jasota dagoeneko.

Larregune: ganaduzaleendako

Udalak inguru hura garbitu egin gura du arrazoi batengatik: 10 hektarea horiek larregune bilakatu eta gero larregunea inguruko baserritarren eskura ipini gura du, ganadua bertara eraman

dezaten. "Helburua da lehen sektoreari indarra ematea. Asmoa litzateke 10 hektarearekin hasia larregune moduan. Inguru guztian itxiturak egin behar dira, narrez garbitu behar da eta ura eraman, han ez dagoelako errekastorik. Azken horrekin lotuta, ikusi egin beharko dugu nekazariak eurek garrariatzen duten ura edo hodi baten bitartez eramaten dugun; aurrekontuak aginduko du. Hala, Kurtzetxikiko 10 hektarea egokituko ditugu, zatirik laueneko gunea, eta beste 20 hektarea bere horretan utziko ditugu, baina ganaduak erabiltzeko izango da hori ere. Behin hori eginda, Diputazioarekin elkarlanean erabaki

beharko dugu noiz sartu ahal izango den ganadua, eta hori egiteko xehetasun guztiak zehaztu", kontatu dute Ingurumen Sailetik.

Lehentasunak finkatzeko

Zehazteko dute, esaterako, zeinek izango duen larregunea erabiltzeko lehentasuna. "Diputazioko Landa Garapeneko Mari Karmen Iturbek baditu eskaerak. Dena den, argitu beharko da arrasatearrek bakarrik erabil dezaketen edo oñatiarrak ere sartuko diren; izan ere, Oñatiarekin egiten du muga Kurtzetxikik". Eta ikusteko dago, baita ere, zenbat baserritarrek erabili ahal izango duten gunea.

Mahai-jokoak eta irakurgaiak igerilekuan

IRATI GOITIA | ARRASATE

Uztailaren 2tik, astelehena, abuztuaren 4ra bitartean, Arrasateko kanpoko igerilekuetan euskara hutsezko irakurgaiak eta mahai-jokoak jarriko ditu Txatxilipurdik bertako erabiltzaileen eskura, doan, 16:00etatik 20:00ak bitartean. Hain zuzen ere, adin eta era guztietako jendeari zuzendutako irakurgaiak eta mahai-jolasak izango direla iragarri dute, eta halakoren bat eskuratzeko nahikoa izango dela identifikazio txartelen bat aurkeztea: nortasun agiria edo Aukeako txartela, adibidez. *Freskura* izena du ekimenak, eta iaz egin zuten lehen aldiz.

Aurten, sorpresa eta guzti

Eguaztenean egin zuten bigarren edizioaren aurkezpena. Eta, besteak beste, sorpresa-aren bat edo beste izango dela aurreratu zuten Txatxilipurdi elkarteak eta Arrasateko Udaleko ordezkariak.

Bestalde, iragarri zuten euria denean ez dutela zerbitzurik eskainiko, iaz ikusi zutelako halakoetan ez dela erabiltzailerik egoten.

Euskalgintzari bultzada ematea da *Freskura*-ren helburua. Eta ildo horretan, hainbat aldizkari eta egunkariren laguntza ere izan dute: GOIENA, *Irriren Lagunak*, *Berria/Hitza*, *Argia*, *Gasquezulo* eta *Aizu*. Eskerrak eman gura dizkiete guztiak.

AUKEAren udako ekintzak orain hasiko dira

U.M. | ARRASATE

Spinning-pump, padel hastapen (berriak), aerobik step, body balance, fitness, gimnasia hipopresibo, patinaje, pilates, tai txi, bosu gap eta spinning arrunta dira AUKEA udako kanpainan helduendako bideratu duen eskaintza. Domekan, uztailaren 1ean hasiko dira ikastaroak, uztailaren 31ra arte.

Bestalde, gaztetxoendako eskaintza berezia ere prestatuta dauka AUKEA udarako. Horiek ere uztailaren hasiko dira. Kasu horretan, honako eskaintza dute: 4-5 urte artekoendako, patinajea; 5-9koendako aerodantza, tenisa eta multikirola; 10-14koendako, aerodantza eta tenisa; eta 12-16koendako aerodantza, gazte spinninga eta skatea.

Altxor gehiagoren bila etorriko dira Lezetxikira

Astelehenean etorriko dira Arrasatera Lezetxikiko indusketetan jardungo duten boluntarioak

U.M. | ARRASATE

Normalean baino astebete beranduago hasiko dira aurtengo Lezetxikiko indusketa lanak, astelehenean iritsiko dira eta Gara-gartzako aztarnategian jardungo duten gazteak. "Deialdia beranduago atera delako hasiko gara beranduago", argitu du Alvaro Arrizabalagak, Aranzadi elkar-teko arkeologo eta Lezetxikiko indusketen arduradunak.

Xehetasunen arabera, 23 bat ikaslek egingo dituzte aurtengo lanak: "Bartzelona, Salamanca,

Madril, Palentzia eta Arrasateetik etorriko dira. Guztiak dira unibertsitateko ikasleak, batzuk doktore ikasketak egiten dihardutenak, beste batzuk masterrak, eta gradua ikasten daudenak ere badaude; batzuk astelehenean bertan iritsiko dira (18) eta besteak geroago", kontatu du Arrizabalagak.

Tresneria nahiko

P mailan jardungo dute oraingo honetan, "160.000 urteak gaindituta izango ditugula uste dut.

Lehenengo neanderthalak edo azkeneko homo heidelbergensis aztarnak izango direla espero dugu, garaikideak direnak han aurkitutako giza hezurarekin. Badago tresneria nahikotxo, iaz hasi ginen eta indusketak egiten", azaldu du Lezetxikiko indusketen arduradunak.

Partida murrizta

Uztailaren 20ra arte egongo dira Arrasatenlanean, aurten bestetan baino "goibelago". "Ahal dena egitera gatoz. Aurten Kobate harrobiak emandako dirulaguntzari esker eutsiko diogu, baina horrek urtebeterako besterik ez du ematen. Gainera, berez, dirulaguntza hori da datazioak eta analitikak egiteko. Dugun susmoa da aurtengo partida oso murrizta izango dela, erdira jaitsiko dela" dio Arrizabalagak.

Aztarnategi garrantzitsua

1956an hasi zen Joxe Miel Barandiaran Lezetxikiko indusketak egiten. Bertan aurkitu zuen, 1964an, Euskal Herrian dagoen gizaki aztarnarik zaharrena, emakume baten humeroa. Hartz baten garezur osoa ere aurkitu zuten 2007an, aurkikuntza oso ezohikoa. Eta, besteak beste, Euskal Herrian bizi izan zen azken tximuaren arrasto ere topatu dute Arrasateko kobazuloan, Ameriketako Estatu Batuetako *Journal of Human Evolution* aldizkari ospetsua izan zen, gainera, aurkikuntza horren berri eman zuena.

Alvaro Arrizabalagak, Arrasateko aztarnategiaren garrantzia azpimarratu izan du beti: "3.000 urte baino luzeagoa den sekuentzia guztia islatzen digu; orain dela 150.000 urte inguruko bizi-modua".

Ekitaldiek "erantzuna izan dute eta jendetsuak izan dira"

Parte-hartzea bultzatzeko ahaleginaren balorazio positiboa egiten dute

UBANE MADERA | ARRASATE
"Barrutik ikusten dugun moduan, eta ikuspegi partzial samarra izan daitekeen arren, ekintzek, oro har, erantzuna izan dute eta jendetsuak izan dira. Oraindik batzeko dugu jaien parte-hartzea bultzatzeko partaide izan ditugun lagunen iritzi eta balorazioa. Hor atarako dira aldekoak, kontrakoak, zuzendu beharrekoak... Dena den, esango nuke emaitzak ikusita eta eragileekin izandako kontaktuetan ateratako sentsazioaren arabera, parte-hartzearen aldeko apustuak merezi duela eta bide onean gabiltzala, eta jarraitu beharreko lan ildo dela."

Hori izan da, oro har, sanjuanen balorazioa. Positiboa parte-hartzeari dagokionez; positiboa, baita ere, "lasaiak" izan direlako liskarrei dagokienez, eta azkenik, positiboa "eguraldi ona, lasaia

eta egonkorra" izan delako. Labur-tuta, beraz, "oso jai politikak" izan dira, Jon Garai Kultura teknika-riburuaren esanetan.

Ekitaldi arrakastatsu batzuk
Datuak ere eman ditu hark: 5.000 lagun ibili dira, esaterako, zezen-plazako ikuskizunetan (errekortadoreak eta bigantxak). "Jendetsuak" izan dira, baita ere, Errementari Dantza, txosnetako kontzertuak, Oihan Vegaren saioa, Bodologoien antzezpena, Pirritx eta Porrotxen ikuskizuna eta jatordu herrikoiak: "Jaia leku desberdinetara zabaltzea zen helburuetako bat. Horren baitan Jose Letona plazara zabaldu zen kan-

tu afaria; kezka bazeuden eta emaitza oso polita izan da, ez bakarrik jende kopuruarengatik (280 lagun), musikaren kalitate eta emaitzarekin ere harrিতuta geratu ziren. Eta *Zeuk in zeuk jan* bazkaria ere ildo berean sartzen da. Kasu honetan, jaia Maisu Aranora eraman da, eta 300 bat lagun elkartu zen. Erretiratu batzuen artean sortu zuen haserrea jarlekuak kendu egin zirelako. Baina kendu eta jarri egin ziren egun berean eta bazkarian elkartu zirenek fenomeno pasatu zuten".

Horiekin batera, txosnetako kontzertuak indartzeko ahalegina ere igarri dela azpimarratu du Garaik Arrasate Irratian ("emaitza majoak"); eta kontatu du, Udalak eta sanjuetako parte-hartzaileek ateratako *San Juanetan Zsu!* lelodun zapi guztiak bi egunean "desagertu, edo hobeto esanda, kalean agertu" zirela.

Ekitaldi arrakastatsu batzuk
Dena on-ona ezin izan, baina, eta susto batzuk izan direla ere kontatu du Garaik: "Sanjuan bezperako makalarena. Zezenetan ambulanziek bi traslado egin behar izan dituzte: zezen batek errekortadorea harrapatu eta kantoiko hesiaren kontra min hartu zuelako, eta kolpe baten eraginez soinburua atera zitzaion zezen-plazan parte hartzen dabilen bati. Hortaz aparte, ia-ia egunero daude kolpeak entzierrotan... baina kolpeak besterik ez dira. Bestela ez dut ezagutzen bestelako sustorik izan denik".

DATUA

5.000

LAGUN

5.000 lagunek ikusi dituzte zezen-plazako ekitaldiak.

DATUA

580

PARTAIDE

Zeuk in zeuk jan eta kantu afaria ziren berrikuntzetako bi: 580k parte hartu zuten.



Arrasateko gaiteroak entziorrarako diana jotzen, Erdiko kalean.



Zezenak eta lasterkariak ziztu bizian sartu ziren plazara, martitzenean.



Jendea barrez, "zezenketetan".



Neskatala, pozik, Umeen Egunean.



Eguzkilaruk herriko neska-mutikoak ondora erakarri zituen, martitzenean.



Rockbox fanfarre rockanrolleroak herritarrak dantzan jarri zituen Maisu Aranon.



Zeuk in zeuk jan bazkarian Azkenpote koadrila, paella goxoa prestatzeko gertu.



Jai giroa barru-barruan dute batzuek.



Eta jaietan buru-belarri ibiltzen dira beste batzuk; esaterako, txistulariak.



Dantzazaleak ere ibili dira.



Eta zela ez, Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsek Monterron bete zuten.



Danborradakoak, jai gehiagoren gose. | JOSE FELIX DIAZ DE TUESTA, SERGIO AZKARATE ETA U.I.M.



Ondarroako Aurrera taldearen kontrako partiduan, Rekarte. | X.U.

Mondra taldeak ohorezko erregionalean segituko du

Eibar B taldeak hirugarren mailan utzitako hutsuneaz baliatu da Arrasateko taldea mailari eusteko

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Aste barruan jaso du Mondrak denboraldia amaitu eta azken laugarren sailkatu zirenetik espero zuten albistea: kategoriari eutsiko diote.

Hala, Mondraren 100. urteurrena ohorezko erregionalean mailan ospatu ahal izango du talde zuri moreak. Eibarko bigarren taldeak arrazoi ekonomikoak tarteko-

ezin izan dio hirugarren mailako taldeari eutsi, eta horri esker jarraituko du Mondrak kategorian. Eibar desagertuta, Pasaia mailaz igoko da, eta leku hori beteko du Mondrak. Eibarko taldearen desagertzea baino Lemoaren desagertzea zen Arrasateko zaleek espero zuten albistea, baina bistan da klub bat baino gehiago dagoela egoera ekonomiko larrian.

Hala, Eibar B taldeak ustez egin beharko lukeen harrobi lanak nahi moduko emaitzak eman ez dituelako hartu dute erabaki gogorra.

Hori horrela, bazirudien denboraldi amaieran Muruaren, Zaitegiren eta Garinen taldeak egindako esprintak ezer gutxirako balioko zuela, baina bistan dago ezetz, balio handia izan

duela liga amaieran lortutako emaitza onak, eta Elgoibarri aurre hartu izanak.

Zailtasun ekonomikoekin

Albiste on horrek, baina, ezin dio Mondraren benetako egoerari itzal egin. Arrasateko taldeak hogei mila euro baino gehiago zor dizkio Arrasateko Udalarari -badira zor gehiago, baina txikiagoak dira. Zor hori nondik datorren? AUKEAK diru-laguntza bat ematen die Arrasateko kirol taldeei, eta aldi berean, kirol instalazioak erabiltzearen klubek dirua itzuli behar izaten diote AUKEARI. Kontua da, baina, aurreko zuzendaritzako ardura-dunak ez zituela Udalarari egin beharreko diru-laguntza-eskaerak bete, baina aldi berean, Udalak berdin jarraitu duela kirol instalazioengatik jaso beharrekoa eskatzen. Hala, hortik dator Mondrak Udalarekin duen "zulo" ekonomikoa.

Udalaren jarreraz kezkatuta

Aurreko zuzendaritza taldeak utzitako zorra konpontzeko batzorde bat osatu zen Mondra taldean, eta talde horrek hartu zuen taldearen gidaritza. Diotenez, baina, Udalaren partetik laguntza txikia jaso dute. Zuzendaritzakoen esanetan, ahalegin guztiak eginda ere ezinezko zaie epe motzean zor hori ordaintzeko adina diru-sarrerara lortzea. Eta kezu dira, inguruko futbol taldeetan gainontzeko udalek (Aretxabaleta, Aloña Mendi...) laguntza handiago ematen diotelako herriko futbol taldeari.

Lehenengo taldeak jokatu beharko lukeen kategoriaz itsutu barik, garrantzitsuagoa da harrobian parte-hartzen dabiltzan neska-mutikoen egoera zein den ikustea, honek guztiak eragin zuzena du-eta haiengan.

Mondrako neskek 25. urteurrena ospatuko dute

X.U. | ARRASATE

Futbol denboraldia amaitu bada ere, Mondrako neskek ospakizunetan jarraitzen dute. Ligan lan ona egin eta kategoriari eutsi ostean, bihar, zapatua, lagunarteko partidua jokatu dute oraingo eta lehengo jokalariek: "Ondo pasatzeko asmoz elkartuko gara, urte hauetan guztietan Arrasaten emakumeok futboleko jokatu dugu eten barik, eta asmoa da adin ezberdinetako lagunak Mojatetik berdegunean batzea, eta ondoren bazkaria egingo dugu elkarrekin", adierazi zuen joan den asteko *Harmailatik* saioan Esti Loiti arrasatearrak. "Nik, baina, ez dakit futboleko jokatu dudana, ez nuke-eta minik hartu nahiko", adierazi zuen, barrez.

10:00etan Mojatetik

Duela 25 urte Musakolako hareazko futbol zelaietan jokatzen hasi zirenak, Atxabalpetik pasa zirenak eta egun Mojatetik jokatzen dutenak batuko ditu biharko hitzorduak. 10:00etan hasiko dira jokatzen, ondoren txikiteoa egin eta garaiz bazkaltzera joateko (14:00).

Urteurrena ospatzeko modurik onena Mondrako neskek bigarren mailan jokatzea izan da, eta datorren denboraldian ere maila berean jarraitu ahal izango dute Arrasateko neskek.

Al Andalus elkarteak 22. Errozio eguna ospatuko du domekan Musakolan

Zazpi urtean behin gertatzen den moduan, Ama Birjina artzain jantziko dute

X.U. | ARRASATE

Domekako Errozio egunak izago du berezitasunik, Al Andalus elkarteak presidente Rafa Gomezek kontatu digun moduan: "Tradizioari jarraituz, zazpi urtean behin Ama Birjinak erregina izateari utzi eta artzain jantzita

ospatzen du Errozioa, eta domekan halaxe tokatzen zaio; horregatik izango da berezia aurtengo edizioa".

Hogei elkarte baino gehiago

Domekan Euskal Herri osoetik eta kanpotik datozen 20 elkarte baino gehiago hartuko dituzte Arrasaten: "Urtero geroago eta gehiago etortzen dira", eta 09:00etan zuku eta kafearekin egingo diete ongietorria. Hala, 10:00etan Ama Birjina Al Andalusko elkartetik Santa Teresako elizara eramango dute, zaldi, zaldizko eta herritarrek lagunduta. 11:30ean izango dute meza, eta handik Arruena parkerainoko bidea hartuko dute: "Seguruenik, eguneko momenturik politena izango da hori, goizeko lehenengo orduan jendea oso emozionatuta egoten da, eta, gainera, etengabe kantu egiten diote Ama Birjinari".

Errozioan parte hartuko duten lagunak Arruena parkean egongo den karpan igaroko dute eguna: "Kantuan eta dantzan egin, ardoa edan, bertako produktuak jan... Lagunartean ondo pasatze-

ko eguna da. Jendeak dantza egin dezan Udalak taula bat jarri digu Arruena, eta egun horretan ez da egitarau konkreturik egoten, jendea etengabe igotzen da dantzan egitera.

Agurra, talde batetik bestera

19:00etan, berriz, Ama Birjinak Erroziara joandako elkarte bakoitzak agurtuko du, eta denek salbe errozieroa interpretatu ostean, ostera ere Al Andalus elkarterako bidea hartuko du.

Uztailaren 14an egingo dute Zaldibarko 24 orduko txapelketa

Zaldibarren aurtengo udan ere 24 orduko areto futbol txapelketa jokatu dute. Aurtengo edizioa uztailaren 14an izango da, eta dagoeneko zabalik dago izen-emate epea. Izena emateko azken eguna hilaren 12a da, eta talde bakoitzak 60 euro ordaindu beharko ditu (637 78 74 41).


ESANAK

"Ama Birjina elizatik atera eta kantu egiten diogu; hori da momentu politena"

RAFA GOMEZ | PRESIDENTEA

Restaurante
UGARAN
Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE



943 71 17 68

344 neska-mutiko ibiliko dira 'Milakolorez blai!' udalekuetan astelehenetik

ETEO zaharreko eraikineko lehen solairuan elkartuko dira uztailaren 27ra arte, 10:00etatik 13:00etara

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Badatoz Milakolorez blai! udalekuak. Uztailaren 2tik 27ra arte, ETEO zaharreko eraikineko lehen solairuan elkartuko dira, astelehenetik egubakoitzera arte. Guztira, 4 eta 10 urte arteko 344 neska-mutikok eman dute izena, iaz baino lau gehiagok. Horiekin, eta adinaren arabera, 34 talde egingo dituzte. Kolore ezberdinekin identifikatuko dituzte: 3 eta 4 urtekoak horiarekin; 4 eta 5 urtekoak berdearekin; 5 eta 6koak laranjaarekin; 6-7koak urdinarekin; 7-8 urtekoak gorriarekin; eta nagusienak (8,9 eta 10 urtekoak) beltzarekin. Guztiek, kolore bereko biserak, banda eta bandera eroango dituzte.

Adinaren araberako ekintzak

Iaz egindako moduan, aurrenekoan, ETEO zaharreko eraikinean utzi eta jaso behar dira umeak, baina lehenengo solairuan. Hori da berrikuntza nagusia. "Iaz beheko solairuan egon ginen. Aurrenekoan, lehenengora goaz. Gela handiagoak dira, argiagoak eta gainera patioa daukagu", esan digute udalekuetako arduradunek.

Beste berrikuntzak taldeek egingo dituzten ekintzak dira. Hori eta berde kolorekoek, taldeko maskota, ipuin klasikoaren eguna eta festa hawaiiarra egingo dituzte, besteak beste. Laranja eta urdin koloreko taldeek kaxa eta ibilaldi misterioak, eskulanak eta tailerrak egingo dituzte; eta talde gorriek eta bel-



Umeak iazko udalekuetan. | GOIENA

tzek, esperimenteren tailerra, gozogintza eta birziklatze tailerrak.

Hiru egun elkarrekin

Eguneroko ekintzak adinako banatuko dituzten arren, badira hiru egun elkarrekin ospatzekoak: uztailaren 6an, txupinazoa San Lorentzoko plazatxoan; uztailaren 9an entzierro txikia eta entzierro nagusia, ETEO inguruan; eta uztailaren 27an Agur Milakolore festa. Azken horretan udalekuak agurtzeko jaia egingo dute umeek eta begiraleek.

Bi koordinatzaileekin

Udalekuetako neska-mutikoekin 34 begirale eta bi koordinatzaile egongo dira. Begiraleek hainbat formazio saio jaso dituzte, azkena ekainaren 30ean.

Udalekuen helburua "haurrei, herritarrei eta herriari alaitasuna eta bizia transmititzea" da, esan dute arduradunek. Horretarako, herria kolorez jantziko dute. "Herritarrei gure egitarauaren berri emango diegu, eta hainbat ekintzatan inplikatuko ditugu. Gure presentzia izango dute", diote.

Euskara teknikari lanposturako eskaerak uztailaren 12ra arte

Euskal Filologian diplomatura edo antzerakoa eta laugarren hizkuntza eskakizuna behar dira

M.B. | OÑATI

Euskara teknikari lanpostura aurkeztu gura dutenek uztailaren 12ra arteko epea dute. Oposizioetarako deialdia Gipuzkoako Aldizkarian kaleratu zen hilaren 11n eta Estatukoan, hilaren 22an. Orain, eskaerak aurkezteko epea zabaldu dute.

Lanpostura aurkeztu ahal izateko bete beharreko baldintzetako batzuk hauek dira: Euskal Filologian diplomatura edo antzerko titulazioa, eta euskara mailari dagokionez, laugarren hizkuntza eskakizuna.

Udalak oposizio sistema bidez beteko du lanpostua. Azterketak lau ariketa izango ditu: teorikoak eta praktikoak.

Gainera, hautagai bakoitzaren formazioa eta lan-esperientzia baloratuko dituzte.

Bete beharreko lanak

Euskara teknikari lanpostua lortzen duenak iaz erretiroa hartu zuen langilea ordezkatu du. Zerbitzuarekin zerikusia duten lanak egiteaz gain –zerbitzuaren jarraipena eta politikariekin bilerak–, beste hainbat ere egin beharko ditu: euskara eta hezkuntza batzordean parte hartu, euskara alorreko gaiak tramitatu, testu administratiboak, teknikoak eta juridikoak itzuli eta osoko bilkuretan euskaraz ez dakiten zinegotzietan itzulpen lanak egitea.

Lekua dago udako kirol kanpainako hurrengo txandetan

Udako kirol kanpainako bigarren (uztailaren 9tik 20ra), hirugarren (abuztuaren 1etik 14ra) eta laugarren (abuztuaren 21etik 31ra) txandetan lekua dago oraindik. Bigarren txandan lekua dago mendiko bizikletan, minitensean, tenisean, badmintonean, squashean, patinajea, jolasetan, pilotan, erraketa kirolan eta eskaladan. Interesatuak kiroldegiko bulegoan eman behar dute izena uztailaren 3a baino lehen.

Abuztuaren kirol eskaintza txikiagoa da: uretakoak eta erraketarekin egitekoak.

Espeleoabentura irteera, Arrikrutzeko eszentrika ikustera

Ohiko bisitaz gain, espeleoabentura irteerak egiten dituzte Arrikrutzen. Hurrengo bihar, hilak 30, egingo dute. Hiru orduko bisita da, eta, ohiko pasarelatik irtenda, Arrikrutzeko galeria aktiboa ezagutzeko aukera izango dute parte-hartzaileek. Besteak beste, Marcel Loubensen gelako eszentrika ikusgarria.

Interesatuak alde aurretik eman behar dute izena 943 08 20 00 telefonoan edo www.oinati.eu/turismo atarian. Udan beste hiru irteera egingo dituzte: uztailaren 21ean, abuztuaren 18an eta irailaren 15ean.

Luis Maiztegi | CECA Filatelia taldekoa

"Omenezko seiluak garestiagoak dira, baina gutunetan erabil daitezke"

Oñatiko CECA filatelia taldeak Julian Zelaiaren omenezko seilua kaleratu berri du

T. MADINA/M. BIKUÑA | OÑATI

30 urtez parrokiako organista izandako Julian Zelaiari (1916-1970) omenaldia egin zioten etxekoek maiatzaren 19an. Haien, etxekoek, ekimenez egin du Oñatiko CECA filatelia taldeak Zelaiaren irudia duen seilua. Organoa jotzen agertzen da. Filatelia tal-

deko Luis Maiztegi eman digu prozesuaren gaineko azalpenak.

Oraingo honetan, Julian Zelaiak aukeratu duzue seilurako. Zergatik?

Zelaiaren etxekoek ekimena izan zen. Omenaldia egin behar ziotela-eta, haren omenezko seilu



Maiztegi seilurekin. | T.M.



Seiluaren irudia. | T.M.

bat egiteko proposamena egin zigten. Taldean aztertu eta baieztatu eman genuen. Irudi batekin lehen zirriborroa egin zigun Jabier Erostarbek. Etxekoek bat aukeratu, eta lehen hartu-emanak egin genituen Correosekin. Baina ez zigten onartu.

Zergatik?

Irudian, Zelaiarekin batera, egun bizirik dauden pertsonak zeudelako. Bigarren zirriborroarekin asmatu genuen: Zelaiaren organoa jotzen dago eta atzean abeslariak daude.

Zenbat kopia egin dituzue?

Zehazki, ez dakit. Kopia batzuk familiari eman dizkiogu, eta taldean sei alerekin geratu gara. Dena den, behar beste kopia egin daitezke. Sei hilabetean jatorrizko lana gordetzen dute Correosen, kopia egin ahal izateko.

Gustura geratu zarete?

Gu pozik gaude, eta herritarrei ere gustatu zaie. Oso estimatuak dira filatelia taldeak egindako lanak. Oraingo hau, eta aurreko besteak ere bai: 2007an Aita Madinaren omenez egindako biak eta 2010ean Bidaurretenaren 500. urteurrenaren eta San Franzisko Borjakoaren omenezkoak.

Oroimenezko seiluak gutunak bidaltzeko erabil daitezke? Garestiagoak dira, baina erabil daitezke. Seilu normalak 38 zentimo balio du eta Zelaiarenak, aldiz, 1,20 euro.

Musikari batetik beste batera. Julian Zelaiarena egin ondoren, Jose de Azpiatzurena duzue buruan.

Esku artean dugun proiektua da. Baina, oraingoz, zirriborroa besterik ez da.



Joan den urtean egin zuten manifestazioaren hasiera, herriko plazatik. | GOIENA

Aldarrikapena eta festa biharko Fan Hemendik! egunean

19:00etan manifestazioa egingo dute, Guardia Zibila joateko eskatzeko

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Aldarrikapena eta festa. Biak uztartuko dituzte bihar Oñatin egingo duten bigarren Fan Hemendik! egunean. Izan ere, festa giroan eskatuko dute Guardia Zibilak Euskal Herria uztea.

400 lagun bazkaltzeko

Fan Hemendik! batzordea pozik dago biharko egunak izan duen harrerarekin. "Bazkarirako 400 txartel atera ditugu eta ia guztiak saldu dira. Sekulakoa izan da. Joan den urtean 200 lagun elkar-tu ginen. Oso pozik gaude", dio Iñaki Guridik, Fan Hemendik! batzordeko kideak.

Bazkaria batzordeko kideek egingo dute, plazako frontoian, eta berdura azokan bazkalduko dute, 14:30ean. Eta frontoian egongo dira, hain zuzen, txosna eta

iluntzeko kontzertuan joko duten taldeendako agertokia.

19:00etan manifestazioa

Kontzertuen aurretik, baina, manifestazioa egingo dute. "Hitzetatik ekintzetara pasa da orain jendea. Herritar asko zegoen Guardia Zibila hemen egotearen kontra, baina isilik. Eta orain ekintzetara pasatzeko salto kualitatiboa eman du Fan Hemendik! batzordeak, horrek ekar ditzakeen ondorio guztiekin. Debagoiendar guztiak gonbidatzen ditugu bihar 19:00tan Oñatiko plazatik irtengo den manifestaziora", gehitu du Guridik.

Duela urte batzuk baino hurbilago ikusten dute egun hori Fan Hemendik! batzordeko kideek. "Egoera politikoa aldatu egin da. Alde bateko indarkeria bukatu

da, baina bestekoak jarraitzen du oraindik. Arazoa globala da. Aro berri honetan esparru asko landu behar dira, eta horietako bat izan beharko litzateke indar okupatzaileak, Guardia Zibilak kasu, Euskal Herria uztea", azaldu du Iñaki Guridik.

2010aren bukaeran sortu zen Oñatiko Fan Hemendik! batzordea. Iazko aldarrikapen egunean maleta batzuk zintzilikatu zituzten herriko hainbat puntutan, horrek duen konnotazioa azaldu guran. Eta ideia horrek adibide gehiago izango dituela aurreratu dute batzordeko kideek. Maleten ideia azalera ekarri zuen *La Razón* egunkariak. "Oñatiko Udalaren kontrako kanpaina egiteko erabili zuten hori, baina Udalarengandik desmarkatuta gaude, gurea aldarrikapen zehatza da".

Bizikleta ibilaldia antolatu dute Txirrinkak eta Kalapieak, bihartik uztailaren 8ra bitartean

O.E. | OÑATI

Eguraldi ona hurbiltzen ari dela eta, zakutoak txirringuetan ipini eta lagunartean paisaia ederretan ibiltzeko gogoz daude Kalapie eta Oñatiko Txirrinka bizikletazaleen elkarteak. Hori dela eta, Gipuzkoan barrena ibilbide bat antolatu dute ekainaren 30etik, bihartik, uztailaren 8ra arte.

Uztailaren 3an Oñatin

Ibilbide zirkularra izango da, eta Donostian hasi eta bukatuko da, baina Debagoienetik ere igaroko dira. Hain justu ere, uztailaren 2an Zumaiatik Arrasaterako bidea

egingo dute. Bergaratik 17:30 aldera igaroko dira eta Elorregiko biribilgunean buelta batzuk emango dituzte. Handik Arrasaterako bidea hartuko dute eta Arrasaten erdiko kaleetan barrena martxa egingo dute.

Hurrengo egunean, uztailaren 3an, Arrasatetik Oñatirainoko bidea egingo dute bizikletazaleek, eta martxa horretan parte hartzeko gonbita egin die herritarrei Txirrinka elkarteak. 18:00 inguruan helduko dira Zubillagara, eta handik herrira, Kasablankatik barrura. Txirrinka elkarteak kideek batera zein bestera joate-



Herritarrak bizikletan. | GOIENA

ko deialdia egin dute, martxarekin bat egiteko. Herrira sartuta, herriko kaleetan ibiliko dira. Kiroldegian pasako dute gaua, eta hurrengo egunean Lazkaorako bidea hartuko dute.

Erreteila berriaz gain, udaletxeko fatxada ere margotu egingo dute

60.000 euroko aurrekontua dute lanek eta hilabetean bukatzea da asmoa

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Udaletxeko teilatua, erreteila, egitea zen hasierako asmoa, baina fatxada ere margotu egingo dute. "Batez ere eraikinaren iparralde dago kaltetuta. Teilatua egiteko aldamiaoa jarrita dagoela aprobetxatuta erabaki dugu margotze lanak ere egitea, azken finean, kosturik handiena aldamiaok berak du-eta", azaldu du alkateak.

Erreteilarekin batera, baina, teilatuko hodiak ere aldatu egingo dituzte, tanta-isuri han-

dia zutelako lehengoek. Bestalde, goiko aldetik eroritako harrizko irudiaren tokian berri bat jarriko dute.

Hilabeteko lanak

Lan horiek 60.000 euroko aurrekontua dute eta hilabetean egitea espero dute. Mikel Biain alkateak adierazi duenez, ahalik eta azkarren bukatzea da Udalaren asmoa.

Duela 27 urte egin zuten azkenengoz lana udaletxeko teilatuan.



Udaletxearen hiru aldetan jarri dituzte aldamiaok. | MIREIA BIKUÑA

Herriko komertzio eta enpresetako hiri hondakinen datuak eguneratu dituzte gaurtik

Gaurtik aurrera, Mankomunitateko informatzaileak herriko industria eta komertzioetara bisitak egiten hasiko dira. Hiri hondakinen datuak eguneratu gura dituzte horrela, eta bakoitzaren beharrak zeintzuk diren jakin. Bisitak industriaz industria eta komertzioz komertzio egingo dituzte, bakoitzak hiri hondakin frakzio bakoitzeko zenbat sortzen duen ere jakiteko.

Torrauzo eta Zubillaga auzoetan San Pedro jaiak ospatu dituzte gaurtik domekara

Auzoko jaiak ospatzeko, meza eta luncha izango da auzo bietan gaur. Bihar, kalejira egingo dute baserriz baserri Torreauson eta eguerdian, auzo-txikiteoa. Zubillagan, berriz, umeendako jolasak, erromeria eta urteroko mozorro lehiaketa. Domekan, herri krosa eta auzo bazkaria dute Torreauson, eta Zubillagan, erretirauei omenaldia, zinta lasterketa eta kontzertua.

Arantzazuko ibilbidea egiten duten autobusek ordutegi berria izango dute domekatik aurrera

Uztailaren 1etik aurrera ordutegi berria izango dute Oñati eta Arantzazu lotzen dituzten autobusek. Uztailaren 1etik abuztuaren 26ra bitartean, 07:30ean aterako da lehen autobusa Oñatitik eta 19:00tan azkena Arantzazutik. Erabiltzaileen artean inkesta bat eginez, herritarren eskariz eta bidaiari kopuruak behera egin duela ikusita erabaki dute ordutegia moldatzea.

1964an jaiotako kintadara joan gura duenak uztailaren 10 aurretik eman behar du izena

1964 an jaiotakoek kintada ospatuko dute uztailaren 14an, Bikoitz jatetxean. Egun osorako plana antolatu dute: lehen hitzordua 13.00tan da, Oñati Tabernan. Bazkaltzera bakarrik doana, berriz, 14:30rako joan behar da Bikoitzera. Joatea gura duenak 30 euro aurreratu behar ditu Euskadiko Kutzako kontu korrante zenbaki honetan: 3035 0005 31 0050049002, uztailaren 10a baino lehen.

Atez ateko hondakin bilketaren gaineko bilera egingo ditu Udalak auzoetan datorren astean

Herritarrei atez atekoa aurkezteko eta bilketa sistema horren inguruan dituzten zalantzak argitzeko hainbat bilera egingo ditu Udalak, bai hirigunean, eta baita landa-auzoetan ere. Uztailaren 3an Martokoko eskolan izango da bilera, uztailaren 4an Ipintza Institutuan, uztailaren 9an Zabalotegi aretoan eta uztailaren 10ean Miguel Altunan. Bilera guztiak 19:00etan izango dira.

San Pedro eguna dela-eta meza nagusia egingo dute gaur Santa Marina elizan, 19:00etan

Oxirondoko eta Ariznoako parrokiek antolatuta meza nagusia egingo da gaur, egubakoitza, Santa Marina elizan San Pedro egunaren bueltan. Meza 19:00etan hasiko da Arrasateko parrokiako abesbatza izango da bertan. Jacques Berthierren *Missa pro Europa* eta Hilarion Eslavaren *Tu es Petrus* abestiak kantatuko dituzte. Herriko bi parrokiak kideek herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte ospakizunera.

Zarzuela giroa gaur Orfeoiaren eskutik Zabalotegin eta bihar 'Libertia' antzezlanaren herriko plazan

Orfeoiak kontzertua eskainiko du gaur, egubakoitza, Zabalotegi aretoan. Emanaldia 20:00etan hasiko da, eta zarzuela doinuak eskainiko dituzte oraingoan. Abestiak entzuteaz gain, zarzuela horien argumentua eta irudiak ikusteko aukera izango da.

Bihar, berriaz, etxeko txikienendako *Libertia* kale antzerkia egongo da herriko plazan, 20:30ean hasita. *Libertia* umorezko abentura fantastikoa da.

Mugertzako pasabideak itxaron egin beharko du

Matxiategira zeharkatzeko pasabidearen proiektua gelditu dago, oraindik

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Mugertzagaitza zeharkatzea konplikatu eta arriskutsua da, bai autoendako eta baita oinezkoendako ere. Oinezkoen zirkulazioa seguruago egiteko Udalak erreka ondoko espaloia egokitu zuen. Egokitzapen horiek egin ostean bizilagunek proposatu zuten Matxiategi kalerainoko oinezkoendako pasabidea eraikitzea, Matxiategira joateko San Lorentzoraino edo Etxehaundiko zubiraino joan beharrik ez izateko.

Uraren agentziaren zain

Mugertza eta Matxiategi kaleak batuko dituen pasabidea eraikitze proiektua idazteko eskatu zion 2011ko urrian Udalak LKS enpresari. Proiektuaren garapena, oraindik, gelditu dago. Pasabidea egingo den lekua eta pasabidearen



Mugertza eta Matxiategi elkartzeko lituzke pasabideak. | ARRITXU BARRUSO

proiektua zehazteko beharrezkoak dira hainbat azterketa hidrauliko, eta Udala Uraren Euskal Agentziaren oniritziaren zain dago.

Uraren agentziak zehaztu beharko du pasabidea egin ahal izateko 100 urte atzera egin behar den, edo 500 urte. Hau da, azken 100 urteetako uholdeak ekiditea nahikoa den, edo azken 500 urteetako datuak izan behar diren kontuan. Horixe da Udalak Uraren Euskal Agentziari galdetu diona, eta hark erantzun dio 2013ko ekai-

nean emango duela erantzuna, uholdeen kartografia berritzen dihardutelako.

Egoera ekonomikoaren arabera

Alderdi teknikoak alde batera utzita, Bergarako alkate Jesus Elortzak adierazi du egoera ekonomikoak ere zuzenean eragingo duela pasabidea egin edo ez eraikitze orduan. Dena dela, proiektua bera bukatu egingo dute uraren agentziaren erantzuna izan bezain pronto.

UDAKO BEHERAPENAK

uztailak
6-7



Bergaran denetik eta onetik....



BERGARAKO UDALA

Zainduago barrutik eta kanpotik

Udalak eta Gureak Taldeak sinatutako akordioari esker, eta Lanbidekin finantzatuta, minusbalotasuna duten lau bergarar lanean ari dira lorezaintza alorrean. Pasa den otsaila ezker, Gureak Taldeko Goroldi enpresako lorazain taldekoa, beraz, lanean ari da herriko parkeak eta lorategiak garbi mantentzen edo ibilbideak egokitzen.

OHARRAK

SAN MARTIN JAIETAKO TXOSNAREN ESPLAZAZIOARAKO LEHIAKETA

2012ko irailaren 15ean eta 16an San Martin plazan Udalak jarriko duen txosnaren esplotazioa adjudikatzeko deialdia zabalik dago. Txosna jartzeko arrazoia da San Martin plaza jaietan giroz laguntzea. Lehiaketan parte hartzeko bete beharreko baldintzen gaineko informazioa udal webgunean ikusgai.

KULTURA TALDEENDAKO DIRULAGUNTZAK ESKATZEKO EPEA ZABALIK

Uztailaren 23an bukatuko da Bergarako irabazi asmorik gabeko kultura talde eta elkarteek 2012. urtean garatuko dituzten jarduerak eta egitarauetarako dirulaguntzak eskatzeko epea. Laguntza horiek jasotzeko ezinbestekoa da baldintza jakin batzuk betetzea; horien gaineko informazioa udal webgunean dago.

Letaniarekin igoera bihar eta erromeria etzi San Martzialen

Aurten ere ehunka bergarar batuko dira San Martzialen; 150 mahai eta 1.222 aulki alokatu ditu Udalak; errespetuz jokatzea eskatu du Udalak

EDU MENDIBIL | BERGARA

Bihar, San Martzial eguna, letania erreztatzen San Martzialera igoera izango da, 07:30ean Santa Marina parrokia aterata. Gora iritsi eta gero, ohiko meza izango da ermitan eta ondoren, ohi-turari utsita, txokolatea eman-

go dute San Joxepeko erretiratuek. Arratsaldean, bonba japoniarrak egongo dira, 19:00etan, San Martin plazan, eta gero, buruhandi eta erraldoien kalejira. Horren ondoren, 20:30ean, Hortzmuga taldeak *Libertia* kale antzezlana egingo du, San Martin plazan.

Erromeria domekan

Domekako erromerian ez da aparteko berrikuntzarik izango, eta, beraz, ohiko ekitaldiak egongo dira. Alborada 09:30ean izango da, Lizarrako dultzaineroekin, Zumarragako trikilariekin, Bergarako Udal Txistulari Ban-



Erromeria domekan izango da. | GOIENA

darekin eta Incansables txarangarekin. Guardiarekin igoera, berriz, 10:00etan. 150 mahai eta 1.222 aulki alokatu ditu Udalak

domekarako, eta aurten ere ehunka bergarar batuko dira San Martzialen.

Errespetuz jokatu

Mahaiak eta aulkiak jartzeko parkeko hainbat puntu hondatuta agertu dira azken boladan. Udalak jakinarazi duenez, inor inguru horiek hondatzen atzeman ez gero, neurriak hartuko dituzte. Herritar guztiak inguru horietan gozatzeko aukera izan dezaten, begirunez jokatzeari ezinbesteko deritzo Udalak. Inguru horiek "parke" moduan katalogatuta daudela gogorarazi du Udalak, eta "bertako arauak errespetatu" egin behar direla.



SAN JOXEPE

San Joxepeko abesbatzakoaren irteera

San Joxepeko abesbatzakoek irteera egin zuten eguenean Errioxara, urteko lana ospatzeko. Egun-pasa joan ziren 50 bat lagun: Bastidan hamarretakoa eta bazkaria Guardian egin zuten, umore onean. Kantari beterranoek fin-fin jarraitzen dute eta martitzenean emanaldia egin zuten Mizpirualden.



HII

Karrantzara eta Krakoviara txangoak

Ikasturtea agurtzeko, Helduen Heziketa Iraunkorrek (EPA) ikastetxeko talde bat Karrantzan, Pozalaguako kobazuloak ikusten eta La Encartadako txapelen museo (goiko argazkian) ikustera joan zen. Beste taldetxo batek, berriz, Poloniara, Krakoviaraino joan eta, besteak beste, Auschwitz bisitatu zuen.

Beherapenak hasi dira!

Mirari

JANTZI-DENDA

Martoko 34 Bergara 943 76 23 93

Neurriak 38tik 60ra

Eskoriatza, sanpedroetan

Koadrilen artean Eskoitzako II. Banderia jokoan bihar, 19:45ean

EDU MENDIBIL | ESKORIATZA

Gaur, San Pedro eguna, jaietako egun nagusia dute Eskoriatzan. Atzo ekin zieten eskoriatzarrek herriko jaietako giroa berotzen joango da aste bukaeran. Neska-mutikoak izan ziren jaietako hasiera ematen atzo, margo lehiaketarekin, eta, bitartean, azken

ukituekin ziharduten Udaleko langileek eta herriko elkarteek. Santa Mariñan jarritako txosnak, nobedade gisa, karpa izango du aurten. Bestalde, herriko gazte koadrilek Eskoitzako II. Banderia jokoan izango dute bihar, zapatua, iluntzean. Zenbait jokotan abilezia eta indarra erakutsi beharko

dute gazteek: zaku lasterketa, pilota saltokariak eta beste.

Bolatokia jaietan

Umeendako ere aukera piloa izango da jaietan, eta, tartean, barrakak gaztetxoek zain daude. Bestalde, 27 urteren ostean bolatokia izango da jaietan.



1. Atzoko margo lehiaketan parte hartu zuten neska-mutikoak, sari banaketaren ostean.

Jaien amaierako egitaraua

BARIKUA
SAN PEDRO EGUNA

29

10:00 Eskoriatzako TXISTULARI taldearen KALEJIRA.

11:40 Elizbira.

12:00 MEZA NAGUSIA, San Pedro elizan, parrokiako ABESBATZAREN parte-hartzearekin.

12:30 Poxpolo eta Mokolo PAILAZOAK, Gorosarri plazan.

13:15 Musika Eskolako BANDAREN KONTZERTUA, Herriko Plazan.

17:00 Bat irabazteko LEHIAKETA Herriko Plazan.

18:30 Pilota partiduak pilotalekuan.

19:00 Neskakabaret KALE IKUSKIZUNA, Herriko Plazan.

20:00 DANTZALDIA Alaiki taldearekin, Herriko Plazan.

23:00 Herriaren taupada ikuskizuna, Herriko Plazan.

24:00 DANTZALDIA Alaikirekin.

ZAPATUA

30

10:00 Herriko TXISTULARI taldearekin KALEJIRA.

12:00 Kartoizko zezenekin entzierra txikia estankotik Santa Mariñera. Gero, errekortadore eskola ibiltaria, Santa Mariñe plazan.

12:00 Hildakoei aldeko MEZA.

13:00 *Tolin el mariachi*, plazan.

15:30 21. Mus Txapelketa, Gernika plazan.

18:30 Haurren DANBORRADA.

19:45 Koadrilen arteko JOKOAK. Eskoitzako II. Banderia.

24:00 Triki Trake taldearekin DANTZALDIA, Herriko Plazan.

DOMEKA
EUSKAL JAIA

1

11:00 Txistularien KALEJIRA.

12:30 TALOGILEAK eta SAGARDO KUPELAK, Herriko Plazan.

13:00 Musika Eskolako DANTZA TALDEA, Herriko Plazan.

13:30 Trikitilari eskolako ikasleekin KALEJIRA.

14:30 HERRI BAZKARIA.

17:30 APAR FESTA.

19:00 VI. Sanpedruetako KANTU TXAPELKETA, Herriko Plazan.

21:00 Ingoaldegu taldearekin dantzaldia Herriko Plazan.

24:00 Jaiak amaitzeko BANDERA JAITSIERA eta TRUMONADA.



3. Felix Lasagabaster, Izaro Iñurategi eta Ane Erañaren marrazkiak saritu zituzten.



6. Barrakak, gaztetxoek eta helduen zain, Luis Ezeiza ikastetxean.

zenbaki
aholkulariak-abokatuak



• Juridikoa:

- Zibila: banantzeak, herentziak, edozein motatako erreklamazioak.
- Penala: hutsegite epaiketak, salaketak, zirkulazio istripuak.
- Administratiboa: zigortzaile txostenak, errekurtsioak.
- Merkataritzakoa: sozietateen eratzeak, ordaingabeak, hartzekodun konkurtsoa.

• **Laborala:** erretiroak, kaleratzeak, enplegu-erregulazioko espedienteak.

• **Fiskala:** enpresen balorazioak, bideragarritasun-txostenak, likidazioen elaborazioak.

• **Kontabilitatea:** pertsona fisiko eta juridikoak.

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABAETA • Tel.: 943 71 21 12
www.zenbaki.es

LENIZ
ESKORIATZA



KONPONKETAK:

Txapa

Margoa

Mekanika



2. Santa Mariñen jarritako txosnak karpa ere izango du aurten.



Amuska elkartearen eskutik, eskulan erakusketa kultura etxean, domekara arte.

5. Kintoek jarritako makala, plazan.



7. Txurkirruski koadrilako neskatilak, jaietako kamisetarekin, sanpedroetan gozatzeko gertu. | ARGAZKIAK: EDU MENDIBIL



UDALA

Pilar Pagaldairen balkoia sarituta

Pilar Pagaldai Garro izan da Leiho eta Balkoietako Loreen Lehiaketako irabazlea aurten. Hidalga kalean 13. eskapean bizi da Pilar Pagaldai. Epaimahaikideek baloratu dute armonia handiko balkoia dela, koloretan egoki konbinatua, itxitura zaindua eta orekatua. Bertako produktuez osatutako saskia jaso zuen Pilarrek atzo, sari gisa.

NIRE USTEZ

MARIJO PAGALDAI



Guztiondako ongizatea

Nahi eta ahal dutenentzat, euren kontzientzia eta borondatearen arabera: izan gaitezen munduan ikusi nahi dugun aldaketa.

Iraganeko ohiturek preso gauzkate, zailtasunak jartzen dizkigute gauza berriak egiteko, nahiz eta sarritan hitz egiten eta pentsatzen dugun horretaz. Hori argi ikusteko edo onartzeko adorea behar da, horretan saiatzea. Zenbat bider ikusten dugu besteengan geure buruarengan onartu nahi ez duguna?

Esnatu gaitezen, mesedez! Geure giza-kontzientziak ia oihuka eskatzen digu. Erabili dezagun "indignazioa" edo

haserre horrek ematen digun indarra geure ohiturak aldatzen hasteko. Jarri dezagun kontzientzia, argitasuna egiten dugun horretan, baita geure ekonomian, diruan ere.

Zer egiten dugu gure diruaz? Non erabiltzen dugu? Zer eta non erosten dugu? Non inbertitzen dugu? Zein interesekin erabiltzen dute gure diru hori? Gure ekintza txikiak, guztiak batuta, eragin handia dute.

Salerosteko, inbertitzeko eta aberastasun sana sortzeko beste modu batzuk existitzen dira dagoeneko. Bilatu ditza-gun, ikertu dezagun. Hemen doaz horietako batzuk: "Bidezko Merkataritza", "Banku Etikoa", "Economía del bien común". "Izan zaitez zu munduan ikusi nahi duzun aldaketa".

"Zer egiten dugu gure diruaz? Non erabiltzen dugu?"

PREZIO PAREGABEAK

AUKERA APROBETXATU !!

943 10 95 95

www.sukia.com

sukia
Zure etxean zaude.

Ondo pasau San Pedroak!



ESKORIATZA - Elorreta Auzoa (Erdigunetik oso gertu)

AGURRA

RAMON AJURIA
Aramaioko alkatea



Ondo pasa jaietan!

William Shakespearek zioen bezala, "urte osoa jai balitz, dibertitzea aspergarriagoa izango litzateke lan egitea baino". Gurean, urtean behin ospatzen ditugu herriko jaiak eta horregatik *pilak kargatuta* izan behar ditugu eta *motorrak berotuta*, ezin hobeto pasatzeko, guztiok elkarrekin. Zuzi, aramaiorroi, jaietarako espiritu horrekin kutsatu nahi zaituztet! Positiboki pentsatzeko, alai jokatzeko eta egun hauetan umore ona nagusi izateko. Guztiok, egunerokotasunaz ahaztu eta herriko jaiak eskaintzen diguten aukera aprobetxa dezagun. Jai batzordeak egitarau aberatsa prestatu du, ekintza ugariz beteta, gazte zein heldu, denon gustukoa izan dadin pentsatuta. Jai hauetan, Udaleko beste jardueretan bezala, parte-hartzea bultzatu nahi dugu, aramaiorrok gure arteko loturak sendotu ditzagun. Ibarra izango da egun hauetan guztion elkargunea, bertan bilduko gara auzotarrak zein kaletarrak. Badakigu, gure etxeetan familiarteko batzuk falta direla, arrazoi desberdinengatik ezin dutenak gurekin egon jai egun hauetan. Horiek gure oroitzapenean egongo dira! Ondo pasa jaietan! Gora, Aramaio!

Jaietako egitaraua

EGUBAKOITZA

29

17:00 Briska TXAPELKETA.

19:00 Txupinazoa eta PREGOIA.

19:05 Trikitixa eskolakoekin, Gazte Asanbladakoekin eta txistulariekin KALEJIRA.

19:30 Umeendako TAILERRAK plazan.

20:00 TXOSNEN irekiera.

22:00 ERROMERIA plazan.

23:30 KONTZERTUAK txosnetan:

▶ Willis Drummond.

▶ Lisabö.

▶ Itziarren Semeak.

ZAPATUA

30

12:00 Umeendako HERRI KIROLAK plazan.

12:30 Patata-tortilla TXAPELKETA. Patatak, gatza, olio eta arrautzak antolakuntzak jarriko ditu.

12:30 Indarra TXARANGA herriko kaleetan zehar.

17:00 Plater tiro TXAPELKETA.

17:00 Mus TXAPELKETA.

17:00 Txirritolinpiadetan IZENA EMATEA

17:30 TXIRRITOLINPIADAK Txirritola elkarteak antolatuta.

19:30 Kale ANIMAZIOA

23:00 Rock KONTZERTUAK plazan:

▶ El Exterminio de la Raza del Mono.

▶ Arkada Social.

▶ La Banda del Abuelo.

23:30 ERROMERIA Txosnetan Obaneuke taldearekin.

DOMEKA

1

11:00 DIANA herriko txistulariekin.

12:00 MEZA Bizente Goikoetxea abesbatzarekin.

13:00 Lagun Artea dantza taldearen eskutik herriko dantzarien EMANALDIA.

17:00 JOLAS PARKEA eskola ondoko parkean.

18:00 Iparraldeko HERRI KIROLAK plazan.

20:00 Haize Dulantzi taldearen EMANALDIA plazan.

22:30 Aramaio Zero Zabor proiektuaren AURKEZPENA elizako eskaileretan.

ASTELEHENA

2

11:00 Umeendako JOLASAK.

13:00 Hipo eta Tomaxen EMANALDIA plazan.

16:00 Koadrilen arteko PIKEA.

19:00 Arrasate Musikalen EMANALDIA kultura etxean.

21:30 HERRI AFARIA plazan. Afalostean Musta batukada.

01:00 DJ Mikel eta ondoren URREZKO GIBELAREN sari banaketa parrandazale onenari.



Irungo Lisabö taldea, promoziorako argazki baten. | GOIENA

Goi mailako kontzertuak egongo dira aurten ere

Lisabö, Willis Drummond eta Itziarren Semeak gaur txosnetan; bihar, punk-rocka nagusi plazan

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Aurten ere goi mailako zuzeneko musika izango dugu San Martin jaietan. Iaz Zea Maysek goraino bete zuen txosnagunea eta aurten ere halako zerbait gertatzea espero du jai batzordeak. Eskaintzak ematen du hori pentsatzeko motiborik: gaur, Azkena Rock jaialdian jo berri duten Irungo Lisabö eta Baionako Willis Drummond taldeak igoko dira agertokira. Rock taldeak biak, baina oso bestelakoak izango diren emanaldiak eskainiko dituztenak. Gainera, kantu berriekin etorriko dira: Lisabök iaz atera zuen *Animalia Lotsatuen Putzua* izeneko disko berria eta Willis Drummond-ek ere iaz atera zuen azken lana, *Istanteak*.

Horiez gain, azkenaldian jairik jai dabiltzan Itziarren Semeak taldeak ere joko du: rock doinuak

baita ere, haize-instrumentuz lagunduta. Kontzertuak 23:30ean hasiko dira, eta, beraz, gaua ondo sartu arte ez dira amaituko.

Zapatuan, inguruko taldeak

Zapatuan, bestalde, Aramaioko eta Arrasateko taldeek girotuko dute herriko plaza (23:00). Punk-rock doinuak izango dira nagusi, nor bere ukituekin.

El Exterminio de la Raza del Mono hirukote aramaiorrek Eskorbuto talde mitikoa ekarriko digu gogora. Eurekin batera, Arrasateko punk-oi! musikaren erreferenteetako bat den Arkada Social taldeak ere joko du, eta baita horrenbeste jarraitzaile akaso ez baina inor oharkabean uzten ez duten La Banda del Abuelo taldea ere, Australiako aborigenek jotzen zuten didjeridu eta guzti.

SAN MARTIN JAIK
2012 ARAMAIO


"Aramaioko Udalbatzak Jai zoriontsuak opa dizkizue aramaioar guztioi, eta bereziki etxetik kanpo zaudeteno!"



Bizente Goikoetxea plaza 1 • ARAMAIO
Tel.: 945 44 50 16
E-posta: udala@aramaio.org



ERASO SEXISTARIK
EZ!
TRATU ONA, DENENTZAT ONA



Herriko denden arduradunek emango diete hasiera jaiiei

J.B. | ARAMAIO

Jaiiei hasiera ematearen arduradunak herriko dendetan hainbat eta hainbat urtez lanean aritu diren eta erretiratu diren emakumeak izango dira: "Bizitza osoa dendak aurrera ateratzeko egindako ezkutuko lana goraiatu gura dugu", adierazi du Udalak. Emakumeak dira guztiak eta etxeko lanak komertzioarekin uztartu izana goraiatzeko dela uste du jai batzordeak. Pregoia irakurri eta suzuria botako dute gaur udaletxeko balkoitik, 19:00etan.

Era berean, *Mugitu, ziztatu eta gozatu!* aurtengo jaietako leloa eramango duten zapiak salgai egongo dira herriko tabernetan, hiru euroren truke; baita asteleheneko herri afarirako txartelak ere -helduek 15 euro eta haurrek 10 euro.

'Herrira'-k egitarau berezia
Bestalde, *Herrira*-k egitarau berezia antolatu du. Gaur, 20:00etan, emango diete hasiera jaiiei, txosnen irekierarekin. Luis Mari Azkargorta *Kanto* preso aramaioarraren aldeko aldarrikapena "ozen" entzungo da, eta 2009ko Korrikaren edizioan euskal presoen argazkiak eramateagatik terrorismoa goratzea egotzi dioten Aramaioko herritar bati urtebeteko espetxealdia ezarri izana salatuko dute, besteak beste.

Jone Arriolabengoa | Jai batzordeko kidea

"Herritik eta herriarentzat behar dira jaiak, ikuspuntu ezberdinekin"

- Ondo funtzionatzen duten ekintzak mantentzearen alde egin dute aurten
- Sona handiko taldeak direnez, kontzertuek jendea erakartzea espero dute

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Aurten ere jai batzordeak "ilusioz" ekin dio egitaraua prestatzeko lanari, hainbat pertsona eta talderen "ezinbesteko" laguntzarekin. Jai batzordearen helburuak eta egitarauaren nondik norakoak Gazte asanbladako Jone Arriolabengoa (Aramaio, 1988) azaldu dizkigu.

Lehen urtea al da jai batzordean zaudena?

Bai, nirea lehenengo urtea da. Hala ere, Gazte asanbladaren ordezkariak, sorreratik egon da jaietan gutxi gora behera. Azken urteetan, jai batzordearen sorrerarekin, Gazte asanbladako ordezkariak urtero izan dira jaietan antolaketan. Aurten ere Udalak jai batzordean parte hartzeko dei egin zigun herriko talde ezberdinei eta oraingoan niri egokitu zait Gazte asanbladaren izenean parte hartzea.

Nolako parte-hartzea izan du aurten batzordeak?

Parte-hartze polita izan du. Hasi-ran 15 bat lagun elkartu ginen, herriko elkarte ezberdineko jendea gehienbat: Txirritola, Trikitixa eskola, Gazte asanblada, Pilota elkarte, Lagun Artea dantza taldea, Papar gorri abesbatza, Alaiak erretiratu elkarte, Oilogor ehiza eta arrantza elkarte... Horrez gain, norbanako moduan aurkeztutako jendea eta Udaleko ordezkariak ere izan dira bilere-tan. Bost bat bilera egin ditugu.



Jai batzordea osatu duten kideetako batzuk udaletxean. | JONE ARRIOLABENGOA

"Goza dezatela, nork bere erara, etxean falta direnak ahaztu gabe"

Zein da batzordearen helburua?

Jai batzordearen helburu nagusia herritarren parte-hartzea bultzatzea da. Jaietan denok ondo pasatzea da helburua, eta horretarako oso garrantzitsua da herritar ezberdinen iritziak jasotzea. Ikus-

puntu ezberdinak eta ideia ezberdinak jasotzen dira, eta nire ustez oso aberasgarria da hori. Jai parte-hartzaileak bultzatu izan ditu Gazte asanbladak bere sorreratik, eta gauzak askotxo aldatu dira ordutik. Jaiak herritik eta herriarentzat behar dira, eta hori lortzeko modu bakarra da herritar ezberdinen parte-hartzea, ikuspuntu ezberdinekin osatuz. **Goazen egitaraua. Zeintzuk dira aurtengo nobedade nagusiak?** Ez dago nobedade handirik. Badaude zenbait ekintza urtero oso ondo funtzionatzen dutenak, eta

jendeak oso gustura hartzen dituenak: Txirritolinpiadak, koadrilen arteko pikea, herri kirolak, umeendako jolasak, herri afaria... Horiek mantentzearen alde egin dugu.

Bestalde, aipatu nahiko nuke aurtengo pregoilariak Aramaio-ko komertzioetako ardura urte luzez eraman duten emakumeak izango direla. Izan ere, Aramaio-ko saltoki gehien arduradunak emakumeak izan dira azken hamarkadetan, eta urte horietan egindako esfortzua goraiatzeko da. Dendak aurrera ateratzea etxeko lanekin uztartuz; lan ikaragarria egin dute. Horren hari-ra, aipatzekoa da Udaleko Berdintasun sailak, jai batzordearekin eta Itur-Zuri emakume elkartearekin batera jaietarako egin duten eraso sexisten aurkako kanpaina. Aurten lehenengo aldiz, jaietan programan eraso sexisten aurkako jarrera irmoa erakutsi da, eta hala egingo dugu bai jaiak iraun artean zein egunerokotasunean, erasook gizar-tetik ezabatu arte; kalea eta gauak emakumeonak ere badirelako. **Kontzertuei dagokienez, iaz Zea Maysek txosnak bete zituen. Aurten zein kontzertu antolatu duzue?**

Aurten ere antzera gertatzea espero dugu. Willis Drummond eta Lisabö Azkena Rock jaialdian egon ziren duela bi aste, eta badi-tuzte jarraitzaileak inguruan. Eta ostean Itziarren Semeak taldeak giro ona jartzea espero dugu. Bestetik, zapatuko kontzertuek ere oso itxura ona dute, eta herri-ko eta zein inguruko jendea ere erakarriko dutelakoan gaude.

Herritarrei dei bereziren bat?

Jaietan ondo pasatzea, besterik ez! Goza dezatela, norberak bere erara, etxean falta ditugunak ahaztu gabe. Eta zelan ez, datoren urtean jai batzordean parte hartzera animatzen ditut aramaioar guztiak.



BEHI-ALDE
ERKOP

BEHI-ALDE, koop. e.
Olaeta-Aramaio (Araba)
Zuzenbide postala
44 POSTA KUTXA
20500 ARRASATE



Tel.: 945 45 01 00
945 45 03 15
Faxa: 945 45 01 00
945 45 03 15

EKI TABERNA

Razioak, ogitartekoak, hanburgesak eta entsaladak ostiral eta larunbat gauean

•
Aurretik enkargatuz gero **bazkari eta afariak.**

ondo pasatu jaixek!

Pedro Inazio Barrutia 9 • ARAMAIO
Tel.: 945 44 59 88

dukiena
J A T E T X E A

ONDO PASATU JAIXETAN!

Azkoaga auzoa. Tel.: 945 44 50 86
ARAMAIO



Ibarran hobekuntzak egin eta aterpetxea konpondu gura du UDAk

Leixargarateko aterpetxearen gastua 12.000 eurokoa da; uztail edo irailean egingo dira lanak

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Uztailaren 6an, egubakoitza, egingo du Aretxabaleta Kirol Elkartek batzar orokorra bazkideekin (Arkupe, 18:00); 2011-2012 denboraldiaren balorazioa egingo dute eta 2012-2013 denboraldia aurkeztu. Kontu horiek aurreratu ditu Juan Mari Enekotegi presidentek astean.

Bi datu azpimarratu gura izan zituen Enekotegik: batetik, elkar-tearen bazkide kopurua, 900en bueltan, herritar eta erakundeak –merkatari, enpresa...– kontuan hartuta; eta bestetik, kirol jardunean dabilzan neska-mutikoak, 420 inguru. "Kopuru benetan esanguratsuak biak". Eta gaineratu zuen Aretxabaletako kirol federatu guztia bateratu gura dutela. Horrez gain, beste erakunde batzuekin kolaboratzen jarraitzeko asmoa azaldu zuen: Realarekin; Arizmendirekin... "Kirol egin ezinda ez dadila geratu neska-mutikorik gure herrian".

Ibarrako hobekuntzak

Datorren denboraldiari begira hainbat hobekuntza egiten hasi gura dute Ibarran, eta Udalarekin hartu-emanen dabilta: "Jakitun gara egoera ekonomikoa ez dela batere ona, baina hobekuntza horiek agendan sartu gura ditugu orain ezin bada geroago heltzeko", argitu zuen presidentek. Hobekuntza horien artean daude: hotzari aurre egiteko harmaila inguruak itxi; gimnasioa eta osatze eta berotze gela izango dena egokitu aldagelen alboan; Ederlan inguruko aparkalekutik ate bat zabaldu futbol zelaira; jokalarien aulkiak



Igor Arenaza, futbol koordinatzailea, eta Juan Mari Enekotegi, kirol elkarteko presidentea. | M.A.

lekuz aldatu; eta zelaiaren mantentze lanak hobetu. "Udalak ez die aterik itxi eskaerei eta poliki-poliki helduko diete".

Lehenbailehen egingo dituzten lanak Leixargarateko aterpetxe-koak dira: "Teilatua du konpon-tze premiari handiena, eta uztailan edo irailean hasiko ditugu". 12.000 euro inguruko aurrekontua dute konponketa horiek, eta urteko aurrekontuan gainkarga izan arren UDAk beregain hartuko du Murruxio mendizale elkartearekin batera: "Igeltseroek, gainera, eskulana jarriko dute".

Denboraldiarekin gustura ez

Kirol arloko emaitzei dagokienez joandako denboraldia ez dela "oso positiboa izan" esan zuen. "Batez ere preferenteko futbol taldea mailaz jatsi delako. Oherko erregionaleko taldeak ez du lortu esperetokoa, baina gustura gaude". Hala ere, Juanan Cruz entrenatzaileak ez du jarraituko UDAn. "Aldaketa gura genuen, beste kontu batzuen artean jokalariek ere arrisku handiagoa har dezaten". Hala, Alberto Albistegi Realeko jokalaririk ohiak zuzenduko du oherko erregionaleko taldea eta

Gorka Valle aretxabaletarrak egingo dio lagun. Eskua proiektuarekin jarraitzeko asmoa azaldu zuen gainera, baina metodologia aldatuta, aurten ezin izan dutelako ailegatu gura zen guztira: "Entrenatzaileak formatuta gero jokalarientzako eragingo dute", argitu zuen Igor Arenaza futboleko koordinatzaileak.

Areto futboleko taldearekin pozik daude Gipuzkoako lehenengo mailara igotzea lortu duelako, eta gainerako kirolen jardunarekin ere bai –karatea, pilota eta gimnasia erritmikoa–.

Aurrekontua: 200.000 euro

200.000 euroren bueltan ibiliko da UDAn aurrekontua: "Ez dago egoera txarrean, baina diru iturri berriak behar ditugu" argitu zuen. Hala ere, ez dute igoko kuotarrik, ezta beste inolako tarifarik ere datorren denboraldian. Gainera, kiroldegia zabaldukoan beste kirol batzuk egiteko eskaerak egon daitezkeela uste du –saskibaloia, eskubaloia...– eta horiei heltzeko estatutuetan aldaketak egingo dituzte.

Bestalde, kirol elkartearen gaineko erakusketa antolatzen dabilzala azaro ingururako jakinarazi zuen; eta Mikel Aranburu Realeko jokalaririk ohiari omenalditxoak egiteko asmoa dutela.

Adrian Merino federazioan

Aretxabaleta kirol elkarteko lehendakariorde Adrian Merino gazte aretxabaletarra Gipuzkoako Futbol Federazioan izango da datorren denboraldian. "Garrantzitsua da gure batzordeko kide bat hantze", dio presidentek.



Adrian Merino. | UDA

Udalak egoera ekonomiko "zailari" egingo dio aurre

Mailegua eskatu dio Aldundiari, aurrekontuan murrizketak egin eta hainbat higiezin salduko ditu

M.A. | ARETXABALETA

Eguenean, hilak 21, egindako ezohiko osoko bilkuran jakinarazi zuen alkateak zorrak dituela Udalak eta horiek ordaintzeko mailegua eskatuko diola Aldundiari. Hain zuzen, mailegu hori eskatzea onartu zuten osoko bilkuran, 228.800 eurokoa.

EAJko zinegotzi Mari Carmen Astigarragak osoko bilkura bertan behera uzteko eskatu zuen, "Ogasun batzordearen aurre diktamenik gabe ezin delako burutu eta ondorioz, baliorik gabekoa delako".

EAJko kideen esanetan "Ogasun batzordea ospatu zen hilaren 18an, astelehena, eta ez ziren bertaratu ez batzordearen lehendakari Ana Bolinaga alkatea, ezta Bilduren gobernu taldeko beste kiderik ere, eta ezin izan zen ontzat eman ospakizuna. Beraz, ez da egia onarpena egon zenik osoko bilkuran". Eta gaineratu dute: "Egoera hau eragin duten arrazoiak argitzea eta gure baliabideak erantzukizunarekin kudeatuko direla ziurtatzeko aurrekontuak berraztertzea eskatzen dugu".

182.000 euroko murrizketak

Ana Bolinaga alkateak, Juan Antonio Martinez de Agirre Udal kontu-hartzailearekin batera, mailegua eskatzearen arrazoiak argitu gura izan zituen joan den astelehenean: "Udalak egoera ekonomiko zaila bizi du une honetan, batez ere kiroldegia erakuntza lanetan izan diren gainkargenatik. Azken lan horiek ordaintzeko dirua behar dugu eta horregatik egin dugu 2012-2015eko plan ekonomiko finantzarioa eta mailegua eskatu".

Eta diru zuloa estaltzeko hartutako neurrien berri eman zuten: Aldundiari mailegua eskatu: 228.800 euro; Zainduz gimnasioa, etxebizitza bat eta garaje bat saldu: 600.000 euro; eta 2012ko aurrekontuan murrizketak egin: 182.350 euro. "Murrizketok ez dira gustukoak izan, batez ere Gizarte

Zerbitzuetan egindakoak, baina bai derrigorrez egin beharrekoak", argitu zuen alkateak eta murrizketarik handienak izan dituzten partidak aipatu: hirugarren munduko herrialdeetara bideratutako laguntzak, 30.000 euro; autoenplegua, 45.000 euro; Urkuluko Plana, 20.000 euro; urbanizatze lan ezberdinak, 15.000 euro; eta proiektuak, 10.000 euro.

ESANAK

"Aurrekontuan murrizketak egin behar izan ditugu"

ANA BOLINAGA | ALKATEA

Alkatea minduta EAJkoekin

Era berean, minduta agertu zen alkatea EAJko kideek esandakoengatik: "Ogasun batzordea ekainaren 14an elkartu zen, eta ez 18an; nik ezin izan nuen egon senide baten heriotzagatik eta hori bazekiten EAJkoekin. Aldundiari 15ean bidali genion mailegu eskaera; haren oniritzia 19an jaso genuen; eta osoko bilkura egin 21ean, eskaera epea 22an bukatzen zelako. Eta legalki ez dago arazorik lehenengo osoko bilkura egin eta hura gero Ogasun batzordean berresteko. EAJ, ostera, gertu zegoen bertan behera uzteko bilkura eta horrekin batera Udalaren plan ekonomiko finantzarioa". Udal kontu-hartzaileak egindako lana eskertu zuen, eta EAJren salaketak "hauteskunde estrategia barruan" egindakoak direla gaineratu zuen.



JESUS MARI HERRASTI

Portasolgo saria Antonio Priegori

Uztailaren 20tik 22ra Portasolgo jaiak antolatu ahal izateko zozketak egiten dabiltza Loramendi inguruko merkatari eta ostalariak azken asteotan, eta, orain, Antonio Priegok – 752 zenbakidun txartelaren jabea – eskuratu du saria: Kantabriako nekazari-etxe baten aste bukaera. Dagoeneko hirugarren zozketa jarri dute abian, eta, orain, 125 euroko bi sari banatuko dituzte.

Txalaparta ikastaroa egingo du Loramendik uztailaren egunen

M.A. | ARETXABALETA

Txalaparta ikastaroa antolatu du Loramendi elkarteak uztailaren 5ean hasi eta egunen guztietan egingo dute (18:00-20:00).

Izena emateko epea zabalik daukate uztailaren 2a bitartean; horretarako, elkartera bertara jo –udaletxe zaharra, 16:00-20:00–;

mezu bat bidali: *loramendielkartea@gmail.com*; edo telefonoz deitu: 943 77 09 70 eta 685 75 67 29. Elkarteko bazkideek 10 euro ordaindu beharko dituzte eta gainontzekoek, 15 euro.

Txalaparta jotzen jakin gura duen edonorendako ikastaro aproposa dela iragarri dute antolatzaileek.

Bihar, ekainak 30, bukatuko da Udaero egitasmoan izena emateko epea

M.A. | ARETXABALETA

Eskoriatzako eta Aretxabaletako gazteria zerbitzuek 12 eta 17 urte arteko gazteendako abian jarritako Udaero egitasmoan izena emateko epea bukatzeaz dago. Bihar da azken eguna, eta interesatuek bi herrietako gazteria zerbitzueta edo gaztelekuetara jo dezatela.

Hainbat irteera antolatu dituzte: eguaztenean, hilak 4, Zuhaitzeta abentura parkera; eguenean, Landara; hilaren 9an, astelehena, Zarautzera surf egitera; uztailaren 11tik 12ra, mendira gaua pasatzera; eta hilaren 16tik 18ra, kostaldeko kanpin batera. Uztailaren 20an bukaera jaia egingo dute.

Antzerkiaren aldeko apustua, hiru lan ekarrita

Eguaztenean 'Ametsetan bizi' eskainiko du Trapu Zaharrak, Herriko Plazan

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Uztailaren egitarauaren berri eman du Kultura Sailak eta udako zinema eta ikastaroekin batera antzerkia da nobedadea. "Urtean zehar ezin izan diogu tarte handirik eskaini, eta orain, udan, antzerkiaren aldeko apustua egitea pentsatu dugu", argitu dute Kultura Saileko kideek.

Hiru eguaztentean eskainiko dituzte antzezlanak, Herriko Plazan (19:00): hilaren 4an, Trapu Zaharra taldeak umorea nagusi duen *Ametsetan bizi*; hilaren 11n, Malas Companias taldeak, zirkuko jolasak eta antzerkia uztartzen dituen *Orsai*; eta hilaren 18an, Oihulari Klown-eko medikuak ibiliko dira kalean *Pronostiko erreserbatua* lanarekin.

Asisko Urmeneta eta 'Gartxot'

Arkupeko Zaratza aretoa, oster, udako zinema iritsiko da eta hiru film emango dituzte –astelehena (17:00), martitzen eta eguaztentean (21:00)–: hainbat sari jaso dituen *Intocable* frantsesa –uztailak 9, 10 eta 12–; Itzaltzuko bardoaren istorioa jasotzen duen *Gartxot* euskalduna –uztailak 16, 17 eta 19–; eta *Katmandu* espainiarra –uztailak 23, 24 eta 26–.

Uztailaren 17an, martitzena, (20:00), gainera, *Gartxot* filmaren zuzendaria, Asisko Urmeneta komikigile ezaguna, izango da gurean filmaren nondik norakoak argitzen.

Ikastaroak

Azken urteotan legez, hainbat ikastaro antolatu dituzte helduendako, uztailaren. Lehenengo astean –uztailak 2, 4 eta 5, (14:30-16:30)– emakumeek artearen historian izan duten zeresanaren gainean jardungo dute.

Trapu Zaharra taldearen *Ametsetan bizi* antzezlanean uneko une bat. | TRAPU ZAHARRA

Bigarren astean –uztailak 9, 10 eta 12, (11:00-13:00)– arte impresionistaren gaineko nondik norakoak irakatsiko ditu Miren Vadillo irakasleak, EHUan Artearen Historian lizentziatua.

Hirugarren astean –uztailak 16, 17 eta 19, (15:00-17:00)– sukaldaritzaren gaineko ikastaroa izango dute Joxemi Aierbe eskarmentudun sukaldariaren eskutik. Urte sasoi bakoitzari dagozkion produktuak ezagutu eta horiek aprobetxatzen erakutsiko du, menu samurrak eginga.

Eta gaztetxoek, 7 eta 12 urte artekoek, marrazketa eta pinturaren gaineko ikastaroa izango dute martitzenean, hilak 3, hasi eta uztailaren 19a bitartean (11:00-12:30). Edozeinetan izena emateko Arkupera jo behar da.

Nepalgo begiradak ikusgai

Erakusketa aretoan, oster, *Nepalgo begiradak* argazki erakusketa egongo da hilabete guztian. Sergio Gonzalez Lopez argazkilarik Nepalgo herritarren argazkiekin osatutako erakusketa da.

LEINTZ GATZAGA

Bi konpostagailu handi jarriko dituzte herrian

Herritarrek hondakin organikoak botako dituzte



Udal ordezkariek eta herritar batzuk eguaztentean batzarrean. | M.A.

M.A. | LEINTZ GATZAGA

Hondakinen gaineko astea egiten dabil Gatzagako Udala, gaia oso garrantzitsua dela jakinik: "Herritarrek jakinaren gainean egon daitezten gura dugu, eta informazio askoren atzean zer dagoen azaldu", adierazi du Juan Luis Zabala zinegotziak.

Hala, zaborra gaika jasotzeko duen garrantziaz jabetuta eta ahal den guztia birziklatzeko asmoarekin Gatzagarako duten proposamenaren berri eman zieten Udala ordezkariek herritarrei, eguaztentean: konposta egin.

Konpostagailuak azarorako

Bi konpostagailu handi jarriko dituzte herrian. Bata goiko partean, Errosario kaleko aparkalekuan, 3.700 metro kubikokoa; kale horretan eta San Inazioen bizi direnendako izango da. Eta

bestea, beheko partean, argindarraren etxetxoaren alboan, 4.000-5.000 metro kubikokoa; Santiago eta Pilar kaleetan eta plaza inguruan bizi direnendako.

Konpostagailu horien gastuak mankomunitatearen eta Aldundiaren artean banatuko dituzte eta ondo bidean azarorako abian egongo dira.

Horiez gain, oportunitate guztiak egongo da ohiko edukiontzietan osatuta; larrialdi une batean zaborra bertara eramateko izango da. Dorletara bidean egongo dira horiek, errepide ertzean, orain dauden lekuaren parean.

Baserrietan ere konposta

Baserritarrek atzo ziren egotekoak udal ordezkariek, eta haiei norberak egin dezala konposta proposatu diete; horretarako, konpostagailuak banatuko dizkiete.

Merkatari, ostalari eta enpresatako ordezkariek gaur batuko dira, haiek ere konposta egiteko proposamenarekin bat egingo duten jakiteko.

**Mobiliario
ARENAZA**

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Pedro Iturbe, alkatetza ohia, iaz, gastronomiaren lehiaketan lagun koadrilarekin. | ASIER ALKORTA

Juanita Zabalo: "Parte hartzea bultzatu nahi da"

Gastronomia lehiaketako bosgarren edizioko protagonista patata-tortilla da; izena eman daiteke

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Aurtengo izen-ematea zabalik dago. Aurreko urteetako arrakasta ikusita, aurten ere gastronomia lehiaketa antolatuko dute ostiralerako, uztailaren 13rako. Aurten patata-tortilla egiteko aukera izango da.

Krisiak izan duela eragina aitortu digu Juanita Zabalo antolatzaileak: "Urtero-urtero Udalak

jartzen ditu lehiaketarako elikagaiak, eta horregatik erabaki genuen patata-tortilla egitea aurtengoan". Baina lehiaketa horri oihartzuna ematea ere badela asmoa azaldu digu: "Patata-tortilla jendeak erraz egiten duen jakia dela pentsatu genuen, eta, gastronomiaren lehiaketa honi oihartzuna eman gura diogunez, hala xe erabaki dugu egitea. Aurten,

gainera, gazteen koadrila egunaren barruan antolatu nahi dugu. Ekintza parte-hartzailea egin gura dugu, euren artean giro bikaina sortuta".

Izen-ematea martxa onean doa. "Jende dezente eman du izena. Koadrila osotik bik edo hiruk ematen dute izena. Momentuz, jendea hasi da animatzen; dena den, eguna heltzear dagoe-

la izen-emateak ugaritu egiten dira", dio.

Udalak oinarritzko janaria jarriko du lehiaketarako: "Patatak, kipulak, piper gorri eta berdeak, arrautzak, kipulak, berakatzak... baina hortik kanpo osagarriren bat bota nahi dionak etxetik ekarri beharko du. Nork bere meritua eta jakinduria erakutsi beharko du".

Sua ere Udalak jarriko du; zartagina eta ontziak etxetik parte-hartzaileek eroan beharko dituzte. "Lehiaketa baino egun pare bat lehenago, parte-hartzaileekin batuko gara oinarriak eta aholkuak emateko eta gauzak zehazteko", gaineratu digu Zabalo.

Epaimahala: herritarrak

Talde bakoitzak aukeratutako epaile bat jarriko du, antzuolarra. "Talde bakoitzak bere ustez egokiena, jakitunena dena proposatuko du. Epaile moduan kompetentea izango dena aukeratu dute. Baina gutxi gorabehera 12 edo 13 bat talde elkartzeko direnez, zozketa egiten da eta epaile lanetan ibiliko diren hiru aukeratu dira modu horretan", azaldu digu Zabalo.

Parte-hartzaileek uztailaren 13an 10:45erako aurkeztu beharko dute gaztetxe aurreko arkupeetan. 12:30erako patata-tortilla eginda izan beharko dute, bukatutzat emango dute-eta antolatzaileek. 12:45ean sari banaketa hasiko da. 13:00etan, berriz, dastaketa egingo da.

Lehiaketa izena eman nahi duenak uztailaren 6 arte, egubakoitzera arte, du aukera. Oraindik izenik eman ez dutenek telefonoz dei dezakete udaletxera, 943 76 62 46 zenbakira, eta www.antzuola.com webgunearen bitartez ere eman ahal izango dute izena.

NIRE USTEZ

PILAR ETXANIZ



Futbolaren diktadura

Azken boladan haserre ibili naiz. Futbolak inbaditu egin nau, kolonizatuta sentitu naiz. Lan handia izan dut nire une isilak, nire aisialdia, nire solasgaiak babesten.

Baloiaren diktaduran sentitu naiz: mundua inoiz baino borobilagoa, borobilak arbolak, borobilak kaleak. Hedabideek "denok gara borobilak"; politikari populistak "gora borobila"; eskoletan, borobil perfektuak egiten; etxeetako telebistak borobilak; bandera borobilak; ametsak ere borobil bilakatuta.

Futbola aktibitate ona da gorputzerako, osasun ohiturak hartzeko, hainbat balio gara-

tzeko: superazioa, kooperazioa... Baina, gauzak bere onetik atara, negozio bihurtu, norbere edo talde identitatearen ikur nagusizat hartu, kirola izateari utzi eta gudaren antza hartzen duenean ez goaz bide onetik.

Eskandalua iruditzen zait futbol profesionalean mugitzen den dirua, eskaintzen zaizkion baliabideak, kobratzen diren soldatak; azpiegiturak hobetzeko edo berritzeko erabiltzen diren diru publikoak, barkatzen zaizkien zergak.

Zein eredu ari gara erakusten? Ikusi besterik ez dago haurrak futboleko jolasten: intransigentzia, hizkuntza edo keinu iraingarriak, trebezia gutxikoen bazterketa, espazioa konpartitzeko, partidak galtzeko zailtasunak. Imitatzen ari dira.

"Baloiaren diktaduran sentitu naiz"



OIHANA ELORZA

Asto karrera arrakastatsua

Kalebarrengo jaietan asto karrerak beti izan duen arren oihartzuna, aspaldian galduta egon den ohitura izan da. Orain bi urte berreskuratu eta aurten ere sekulako arrakasta eta ikusmina sortu du antzuolarren artean. Bi minutuan eginda zuen ibilbidea Txominek, eta hura izan zen, hain zuzen ere, lehena helmugara iristen. Ospatzeko afaritxo bat egingo duela azaldu digu, irribarretsu, antzuolar gazteak.

San Martzial ospatuko dute aste bukaeran Lizarragan

M.A | ANTZUOLA

San Martzial festak ospatuko dituzte Lizarragako auzotarrek. Egitarau zabala prestatu dute. Musikak, haur-jolasek, kirolak... izango dute protagonista.

Zapatuan San Martzial eguna da. 11:00etan plater jaurtiketarako probak egingo dituzte eta 11:30ean, meza San Martzialgo ermitan. Mezaren ostean, ohitura den moduan, gazta eta ardoa banatuko dute. Ondoren, herriko trikitilariak girotuko dute eguerdia. Arratsalde osoan, umeentzako ohe elastikoak eta gaztelu puzgarririk jarriko dituzte. 16:30ean ekingo diote herri mailako plater jaurtiketa txapelketari. Txokolate-jana eta trikitilariekin festa izango da arratsalde partean. 21:00etan herri afaria egingo dute eta ondoren suzko erruberekin gozatzeko aukera egongo da. Afalostean, erromeria Olarte eta Elortza trikitilariekin.

Domekan, 11:00etan, biharramunetik esnatzeko, txistulariekin kalejira eta 11:30ean bizikleta challengea izango da, San Martzialgo igoera. 12:00etan Meza San Martzialgo ermitan, Antzuolako abesbatzarekin. Ondoren, salda nahi duten guztiendako. 13:00etan txirrindulariei sari banaketa. Eta Oinarin taldeko dantzariak saioa egingo dute; arratsaldeko borobilduz erromeria: Miren eta Allur.

Mairuaren Alardeko entseguak hasi dituzte antzuolarrek

Eguaztenean hasi ziren aurtengo Mairuaren Alardeko entseguak. Haurren eta helduen abesbatzak, txistulariek eta danbor-jotzaileek egin dituzte dagoeneko entseguak. Denen entsegu orokorrak, aldiz, uztailaren 5ean eta 11n egingo dituzte herriko plazan, arratsaldeko zortzietan. Eguntegi osoa www.antzuola.com webgunean dago.

Kirol elkarteak urteko batzar orokorra egingo du uztailaren

Antzuolako kirol elkarteak urteko batzar orokorra egingo du uztailaren 18an, Olaran etxean. Lehen deialdia 19:00etan izango da eta bigarrena, berriz, 19:30ean. Landuko diren gaiak aldiz, hurrenez hurren urteko diru-kontuak, batzarkideen aldaketa eta datorren denboraldiko plan-gintza.



Haurrendako jolasparkea izako jaietan. | L.Z.

Ferixa Nagusia etzi, domeka

Aurten 32 urte beteko dira Elgetako Ferixa Nagusia berreskuratu zenetik. Animaliei dagokionez, 26 idi pare, eta ehun bat abelburu —behi, txahal, asto, behor...— egongo dira. Salmenta postuak 36 izango dira, eta artisau postuak 25. Urtero legez makinaria eta burdingintza postuak ere ez dira faltako. Iluntzerako, berriz, Arantxa eta Pantxoren musika emanaldia izango da plazan. Gaztetxetik txitxiburduntzia eta monologo saioa iragarri dituzte.

moduan uneotan irratian entzungai diren kantuan ipiniko ditugu", adierazi du DJ-ak. "Euskarazkoak, nazioartekoak... Betiko klasikoak ere ez dira faltako; kalejirak, euskal kantu zaharrak... Jendeak eskatzen duena, azken batean". Izan ere kantu eskaera egiteko aukera ere egongo da. "Pare bat tekniko ipini ohi ditugu jendearen eskaerak jasotzeko. Noski, ezin izaten ditugu beti eskatutako guztiak ipini, baina eskaintzak, zorion agurrak... horrelakoak egiteko aukera egongo da".

Argazki lehiaketa

Gogoratu, bestalde, Jaien batzordeak argazki lehiaketa antolatuta duela. Jaietako argazki onena ateratzen duenari tablet bat eman gote diote opari. Bidali nahi beste argazki ferixanagusixak@elgeta.net posta helbidera domekako 15:00ak aurretik.

Askotariko ekintzak

Aste bakoitzean gai jakin bat jorratuko dute; *Elgeta gure herrixa*, *Munduko koloreak*, *Naturarekin bat* eta *Dantzatu eta birziklatu*. Ekintza ugari ludotekatik kanpo egingo dituzte, hala Asentzian, Bastarrikan, Sanrokoosten edo Egoarbitzan ikusiko ditugu aurten udalekuetako haurrak. Batukada eta bideoklipa ere egingo dituzte, eta ez dira faltako urteroko entzierroa, ur putzuak, irteera edo amaierako festa.

teka egunero, baina malguak izango dira eta harrera 10:00 bitartean egingo dute. Gurasoek 13:00etan jaso beharko dituzte haurrak ludotekatik.

Haurrendako jolasgune bihurtuko dute gaur Elgeta

Oihan Vegak hiru orduko emanaldia egingo du 23:00etan hasita; askotariko kantuak ipiniko ditu

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Jaiak hasi besterik egin ez diren honetan dantzarako eta kanturako gogoz daude elgetarrak. Hala, gorputza astintzeko makina aukera egongo da datozen orduotan herrian. Gaur, barikua, Peli Arantzabalekin dantzan egiteko aukera izango dute erretiratuek. Ume eta gurasoendako,

berriz, erromeria egingo du Jon Urbietak 20:00etan hasita. Oihan Vegak 23:00etan hasiko du saioa Herriko plazan. Herriko gazteek DJ musika eskatu zuten jaietarako eta Jaien batzordeak frogatzen erabaki zuen. Vegak hiru bat orduko saioa egingo du. "Euskadi Gaztearen bitartez egiten ditugun disko-festa guztietan

Astelehenetik aurrera udaleku irekien txanda

Bost dinamizatzaileen gidaritzapean ekintza ugari egingo dute aukera izango dute umeei

L.Z. | ELGETA

Astelehenean, jaien biharamunean zabalduko dituzte ateak udalekuek. Astelehenetik barikua hamaika ekintzarekin gozatzeko aukera izango dute neska-mutikoei. Dinamizatzaileek eguaztenean egin zuten gurasoendako informazio bilera, eta bertan lau asteotarako prestatu duten programazioaren berri eman zuten. Azaldu zuten haurrak hiru taldetan antolatu dituztela; txikiak, ertainak eta handiak eta ekintzak adinaren arabera izango direla.

Bost dinamizatzaile

Mireia Andreu, Kepa de Vega, Leire Ibaibarriaga, Oihane Aranzonaga eta Saioa Laka izango dira aurten dinamizatzaileak. 9:00etan zabalduko dute ludo-

ondo ibili jaietan!

Maialde Jatetxia eta Landa Etxia

San Roke kalea, 26 • 943 78 91 07
20690 Elgeta (Gipuzkoa)
maialde@casaruralmaialde.com
www.casaruralmaialde.com

Estali dute Salbadorko bolatokia, eta arauzko neurriak izango ditu

L.Z. | ELGETA

Amaitu barik daude oraindik, baina martxa onean doaz Salbadorko bolatokiako lanak. Auzolanean ari dira bolatokia txukuntzeko ahaleginean, eta dozena erdi bat lagunendako ia eguneroko topaleku bihurtu da Salbadorko ermita ingurua. Maiztean hasi zituzten lanak, eta dagoeneko eginda dago teilatua. Asteon, jaurtiketan boloak jo behar duen ola ipini dute. "Egurrak sendoa behar du, eta haritza ipini dugu", adierazi du Juan Luis Arizmendiarrak auzotarrak. Lan delikatua da eta nibelarekin makina bat buelta eman ostean, azkenean, lortu zuten

ola ondo nibelatzea. Porlana bota diote buelta guztian, ondo finkatuta gera dadin.

Arauzko neurriak

Behin egiten hasita, arauzko neurriak eman dizkiote bolatokiari. "Luzera handiagoa eman behar izan diogu", esan du Arizmendiarrak. Hala, mendiari lurra kentzeko harkaitza porrarekin apurtu behar izan dute. Hasiera bateko asmoa bolatokia estaltzea bazen ere, azkenean, hormak eta txirloen kokalekura iristeko eskailerak ere egingo dituzte. Zalantza barik, abuztuaren 5a, Salbadorko eguna, berezia izango da aurten.



Auzotarrak bolatokiako ola nibelatzen. | L.Z.

Maialde landa etxetik ipuin kontalaridun saioa proposatu dute uztailearen 14rako eta 21erako

Maialde landa etxeko jatetxeak Elgetan berria den proposamena egin du uztailearen 14rako —afari begetarianoa— eta 21erako —menu ez begetarianoa—. Afariaren ostean, postrearekin batera, Amaia Arriaran aktoreak ipuin kontaketa saioa eskainiko du. Proposamenak harrera ona izanez gero, asmoa da eskaintzari hileroko maiztasuna ematea. Prezioa 27 euro da, eta erreserbak telefonoz egin behar dira 943 78 91 07 zenbakira deituta.

Herri Eskolakoek Nerea Arantzetari eman zioten lore sorta ikasturte amaierako ekitaldian

Ekainaren 18ko asteleheneko *Goiena*-n akats bat egin genuen Herri Eskolako ikasleen ikasturte amaierako ekitaldiaren gainean idatzitako albistean. Ekitaldi haren hasieran ikasleek lore sorta eman zioten aurten erretiroa hartzen duen Nerea Arantzetari irakasleari. Albistean Nerea Villa ipini genuen. Akats hori zuzentzea da ohar honen helburua.

ONDO PASAU ELGETAKO JAIETAN!

BOLATOKI taberna

Artekale 2 ELGETA
Tel.: 943 76 82 84



Maialen Axpe, eguazteneko entrenamenduan, Mojategin, atzean (gertuen) Jonathan Perez entrenatzailea duela. | JULEN IRIONDO

ATLETISMOA

Maialen Axpe | Pertika jauzilaria

"Finalerako sailkatzeko asmoarekin joango naiz Munduko Txapelketara"

- ▶ Bere marka 4 metro izan arren, 4,15eko jauzia ere posible ikusten du
- ▶ Hitzordu handietan, kikildu barik, hazi egiten dela dio arrasatearrak

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Maialen Axpek (Arrasate, 1993) ondo bideratuta zuen uztailearen 10etik 15era Bartzelonan jokatu den junior mailako Munduko Txapelketarako sailkapena, baina aurreko asteburuan ziurtatu zuen, Asturiasen, 4 metro jauzi egin eta Espainiako Txapelketa irabazita.

Ba al zegoen zure asmo edo helburuetan uztaileko Munduko Txapelketarako sailkatzea?

Martxoan, pista estalian lortu nuen Munduko Txapelketarako gutxieneko marka, baina denboraldia luzea da eta ez nuen erabat ziurtatuta sailkapena lortzea; baina bai, espero nuen hori berrestea, ze gogor lan eginez gero emaitzak atera egiten dira.

Eta lehenengo aldiz sailkatu zara Munduko Txapelketarako...

Iaz Europako Txapelketa egon zen eta egin nuen gutxieneko marka, baina azkenean beste atleta batek lortu zuen joatea. Duela bi urte, berriz, banuen Munduko Txapelketara joateko gutxieneko marka, baina ez zen txapelketarik izan, hala egokitu zen.

Aurten izango duzu, beraz, zer den ikusteko aukera, aurrenekoz.

Bai, hori da. Beste mundu bat izango da, beste esperientzia bat. Oso pozik nago, hori bizi izateko gogoarekin.

Eta zer topatzea espero duzu?

Gauzak beste maila batean ikusiko ditut; gehien bat disfrutatzeraz joango naiz, gauza berri bat ezagutzera eta ahal dudana egitera. Beste kirolari batzuk ikusi eta haiengandik ikasteko aukera ere izango dut. Hor goian dauden pertsonen beste maila bat dute eta horretara dedikatzen dira, eta izango dut haiek ikusteko aukera.

Baina, lehiatzera zoazen momentutik, helbururik jarriko diozu zure buruari?

Munduko Txapelketan kanporaketa eta finala izango dira, eta gustatuko litzaidake finalerako sailkatzea. 4,10 edo 4,15 metroko jauziarekin egongo da, agian, aukera finalerako sailkatzeko, eta hori lortzeko asmoarekin joango naiz.

Orain arte ez duzu inoiz hainbeste jauzi egin...

Ez, baina entrenatzen egina dut eta, sinisten badut, ziur aterako dela. Ez badut sinisten, orduan bai ez dela posible izango.

Horrelako zita garrantzitsuetan zer egiten zara, hazi edo kikildu?

Txikitatik, kadetea nintzenetik joan naiz Espainiako Txapelketetara. Hasieran, Euskadiko Txapelketa batekin alderatuta, inpresioa egiten du jendeak, giroa oso desberdina izaten da. Baina poliki-poliki, txapelketak pasa ahala,


segurtasun hori lortzen da eta bai, gaur egun hazi egiten naiz txapelketetan.

Hortaz, domina bat lortu ahalizatea, amets egitea da, ezinezkoa da?

Ezinezkoa, ez dakit. Poliki-poliki joanda lortu beharreko zerbait.

Honetan hasi zinenean esperoko zenuen Munduko Txapelketa baten egotera iritsiko zinela?

Olinpiar Jokoak eta jarraitu izan ditut pertika jauzian hasi nintzenetik; baina, noski, nire buruan ez zegoen hori, ez nekien norai-



Axpe eta Uribarren, aurreko asteko dominekin. | JONATHAN PEREZ

Axpe bai; Uribarren, ia ziur, ez

Beste arrasatear batek, Iñigo Uribarrenek, ere bazuen aukera Bartzelonako Munduko Txapelketan egoteko, baina azkenean ez da hala izango, ezusteko pozgarririk ez bada behintzat. Jauzi hirukoitzean 15,05 metroko jauzia eginda, bigarren geratu zen Uribarren aurreko asteko Espainiako Txapelketan, baina marka ez zen sailkapena lortzeko adinakoa izan. Printzipioz 15,60koa behar zuen –gutxiagorekin ere posible zatekeen–, eta lerro hauek idazterako garaian aukeratutako atleten zerrendarik ez izan arren, oso zaila da Iñigo Uribarren zerrenda horretan egotea.

"Beste kirolari batzuk ikusiz, ikasteko aukera ere izango dut"

"Entrenatzen eginak ditut jauziok; sinisten badut, ziur aterako dela"

"Lau urte barru Rioko Jokoetan egotea gustatuko litzaidake"

no iritsiko nintzen. Banuena zen dudana dena emateko asmoa. **Bakarkako kiroleran, lehenengo arrasatearra izango zara, agian, Munduko Txapelketa batean parte hartzen...**

Ba ez dakit. Atletismoan bai, lehenengo naiz.

Non du sabaia Maialen Axpek?

Ez diot nire buruari toperik jartzeko, beti aurrera; ahalik eta gehien salto egiten ahaleginduko naiz. Beti joan naiz hobetzen; beti egin daitezke gauzak hobeto eta lortu daitezke imajinatzen dena.

Ari al zara prestaketa berezirik egiten Munduko Txapelketarako?

Denboraldi osoan ari naiz prestaketa berezia egiten. Asteazkenetik zehar bost egunetan entrenatzen dut, bi orduz; gogorra da, hainbat gauza alboratu behar dira, lagunekin ezin ditut zenbait gauza egin, baina horrela lortzen dira emaitzak. Espainiako Txapelketa izan da hobetzen joateko, baina urte osoko prestaketa izan da Munduko Txapelketa ahalik eta ondoan egitera bideratuta.

Aurten Olinpiar Jokoak ere bai Londresen, jarraituko dituzu?

Bai, telebistatik bai.

Eta lau urte barru zeu Rion?

Bai, hori da dudana helburuetako bat. Gustatuko litzaidake behintzat. Gogor entrenatuta eta gogo jarrita posible da.

Zein da zure ispilua pertikan?

Ez dut ezagutzen, baina asko gustatzen zait eta miresten dut Munduko txapelduna, Yelena Isinbayeba.

Ba zure adinarekin, 2001eko Munduko Txapelketan, 4,25 metro egin zuen salto Isinbayebak; zuk diozu 4,15 egin dezakezula, ez dago hainbesteko alderik, ala?

Pertsona bakoitza mundu bat da. Adibidez, Naroa Agirrek nire adinarekin salto egiten zuena baino gehiago egiten dut nik. Bakoitzak du bere bilakaera, ezin dira bi pertsona hala alderatu.

Dena dela, pertika jauzian, asko dira hamar zentimetro?

Nahikotxo da bai. Orain moduan sasoi onean egonda, posible da edozer irteera eta txapelketa batetik bestera 10 edo 15 zentimetro hobetzea; baina posible da ez aurrera ez atzera geratu eta hamar zentimetro mundu bat iruditzea ere.



Iazko lasterketako irteera unea, Etxe-Aundi parean; David Gartzia durangarra izan zen azkarrena. | JOSETXO ARANTZABAL

ATLETISMOA

Abixaran taldekoak arduratuko dira domekan Torreauso lasai egiteaz

Edonork korritzeko moduko krosa izateko patxadaz ibiliko dira

XABIER URTZELAI | OÑATI

Domekan Oñatiko Torreauso Krosak 15 urte beteko ditu (11:00) eta lasterketan izena aurrez eman badaiteke ere, Antxintxiketan taldeko ordezkariek ondo dakite jendea azken orduan animatzen dela: "Internetez eman daiteke izena (kirolprobak.com), edota Oñatiko Mendizabal Kirolak dendan (8 euro), baina sasoi honetan jendeak azken ordura arte aprobetxatzen du asteburua antolatzeke, eta bezperan erabakitzen dute Torreausoko lasterketan parte hartzea", diosku Asier Osinagak.

Martitzenean 40 lagunek zuten izena emanda: "Baina iaz, lasterketa egunean, esaterako, 50 lagun apuntatu ziren (12 euro). Horrenbestez, urtero moduan aurten ere 100 lagun pasatzok egingo dute korrika. Gainera, korrikalari fidelak ditugu, urtero etortzen direnak".

Denen erritmora

Torreausoko krosa lasterketa herrikoia da: "Irabazleek ez dituzte sari ikusgarriak jasotzen, baina lasterketan egon direnen artean

zozketa ederra egiten dugu, eta zozketaren zain egoten da jendea, arrakastatsua izaten da".

Hala, sarri gertatzen ohi da herri mailako proba izan arren atletek erritmo altuan korrika egiten dutela. Ondorioz, fisikoki horren ondo ez daudenak berehala geratzen dira atzean, eta herriar asko ez dira animatzen, hain zuzen, hori gertatzeko beldur izaten direlako. Domekan, baina, emakumez osatutako Abixaran atletismo taldeak ez du halakorik onartuko: "Oso ideia polita izan dute Abixaranekoek, alegia, taldetxo bat atzean joango da, korrika lasai egiten, motelen doanaren erritmora".

Horrenbestez, ez dago kikiltzeko motiborik, lehenengoz lasterketa batean parte hartzeko asmoa duenak etzi du aukera aproposa. Krosak 7,5 kilometro ditu, eta Etxe-Aundi jatetxe parean izango da irteera puntua.

ESANAK

"Jendeak azken unera arte itxaroten du izena emateko"

"Abixaranekoek taldea osatuko dute proba lasai egiteko"

ASIER OSINAGA | ANTOLATZAILEA

TXIRRINDULARITZA

Dorletako Amako 34. saria egingo dute domekan Gatzagan

X.U. | GATZAGA

Euskaldun Torneo barruan denboraldiko 11. lasterketa korrituko dute Gatzagan, Dorletako Ama sarian. Eta urte askoan lehenengoz, lasterketa antolatzen duen klubak ordezkari izango du amateur mailako proban, Kanpanzar Harrobiak taldeko ziklistak errepidean izango dira-eta.

Etxean, lehenengoz

Duda barik, Dorletako Amako ziklistendako denboraldiko lasterketa garrantzitsuenetako bat izango da, denek nahi izaten dute-eta etxeko lasterketan neurria eman. Denboraldian zehar izan dute gertu korritzeko auke-

ra, Gorlan esaterako, baina domekakoa berezia izango da.

Domekan 10:00etan hasiko dute lasterketa, eta, hain zuzen ere, 119 kilometroko proban hirutan igoko dute Gatzagako mendatea.

DATUA

119

KILOMETRO

Gatzaga eta Arrasateko Eroskiko biribilgunearen artean izango da proba.



2010eko lasterketan, tropela saihebidetan. | JOSETXO ARANTZABAL

FUTBOLA

Debagoieneko koadrila arteko futbol txapelketa Ibarren

Hilaren 21ean futboleko jokatutako Aretxabaletan izango dute aukera aparta, UDAn antolatutako egun osoko txapelketan. Izena emateko azken eguna uztailaren 16a da (Udaretxabaleta@gmail.com). Talde bakoitzak arduradun baten izena eta telefonoa jarri beharko ditu (100 euro).

TXIRRINDULARITZA

Beñat Etxabe garaile Gipuzkoako Itzuliko azken etapan

Beñat Etxabe bergararrak Gipuzkoako Itzuliko azken etapa irabazi zuen astelehenan. Sumofic-Igartua taldeko ziklistak Zerainen jo zuen lehen eraso eta Minasaurkariak atzean uztea lortu zuen. Lidergoa lortzeko zorian egon zen bergararra. Pello Olaberriak irabazi du itzulia.

Jakioneko otarren
IRABAZLEAK
ZORIONAK!

JAKIÖN

Jakion enpresak emandako produktu sorta.

Leintz Gatzaga, 943 71 46 86



Felix Arrese
irabazitako otarrea eskuetan duela.



Floren Arana
irabazitako otarrea eskuetan duela.



Maite Arana
Joxe Mari Beitialarriogoiak hartzen du saria Maite Aranaren partez.

goienakluba[™]

Abantailaz betetako kluba!

Zuk zeuk hurrengo saria irabazi nahi?



goienakluba 2012



Dragon Oriental

Fraiskozuri 7 / BERGARA
Tel.: 943 25 06 77

Eskaintza

- Jatetxe txinatarra
- Wi-fi gunea
- Etxera eramaten dugu (Bergara + Antzuola + Soraluze)
- Din sun, ekialdeko tapak
- Eguneko menua, karta

Egunero zabalik.

UXARTE

Jatetxea • Ostalua • Igerilekua
Udala Auzoa - ARRASATE
www.uxarte.es





Etor zaitez uda giroaz goatzera!



Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72
www.errekajatetxea.eu

Eskaintza

- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

Igande gauean eta astelehenetan itxita



Garaia jatetxea

Garaia Berrikuntza Gunea / Goiru kalea 1 / ARRASATE
943 71 02 28 / 647 83 23 86
ostalaritza@grupogureak.com

Eskaintza

- Self-service bazkari merkeak.
- Urtebetetzeak
- Taldeentzako eta ospakizunentzako bazkari eta afariak.
- 160 pertsonarentzako jangela
- Aparkalekua eta terraza



Iturrieta

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
iturrietasagardotegia.blogspot.com

Eskaintza

- Eguetik domekara irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 90 lagunendako lekua.
- Etxeko sukaldaritza bailarako produktuekin.
- Karta zabala. Menu bereziak.
- Bertako sagardoa Eusko Labelarekin.



Larrinetxe

Udala auzoa / ARRASATE
943 79 22 15
www.larrinetxe.com

Eskaintza

- Aukera zabaleko karta eta astebukaeretan menu bereziak
- Sasoiko okelak, arrainak eta etxeko postreak
- Bokatak eta plater konbinatuak ordu guztietan.

Martitzenetan itxita.



Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55 / www.restaurantelasa.es

Eskaintza

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauetan 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona min).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera (eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria
Mas Gastronomía 2009.



Santa Ana Hotela

Uribarri auzoa 37 (Udalara bidean) / ARRASATE
943 79 49 39
www.santaanamondragon.com

Eskaintza

- Familiako bazkariak eta kinto bazkariak dantzaldiarekin.
- 100 pertsonarentzako jangela, menu berezia eta karta.
- Terraza eta jangela: ogitartekoak, etxeko hanburesak eta plater konbinatuak.
- Kafe eta pasten catering-a, era askotariko tortillak eta pintxoak.

KULTURA

Begirada indartsua meatzalderi

► Bihar, Senpereko Larrealdean zabalduko duten serigrafia erakusketan izango da Iñigo Arregi, Usoa Zumetarekin batera; hainbat artistaren sei lan izango dira ikusgai

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Ustion lakuari tente begira dago Iñigo Arregi Mondragoeko artistaren lana. Trapagarango Meatzaldea Goikoa parkean jarri dute. Corten altzairuan egina, hiru metroko altuera du eta haren kolore gorriak "begirada" guzti-guztiak erakartzen ditu. Parkeko bultzatzaileen asmoa, hain zuzen ere, Trapagarango parkea euskal eskultoreen topaleku bilakatzea da; aire zabalean Euskal Herrian egiten den eskulturen isla izatea, alegia. Dagoeneko hogeitabat euskal artistaren lanek janzten dute Bizkaiko parkearen paisaia.

Ekainaren 16an aurkeztu zuten Arregiren lana, besteak beste, Nestor Basterretxea artistaren begiradapean. Dagoeneko erakartzen ditu hamaika begirada. Hain justu ere, *Begirada* zen Arrasateko artistaren lanaren izena proiektua soilik zenean; baina, behin parkean jarrita, *Zeru ertzari begira* izena ipini dio gorri koloreko eskulturari. "Izena jaretzea oso subjektiboa da; maketa egin nuenean *Begirada* jarri nion, bertako paisaia zoragarria da eta. Baina behin han nengoela, horizontera begiratu eta barrukoagoa, gertuagokoa dela ikusi nuelako *Zeru ertzari begira* jarri diot", azaldu digu.

Basterretxearekin batera, besteak beste, Mikel Lertxundi, Iñaki Ruiz de Egiño, Egoitz Iñurrita, Victor Arrizabalaga, Dora Salazar eta Iñaki Olazabal artistak izan ziren ekitaldian. Une hartako sentazioak azaldu dizkigu Arregik: "Poz handia sentitu nuen. Urteetan ez direla horrenbeste artista batu diote. Basterretxea ikonoa da, hunkitu egin nintzen. Larregiko kritika ona egin zidan. Asko gustatu zitzaion; bereziki nola dagoen muntatua". Gaztetatik jarraitu du euskal eskultore abangoardisten ildo. "Urtetan horri begira egon naiz eta horren jarraitzailea naiz. Oraingoek beste mota bateko instalazioak eta materialak erabiltzen dituzte. Madrilen beti esaten didate zelako lan euskaldunak egiten ditudan. Geratzen den azken alea naizela diote; kar-kar".

Baina zergatik ausartu da gorria erabiltzen?: "Lehen aldia da gorria erabiltzen dudana, inpulstu bat izan zen. Behin eskulturen tokia aukeratuta, deigarri egin nahi nuen. Eskultura gehienak erdoildutakoak dira, eta paisaian ondo integratzen dira. Eta nik pentsatu nuen horre-



Eskultura jartzeko lanetan. | IÑIGO ARREGI

ESANAK

"Behin tokia aukeratuta, deigarria izatea nahi nuen; horregatik, gorritz margotu nuen eskultura"

IÑIGO ARREGI | ARTISTA



Nestor Basterretxea eta Iñigo Arregi eskultorea, Trapagarango Meatzaldea Goikoa parkean. | IÑIGO ARREGI

kin bat zetorren lana jartzea, paisaia indartsua delako. Erabili dudana gorria trafiko seinaleen gorria da", azaldu digu.

"Interpretazio egiterakoan, burdin gorri hori, lurretik jaio-tako naturaren parte gisa islatu nahi nuen; erreferente puntua izan dadin parkean; dena dago paisaiarekin lotuta. Izan ere, han burdina ateratzen zen zeru irekira. Barru-barrutik ateratzen zaidan indarra da, zaila da esplikatzea", dio.

Euskal artisten museo irekia

Proiektu zabalago baten lehen oinarria da Arregiren lana: euskal eskulturgileen museo ireki bilakatu gura dute Meatzaldea Goikoa parkea. "Ikusi dugu euskal eskultura gainbeheran dagoela 70-80ko hamarkadatik, eta Txillida, Oteitza edo Mendiburu moduko artisten lanean zentratu dela. Uste dugu ezinbestekoa dela eskulturgileei bultzada ematea, eta parke honi esker herritarrek gaur egun egiten dutena ikusi ahal izango dute", adierazi zuen Guillermo Olmok, ekimenaren bultzatzaileak, ekitaldian.

Bisita gidatuak

Zapatuetan eta domeketan bisita gidatuak eskaintzen dituzte, 11:00etatik 12:30era bitartean. Lan bakoitzaren gaineko informazioa eta historia lagun, ibilbide ezin hobea egiteko aukera aparta, zalantza barik.

Bihar Senperen

Senpereko Larrealdean serigrafia erakusketaren inaugurazioan izango dela ere azaldu digu Arregik: "Obra grafikoa da eta sei artistaren obra erakusten da. Serigrafiak dira eta editorea Usoa Zumeta da", azaldu digu.

Eskultura berria teknologia zentroan



Ordiziako teknologia zentroa. | I.A.

Ordiziako teknologia ikerkuntza zentroan Iñigo Arregiren eskultura jarri berri dute. Eraikin berria egin dute eta bertan. 12 metroko horman zintzilik jarri dute Arregiren lana. "Izugarrizko pisua dauka eta lurretik bost metrora altxatu dute eskultura. Ikusgarri geratu da sarrera-sarreran", azaldu digu Arregik, ilusioz.

Uztailaren 16an inauguratuko dute corten altzairuan egindako eta erdoildutako lana. Ordiziako teknologia ikerkuntza zentroan.

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA

BERGARA / Irizar 2
Tel.: 943 76 03 35

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA

BERGARA / Artekale 1
Tel.: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4
Tel.: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

DONOSTIA / Easo 57-3 esk.
Tel.: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Japoniako erretratueta oinarritutako olerki bilduma

- ▶ Andoni Salamero 'Japonia: poesiaren sumendi ezkutua' kaleratu du
- ▶ Martin Jauregiartzok Japoniara egindako bidaiko materiala erabili du

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

"Sentiberatasunaren atea ireki nahi duenak bihotza ireki behar du, bihotza ireki eta loratu, loratu eta bere lurrina zabaldu. Horregatik, sarri, eskua luzatu aurretik, bihotza luzatu izaten dela esan ohi da, eta berau eginez, gure borondatea, asmoa eta gogoa erakusten dugula".

Hitz horiekin hasten du Andoni Salamero *Japonia: poesiaren sumendi ezkutua* delako olerki bildumaren hitzaurrea. Olerkiak eta erretratuak, edo erretratuak eta olerkiak. Ordena horretan. Izan ere, Martin Jauregiartzok oñatiarrak orain dela hiru urte Japoniara egindako bidaiaren egindako erretratuak dira liburuaren hasiera puntua. Japoniako kultura, usadioak eta paisaia dira erretratu horietan islatzen direnak. Argazkien ondotik etorri ziren olerkiak: 88. Erretratu bakoitzeko bat.

Oñatiko Elkar Hezi ikastetxean Jauregiartzoren lankide den Andoni Salamero zumarragarrik egin ditu olerkiak. "Nik Japoniako eta Txinako poesia irakurtzen dut, eta badakit nolakoak diren bi herriak. Erreferentzia hori hartuta, Martinen erretratuak ikustean, irudiei hitzak jartzeko gogo sortu zitzaidan. Martinendako Japoniara egindako bidaiak zenbat balio zuen ikusita, irudiak hitzekin janzteko prozesua hasi nuen", esan digu Andoni Salamero, liburuaren egileetako batek. Biek diote *Japonia: poesiaren sumendi ezkutua* ez dela "planifikatutako lana izan, naturaltasunez sortutako elkarlana" baizik.



Martin Jauregiartzok, zutik, eta Andoni Salamero, liburuarekin. | MIREIA BIKUÑA

Zumarragarra, baina Oñatin irakasle

Andoni Salamero (Zumarraga, 1969) irakaslea da Oñatiko Elkar Hezi ikastetxean. Poesia zer den lantzen dihardu ikasleekin. Euren egindako olerki bilduma liburu batean bildu zituen Hatsu elkarteak 2002an. Gainera, *Mundua gizonarendako egina da, baina ez gizona munduarendako* ikuskizunean parte hartu zuen.

Euskaraz eta japonieraz

Olerkiak euskaraz eta japonieraz idatzi ditu –itzulpena Arrasaten bizi den Chieko Hata japoniarrek egin du–. Haiku erako poemak dira. "Hemen olerki testu luzeak idazteko joera daukagu. Luzape-

nari ematen diogu garrantzia. Haikuak olerki laburrak eta sakinak dira. Momentu zehatz bateko sentsazioak batzen dituen", esan digu Salamero.

Liburuak maketatzeko orduan hainbat faktore hartu dituzte

ESANAK

"Une zehatz bateko sentsazioak batzen ditut"

ANDONI SALAMERO | EGILEA

kontuan. "Ez da argazki liburu bat. Olerkiak dira benetako indarra dutenak. Argazkiak osagarriak dira. Liburuak esku artean duenak sosegua, harmonia eta sentsibiltatea antzemango ditu. Beste kultura bat ezagutzeko bidea ematen digu liburuak. Dena den, liburuak hasi berri dugun bidaiaren hasiera besterik ez da. Ibilaldi luzea dago aurretik", dio.

'Performance'-a

Japonia: poesiaren sumendi ezkutua liburuak Koldo Mitxelena aurkeztu zuten maiatzaren 25ean eta Urretxun ekainaren 22an. Japoniarako bidaiaren hurrengo geltokia Oñatin egingo dute. Aurkezpen berezia izango da. "Prentsaurreko arruntak ez zaizkit gustatzen. *Performance*-a egingo dugu. Liburuak aurkeztuko dugu, baina hitzen eta musikaren laguntzarekin. Azken horretan, Ganbara Txiki abesbatzak lagunduko digu. Donostian eta Urretxun ere egon ziren japonieraz abesten. Hunkigarria eta oso ederra izan zen", esan digu.

Oñatiko aurkezpena urri erdialdera egin gura dute.



Mikel Diez. | GOIENA

Mikel Diez bergararren lanak Aroztegi aretoan

M.B. | BERGARA

Mikel Diez bergararren (1967-1996) lanak ikusgai daude atzo ezker Bergarako Aroztegi aretoan. Erakusketa ikusgai egongo da uztailearen 29ra arte: martitzenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era arte; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era arte; eta domeka eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara arte. "Hiriarekin zerikusia duten gaiak, paisaia... islatzen ditu pintura batzuetan, eta horren errealistak ez diren lanetan eta figuratiboetan, garrantzi handia dute komposizioek. Estilo partikularrean erabili arren, 80-90eko Bergarako eskolarekin lotu daitekeen estiloa da. Sentimendua eta emozioa ofizioaren gainetik ipini zituen Mikelek", esan dute Bergarako Beart elkar-teko kideek.

Txotxongiloen mundutik

Aroztegin ipini dituzten lanetan, Diezek txotxongiloen munduan bizi izandakoa antzeman daiteke. "Txotxongiloen munduan izan zuten garapen profesional handiena. Esparru hori bilakatu zen bere hizkuntza-sistema nagusia eta bertan lortu zituen emaitza bikainak", diote Beartekoek.

Askotariko musika estiloak Errekan Gora

M.B. | ESKORIATZA

Uztailearen 6an hasiko dute Eskoriatzan Errekan Gora jaialdia. Askotariko estiloak entzuteko aukera egongo da uztailean. Egitaraua hasteko emanaldia egingo dute Erramun Martikorena eta Mikel Markezek, Huheziko klausuroan, uztailearen 6an.

Gainerako kontzertuetan egongo dira: Tom Tom Makuts, uztailearen 13an, Gernika plazan; uztailearen 14an, Mikel Urdangarin, Azkoaga Ene hotelean; eta uztailearen 28an, Nafarroa Bizirik kantaldi akustikoa.

Liburuan jasotako olerki eta argazkietako batzuk



Zure ezpainen misterioan, soaren sakontasunean, iladiaren belztasunean, arimaren hustasunaren betean ezkutuan duzun gordetzen, O! Japonia zure esentziaren gardena.



Inorekin hitz egin ezinik, loreari bere sekretuak kontatuz dabil: umezurtza!



Lurra erabat zarpalduko balute ere, zapalduko txokoetako zaurietatik gozatuz, osatuz loratuko litzateke udaberria!

Alazne Zubizarreta | DKVko finalista

"Arte Ederrak ikasteko asmoa daukat datorren urtean; gainera, artetik bizi izan gurako nuke"

MAIALEN REGUEIRO | ARRASATE

Alazne Zubizarretak (1994) Batxilergo Artistikoa amaitu berri du eta datorren urtean Arte Ederrak ikasteko asmoa dauka, Bilbon. DKV lehiaketan parte hartu du eta eskultura alorreko finalistetako bat da. Izan ere, bere zaletasunen artean artea, pintura, musika eta mitologia daude.

Zer da Operación Triunfo del Arte?

Berezko izena Fresh Art da. Gazteei bideratutako lehiaketa bat da. Nire adineko freskotasuna eta kreatibitatea adierazteko aukera ematen digun beka moduko bat da.

Nola erabaki zenuen lehiaketa honetan parte hartzea?

Nire irakasleak bultzatu ninduela esan dezaket. Horretarako, klaseko hainbat ordu utzi zizkigun. Hala ere, lehiaketa honetan parte hartzea aukera polita zela uste nuen, ez bainuen ezer galzten.

Nork eman zizun lehiaketa honen berri?

Aurreko urtean, DKVko ordezkari bat gure ikasgelara etorri zen. Hark, aurkezpen baten bitartez, lehiaketaren oinarriak azaldu zizkigun. Ondoren, beharrezko informazio guztia Internetez lortu nuen.

Deskribatu lehiaketa.

Arte lehiaketa bat da eta hainbat probintziatako batxilergo eta erdi mailako zikloetako ikasleek har dezakete parte. Ikasleek modalitate bakoitzeko (pintura, eskultura, marrazketa, argazkilaritza eta bideo-artea) bost lan aurkezteko aukera dute. Epaimahaiak 16 finalista aukeratzen ditu eta haiek Valentziako Unibertsitatera joaten dira, astebete. Bertan, irakasleek lagunduta, beste produkzio bat egiten dute eta epaimahaiak irabazleak aukeratzen ditu.

Lehen aldiz parte hartu duzu lehiaketa honetan?

Ez. Aurreko urtean ere aurkeztu nintzen. Hiru lan aurkeztu nituen eta eskulturaren aukeratu ninduten. Irailean Valentzian izan nintzen eta oso ondo pasatu nuen. Esperientzia harrigarria izan zen.

Zein da irabazleentzako saria?

Valentziako astebetean gainera, diru sari bat dago. Aurten hiru sari daude: lehenengorentzat 3.000 euro, bigarrenarentzat 2.000 euro eta hirugarrenarentzat 1.000.

Horrez gain, ikastetxe bakoitzari 1.000 ematen dizkiote.

Nola sentitzen zara finalista izanda?

Oso pozik. Oso aukera garrantzitsua dela uste dut. Izan ere, egunero ez daukazu irakasle bat zure ondoan, zuri laguntzeko.

Espero zenuen finalista izatea?

Ez. Aurreko urtean ere finalista izan nintzen. Baina aurten, selektibitatearekin ez diot horrenbeste garrantzirik eman. Finalista nintzela esan zidatenean, harridura gelditu nintzen.

Irabaziz gero?

Ez dakit zer egingo dudan irabaziz gero. Agian, barre. Baina negar ez, behintzat.

Eskultura gustuko duzu? Zergatik?

Bai. Erronka da. Azken finean, bi dimentsiotan elementuak kokatzea errazagoa da, baina ikuspuntu desberdinetatik behatzeko aukera egonda zerbait sortzea konplexuagoa da.

Zure eskultura nolakoa da?

Egurrez eta alambreaz egina dago. Forma geometriko eta kurbatuak orekatzen ahalegindu nintzen. Egurrezko esertoki beltzak fonda dira alambrearekin marraztuta dagoen emakumearentzat. Emakumea biluzik irudikatu dut, eserita, naturaltasunez.

Lehen aldiz egin duzu eskultura bat?

Bai. Eskultura hau lehiaketarako egin dut bereziki. Aurreko urtean, klaserako egindako lan batekin hartu ninduten, baina ez zegoen eskultura gisa eratu. Niretzat, klaseko lan bat izan zen.

Datorren urtean parte hartzeko asmorik? Zergatik?

Datorren urtean ezin izango dut lehiaketa honetan parte hartu, Batxilergoko ikasleentzat baita.

Arteaz bizi izan gurako zenuke?

Bai, noski. Hori nire ametsa izango litzateke.



Alazne Zubizarreta, aurreko urteko DKVrako egin zuen lanarekin.

PERTSONALA

Herriko txoko bat: Monterraon.

Euskal Herriko leku bat: Zarauzko hondartza.

Ametz bat: artetik bizi izatea.

Bidaiatzeko leku bat: Londres.

Gorrito duzuna: bareak.

Kantu bat: Satisfaction (The Rolling Stones).

Serie bat: Como conocí a vuestra madre.

Liburu bat: La casa del propósito especial.

Janari bat: txuleta.

Bidaia gustukoena: Parisera egindakoa.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. Etxebizitza salgai edo alokagai. Duplexa, erdialdean. Hiru logela, ikasgela, egongela, sukaldaria eta komun. 110 metro koadro. Igogailu gabe. Hozkailu eta plater garbigailu berriak. Leihoak berriztuak 150.000 euro saltzeko eta 600 euro errentan. 665 72 66 58

103. ERRENTAN EMAN

Antzuola. Bi logeladun etxebizitza ematen da errentan. Igogailuarekin. Berriztua. 645 00 89 97 edo 645 70 80 26

Aretxabaleta. Erdigunean estudio txikia ematen da errentan, emakumezko batentzat. 616 75 41 30

Arrasate. 58 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, egongela, sukaldaria, komun eta trasteleku. Eguzkitzua. Unibertsitatetik gertu. 635 73 94 91

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan Uriburu kalean, unibertsitate ondoan. Hiru pertsonendako modukoak. 699498789 (Juan) edo 943 79 49 34

Deba. Etxebizitza ematen da errentan Hondartza kalean. Lehenilaran. Uztail zein abuzturako. Hiru logela, egongela, jangela, sukaldaria eta komun. Kalerainoko igogailuarekin. 943 70 13 94 edo 609 44 95 91

Isleta del Moro. Cabo de Gata/Almería. Apartamentua ematen da errentan. 607 66 02 44

Jaca. 65 metro koadroko apartamentua ematen da errentan uztail eta abuzturako. Bi logela eta egongelarekin. Erdigunean. Denak poaldara begira. Komunitate gunea, nagusi zein umeendako igorlekuekin, sauna, jacuzzi eta bisquash zelarekin. Garajearekin. Guztiz jantzia eta hornitua. 609 47 86 91

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Errentan hartzeko etxebizitza txiki baten bila nabil. Logela batekoa edo biko, estudio moduko bat. Deitu zenbaki honetara: 653 72 43 19

Debagoiena. Etxebizitza behar dut errentan. Hiru logelakoa. 667 34 89 40

105. ETXEA OSATU

Aretxabaleta. Logela ematen da errentan Araba ibilbidean. Mutil batentzat. Kontratuarekin. 678 73 66 54

Arrasate. Etxea osatzeko gela bat dugu errentan. Interesatuok deitu: 653 71 44 57

Arrasate. Pisu osatzeko pertsona baten bila gabilta. Uztailetik aurrera. Kontratuarekin. 657 72 51 65

Elgoibar. Logela daukat errentan emateko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 699 60 91 90

106. BESTELAKOAK

Trukea. Orozkon (Bizkaia) daukadan baserria eta pinudiak trukatu nitzuke Arrasateko etxebizitza bategatik. 2006an berritua, Gorbeia inguruan. Bilbotik 25 minutura. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 678 72 75 72

Trukea. Saloun (Pineda) daukadan etxebizitza trukatu nuke Arrasateko etxebizitza bategatik. Erdi berria. Urbanizazio pribatua. Hondartzatik 300 metrora. Deitu 943 79 45 74 edo 606 76 11 37 zenbakietara.

2. GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Garaje itxia ematen da errentan Ibargarai. Gauzak gordetzeko apalategiarekin eta urrutiko agintedun atearrekin. Deitu 608 77 64 27 edo 671 36 12 96 telefono zenbakietara.

3. LOKALAK

304. ERRENTAN HARTU

Lokala errentan hartu. Gutxienez 60 metro karratu inguruko lokal bat alokatuko genuke Bergaran garaje eta biltegi bezala erabiltzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 685 72 51 58

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Etxeko lanak egin eta umea zaintzeko emakumea behar da, goizez lan egiteko, 7:30etatik 13:30era. 695 70 35 25 edo 943 03 75 96

402. ESKAERAK

Aretxabaleta edo Arrasate. Haur hezkuntza ikasi duen 22 urteko neska, prest haurrak zaintzeko. Esperientziaduna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 88 39 57

Arrasate. Emakume arduratsua etxeko lanak egiteko prest (garbiketa, plantxa, sukaldaritza, portalak...) 10 euro ordua. Erreferentzi onak. (Ana). Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943 79 04 69

Arrasate edo Aretxabaleta. Neska euskalduna, arduratsua, pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Eli. 645 00 75 24

Arrasate. Bertako emakumea lanerako gertu: ume edo nagusiak zaindu, etxeko garbiketak eta abar. 943 79 60 89

Arrasate. Emakumea lanerako gertu: zerbitzari, garbiketak eta abar. Juana Martinez. 662 25 99 64

Arrasate. Lan bila nabil. Tabernan edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu nengoke. 662 08 22 03

Bergara. Neska euskalduna haurrak zaintzeko prest ekaina eta uztailen. 686 80 96 28

Bergara edo Arrasate. Emakumea prest etxe zein atarietako garbiketa lanak egiteko; egin edo lisatze lanetarako. 671 80 18 29

Bergara edo Arrasate. Gizonetza prest adineko pertsonak zaindu edo lorezaintza lanetarako. 617 02 54 72

Bergara. Neska euskalduna gertu udan umeak zaintzeko. 617 80 87 85

Bergara. Umeak zaintzen edo nagusiak laguntzen zein garbitasunak egiten lan egingo nuke. Esperientziaduna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 610 34 97 88

Debagoiena. Neska gazte euskalduna gertu udan umeak zaintzeko. 617 80 87 85

Debagoiena. 54 urteko emakumea gertu umeak zaintzeko, etxe, atari zein tabernak garbitzeko, edo jatetxean lan egiteko. Esperientziaduna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 647 10 58 72

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK

201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK

301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA

401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA

601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
604. Bestelakoak

7. ANIMALIAK

701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK

801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805. Trukatu
806. Galdtu
807. Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK

901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

Debagoiena. Arratsaldetan nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Baita gauetan zein asteburuetan ere. Autoa daukat. 634 40 64 65

Debagoiena. Bikote boliviarrak gertu interno gisa lan egiteko. Deitu 633 66 52 45 edo 622 40 66 61 telefono zenakira.

Debagoiena. Emakume arduratsua garbiketa lanak egin (etxebizitza, bulegoak, eskalera...) edota pertsona nagusiak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 672 88 01 01

Debagoiena. Emakumea gertu asteburuetan lan egiteko, garbiketetan, etxean bizi izaten edo bestela. 699 09 46 26

Debagoiena. Emakumea gertu garbiketetan, nagusiak zaintzen edo bestelako lanetan jarduteko. Ana Luisa de los Santos. Interesatuok deitu honetara: 673 78 08 99

Debagoiena. Emakume arduratsua, geriatra tituluduna eta erizaintza laguntzaile titulua ikasten dagoena, pertsona nagusiak eta haurrak atenditzeko prest. 646 05 58 88

Debagoiena. Emakume arduratsua geriatra tituluduna eta erizaintza laguntzaile titulua ikasten dagoena, pertsona nagusiak atenditzeko prest baita ospitalean gauak pasatzeko ere. Erreferentziarik. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 664 63 54 55

Debagoiena. Emakumea gertu garbitasun lanak egiteko. Orduka zein egun osoz. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 672 70 71 25

Debagoiena. Emakumea gertu lanerako: etxean bizi izaten, egunez edo orduka. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 620 65 44 98

Debagoiena. Emakumea gertu ume edo nagusiak zaintzeko. Bait garbitasun lanetarako ere. Orduetegi malgua. Eskarmentuduna. Deitu zenbaki honetara: 618 00 08 28

Debagoiena. Esperientziadun emakumea gertu etxe, bulego, lokal zein elkarrekin garbitzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 676 24 89 24

Debagoiena. Gauetan edo asteburuetan nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Deitu zenbaki honetara: 699 60 91 90

Debagoiena. Gizon arduratsua lanerako prest. Deitu zenbaki honetara: 677 62 22 21

Debagoiena. Gizon boliviarrak gertu nagusiak zaindu, gidari, iturgin, lorazain zein bestelako lanetarako. Gidabaimenarekin. 622 40 66 61

Debagoiena. Lanaldi osoz, arratsalde, zein orduka, garbiketa lanak egin, pertsona nagusiak zaindu edo bestelako lanetarako emakumea prest. 630 99 11 85

Debagoiena. Neska arduratsua lan bila: nagusi edo umeak zaintzen eta garbiketak. Deitu zenbaki honetara: 699 07 99 69

Debagoiena. Neska arduratsua umeak zaindu, orduka garbiketak egin edo nagusiak zaindu zein pasean laguntzeko. Deitu 943 71 53 74 edo 695 73 87 95 telefono zenbakietara.

Debagoiena. Neska boliviarrak gertu etxeko lanak egin eta nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten zein bestela. Legezko paperak ditut. Auxiliario tituluarakin. 655 96 18 22

Debagoiena. Neska euskalduna lan egiteko gertu, umeak edo nagusiak zaindu, baita ospitalean gauetan ere eta garbiketa lanak egiteko. Disponibilitatea eta informea. Kotxea daukat. 671 35 22 60

Debagoiena. Neska gertu garbitasun lanak egiteko edo nagusiak zaindu, baita ospitalean gauetan ere eta garbiketa lanak egiteko. Disponibilitatea eta informea. Kotxea daukat. 671 35 22 60

Debagoiena. Neska gertu garbitasun lanak egiteko edo nagusiak zaindu, baita ospitalean gauetan ere eta garbiketa lanak egiteko. Disponibilitatea eta informea. Kotxea daukat. 671 35 22 60

Debagoiena. Neska gertu interna, orduka zein gauetan lan egiteko, nagusiak zaintzen. Atariak garbitu, lisatu eta abarretan ere bai. 610 68 81 58

Debagoiena. Neska gertu interna, orduka zein gauetan lan egiteko, nagusiak zaintzen. Atariak garbitu, lisatu eta abarretan ere bai. 689 95 12 83

Debagoiena. Neska gertu nagusi edo umeak zaintzeko eta garbitasun lanetarako. Egunean zehar, gauak edota asteburuak. 618 14 71 34

Debagoiena. Neska goizez lan egiteko gertu. Etxean, garbitasun lanetan edota nagusiak zaintzen. 697 20 00 86

Debaioena. Erizaintza laguntzaile tituludun bikotea, pertsona nagusiak zaintzeko prest. Bertan bizitzeko aukera. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 697 35 62 49

Eskoriatza, Aretxabaleta edo Arrasate. Neska euskalduna, uztail edo abuztuan goiz eta arratsalde umeak zaintzeko prest. 660 60 83 36 edo 943 71 40 45

Garraioak. Furgoneta daukat edozein motatako garraioak egiteko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 628 51 22 78

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Aleman eskolak. Aleman eskolak jasotzeko prest nago, udako hilabeteetan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 666 71 69 79

Bergara. DBH laugarren mailako ingeles eskolak emango dizkidan norbait behar dut, ingelesa ondo menperatzen duena. Irene. 679 31 62 72

502. EMAN

Bergara. Ingeles eskolak ematen dira. Uztailen, orduka zein intentsiboak. Maila guztiak. Enpresarako formazioa eta Cambridge edo HEDEko azterketak prestatzeko ere bai. 618 91 32 89

Ingelesa Arrasaten. Ingelesko eskolak ematen dira. Maila guztietarako. Orduetegi norberak aukeratzen du. 688 64 12 56

Oñati. Irakasle eta psikopedagogoko eskola partikularrak ematen ditut: klase pertsonalizatuak (euskarra indartzeak, ulermen arazoak, eta abar), bakarka edo talde txikietan. Kontsulta ezazu konpromisorik gabe. 685 76 83 16 edo 943 78 07 49

Ordenagailu eskolak. Ordenagailua ondo erabiltzen ikasi nahiduzula? Lasai, internet, web orriak diseinatu, programazioa, Microsoft, inteligentzia artifiziala eta abar. Merke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 679 74 00 61

503. BESTELAKOAK

Doako informatika laguntza. eskaintzen dut langabezia dauden pertsona edota familia ugariendako. Edozein arazo, galdera edo aholku behar baldin baduzu informatika arloan, nire laguntza dohainik eskaintzen dizut. laguntzen@gmail.com

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Asto emea. Asto eme nagusia salgai. Beltza da eta oso mantsoa da. 655 71 39 27704

703. EMAN

Katakume polit-politik. Siamesa eta kale katuaeren arteko katakume polit-politik ditut oparitzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara 21:00etatik aurrera. Itziar. 945 30 42 09

704. BESTELAKOAK

Bi txakur galduta Angiozaren. Setter arrazako bi txakur galdtu dira Angiozarko lurretan. Lagun (gaztea, urtebetekoa, zuria orban marroiekin) eta For (hiru urtekoa, zuria) izenei erantzuten diete. Norbaitek aurkitu baditu, deitu mesedez. Aldez aurretik eskerrak. 655 73 10 54 edo 943 76 59 32

8. DENETARIK

801. SALDU

Almirante trajea. Jaunartzea egiteko mutiko trajea salgai. Behin bakarrik erabilia. Traje osoa, zapatak izan ezik. 10 neurrikoa. 150 euro. Deitu zenbaki honetara: 618 00 08 28

Bizikleta. Mendiz RS4 bizikleta salgai. Karbonozkoa, txuria eta gorria. 51 neurrikoa. Shimano Ultegra kanbiduna. Fulcrum Racing gurpilekin. 2010eko eta egoera oso onean. Faktura dauket. Tfnoa: 606 28 81 19

Bizikletak eramatekoa. Hangan 972 modeloa, Thule etxekoa. Hiru bizikletak eta bolarekin autoan ilotzeko. Matrikula eramateko gailuarekin. 70 euro. 686 37 52 39 edo 606 78 30 30

Bugaboo patinetea salgai. Bugaboo etxeko kotxei egokitzan zaien patinetea. Egoera onean. 30 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943 76 21 31

Kayaka. 3D Perception modeloa. Txalekoa, txubaskeroa, arrauna eta abar. 800 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 690 81 64 39

Lehorgailua. Hiru kiloko lehorgailua salgai. Ia berria. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 659 34 31 43

Mostradoreak. Dendako bi mostradore salgai. Ia berriak. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 696 84 19 51

Nintendo 3ds + Super Mario 3d Land. Gabonetan erositako Nintendo 3ds eta Super Mario 3d Land salgai. Berria bezala, 200 euro. Bergara. Telefonoz deitu: 696 24 84 90

Stokke Sleepi. Minieta sehaska, salgai. Zuria. Egoera oso onean, gutxi erabilia. 350 euro. Deitu 19:00ak eta 20:00ak artean. 648 20 37 75

Xbox 360. Xbox 360 salgai. Drain dela bi urte erositako, baina erabili gabe. 250 GB. Urtebeteko bermearrekin. 175 euro. 943 79 39 35

Xurgagailua. Akaroen aurkako eta kontsumo baxuko. Gutxi erabilitakoa. 659 62 02 49

Xurgagailua salgai. Orbeago AP7010 modeloa. 2000 watitiokoa. 50 euro. 686 37 52 39 edo 606 78 30 30

802. EROSI

Bugaboo Donkey aulki bikoitza. Bugaboo Donkey aulki bikoitza, egoera onekoa, erosiko genuke. 635 70 05 14

Lursaila erosiko nuke. Erosiko nuke Bergara, Oñati edo Eskoriatza artean, erleak ipintzeko, hektarea 1 eta 4 artekoa. 626 01 19 07

804. HARTU

Liburuak. Arizmediko LH 6. mailako liburuak hartuko nituzke. 605 46 19 26

806. GALDU

Betaurreko graduatuak. Betaurreko graduatuak galdu nituen maiatzaren 31n, Aretxabaleta eta Eskoriatza arteko bidegorrian. Mesedez aurkitu badituzue jarri kontaktuan nirekin. 608 41 53 11

807. AURKITU

Lepokoa Arrasaten. Lepoko aurkitu nuen maiatzaren 20an, Munarren. Galdu baduzu deitu telefono zenbaki honetara: 689 88 98 12

9. HARREMANAK


904. BESTELAKOAK

Udan hizkuntzak praktikatzeko. Euskarra eta gaztelania hitz egiten duen neska naiz eta euskarra da nire ama-hizkuntza. Frantsesa ikasten ari naiz eta frantsesa dakien norbaitek hitz egiteko aukera izatea gustatuko litzaidake. Trukean nirekin euskarra edo gaztelania praktikatu ahal izango du. Ekainean edo uztailen, arratsaldetan, doan hizkuntzak praktikatu nahi dituenak, deitu. 663 33 95 69




Jorge eta Miriam

Jorge eta Miriam bihar, ekainaren 30ean, ezkonduko dira. Zorionak, bikote! Ondo pasatu zuen egunean eta eztei-bidaian, lagunentzat partetik.



Enaitz eta Nerea

Enaitz Agirre eta Nerea Gonzalo ekainaren 30ean Etxarri-Aranatzen ezkondu eta Thailandiara joango dira eztei-bidaian. Ondo pasatu, etxekoentzat eta Oierren partetik.



Boni eta Itxaso

Boni Ferreira eta Itxaso Barrutiabengoa ekainaren 30ean Arrasaten ezkonduko dira. Zorionak, familiaren eta lagunentzat partetik. Ondo pasatu bidaian!



Laura eta Jorge

Laura Gonzalez eta Jorge Conde bihar ezkonduko dira Arrasateko udaletxean. "Egun ahaztezina izango da eta hor izango gara elkarrekin ospatzeko. Zorionak, bikote! Familiakoentzat eta lagunentzat partetik".



Ivan eta Alaia

Ivan Tierno eta Alaia Moreno arrasatearrak ekainaren 30ean ezkonduko dira. Zorionak, bikote! Ondo ibili ezkontza egunean eta eztei-bidaian.

HILDAKOAK

Felipa Biain Anduaga. Oñatin, ekainaren 19an. 95 urte.

Eleuteria Bilbatua Elorza. Aretxabaletan, ekainaren 21ean. 88 urte.

Miguel Angel Torres Parra. Arrasaten, ekainaren 21ean. 52 urte.

Fortunato Carrasco Balbas. Arrasaten, ekainaren 23an. 78 urte.

Isidora Dominguez Pinto. Arrasaten, ekainaren 25ean. 75 urte.

Luis Etxebarria Elorza. Aramaion, ekainaren 26an. 65 urte.

Jose Ignazio Garay Iturbe. Arrasaten, ekainaren 26an. 60 urte.

Ana Mari Zabala Ayala. Arrasaten, ekainaren 27an. 73 urte.

ESKER ONA

Felipa Biain Anduaga



Oñatin hil zen 2012ko ekainaren 19an, 95 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Ondra mezak zapatuan, ekainaren 30ean, 19:30ean, Oñatiko Agustinoen elizan ospatuko dira.

Oñatin, 2012ko ekainaren 29an.

Babeslea:



Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 126 euro.

Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 168 euro.

Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

ARRASATE Goiena: Otolora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

BERGARA Jardun elkarte: Errotalde jauregia (kultura etxean). 943 76 08 19.


OÑATI Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

ARETXABALETA Goiena: Basabe poligonoa E05. 943 25 05 05.

ARAMAIO Kintelena janari-denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22.

ELGETA Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.

ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.



ESKORIATZA San Pedro jaiak

Eskoriatzan atzo hasi zituzten jaiak eta asteburu osoan izango dira. Gaur, esaterako, *Neskakabaret* ikuskizuna egongo da, 19:00etan; bihar, umeen danborrada egingo dute 18:30ean eta koadrilen arteko jokoak 19:45ean; etzi euskal jaiaren eguna izango da. Talogileak egongo dira plazan eta sagardo kupelak ipiniko dituzte.

Gaurtik domekara, Eskoriatzan.



GOIENA



GOIENA

ELGETA Ferixa Nagusietako jaiak

Domekara bitartean Elgetan ere jaietan ibiliko dira. Gaur, ume eta erretiratuen eguna da; bihar, Herri Eguna ospatuko dute, eta domekan, berriz, Ferixa Nagusia. Artisauak, ganadua eta abar egongo dira Elgetako kaleetan, beraz, etzi.

Domekara arte, Elgetan.

MUSIKA**ELORRIO Bergarako Orkestra Sinfonikoaren kontzertua**

Bergarako Orkestra Sinfonikoak Elorrioko elizan kontzertua emango du gaur. Wesley, Beethoven, Bastida eta Silvestriren lanak eskainiko dituzte, besteak beste.

Gaur, Elorrioko elizan, 22:00etan.

ARRASATE Big Band

Arrasate Musikaleko Big Band taldeak kontzertua eskainiko du gaur gauean Monterronen.

Gaur, Monterron parkean, 22:30ean.

BERGARA Orfeoiaren kontzertua: 'Zarzuola antologia'

Bergarako Orfeoiak kontzertua egingo du Zabalotegin. Zarzuelen mundua hobeto ezagutzeko aukera paregabea izango da, arratsaldeko 20:00etan, Bergarako Orfeoiaren eskutik. Hainbat zarzuola entzuteko aukera egongo da: *La Gran Vía*, *El caserío*, *Gigantes y Cabezudos*...

Gaur, Zabalotegin, 20:00etan.

ANTZERKIA**BERGARA 'Libertia' antzezlana**

Libertia kale antzerkia Hortzuga taldearekin, bihar, San Martin plazan.

Bihar, zapatua, San Martin plazan, 19:30ean eta 22:00etan.

ARETXABALETA 'Ametsen bizi' Trapu Zaharren eskutik

Trapu Zaharra antzerki taldeak *Ametsen bizi* lana eskainiko du; luzaroan langabezia dauden komiko biren arteko gorabeherak Herriko Plazan.

Uztailaren 4an, eguaztena, Herriko Plazan, 19:00etan.

JAIK**ANTZUOLA San Martzialgo jaiak**

Bihar hasiko dira Antzuolan San Martzial jaiak ospatzen. 11:00etan San Martzialgo ermitan meza nagusia egingo dute eta ostean, ohitura den moduan, gazta eta ardoa banatuko dira. Domekan 12:00etan meza egin-

NON-ZER

Emaguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.

Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

EKAINAK 29
UZTAILAK 5

go da San Martzialgo ermitan, Antzuolako abesbatzarekin. Ondoren, salda banatuko diete nahi duten guztiei eta luncha ere egongo da erretiratuendako. Arratsaldean erromeria egongo da Miren eta Allurrekin. Bihar eta etzi, Antzuolan.

OÑATI Torreauzoko jaiak asteburuan

Oñatin Torreauzoko jaiak ospatuko dituzte gaurtik domekara. Gaur, San Pedro eguna dela eta, 20:30ean meza egingo dute eta 21:00etan txakolin eta dasta dastaketa. Bihar, besteak beste, kalejira egingo dute baserri baserri. Domekan meza nagusiaren ostean luncha egongo

da, bertsolari, dantzari eta auzoko trikitilariekin eta ondoren, bazkaria Etxe Aundi jate-txean.

Gaurtik domekara, Torreauzon.

OÑATI Zubillaga auzoko jaiak

Zubillaga auzoan ere jaiak ospatuko dituzte asteburuan. Gaur meza egingo dute eta ondoren luncha egingo dute. Bihar, berriz, 16:30ean umeendako jolasak egongo dira pilotalekuan. Ipuin kontalaria ere egongo da bihar Zubillagan eta txotxongiloak ere bai. Domekan, afalostean, urteroko hitzordua den mozorro festa antolatuta dute; Kaixo taldeak animatuko du une hori.

Gaurtik domekara, Zubillaga auzoan.

OSPAKIZUNAK**BERGARA Meza nagusia Santa Marinaran**

Oxirondoko eta Ariznoako parrokiek antolatuta meza nagusia egingo da gaur, Santa Marina elizan. Meza 19:00etan hasiko da eta Arrasateko parrokiako abesbatza izango da bertan. Jacques Berthierren *Missa pro Europa* eta Hilarion Eslavaren *Tu es Petrus* abestiak kantatuko dituzte.

Gaur, Santa Marinaran, 19:00etan.

ARRASATE Errozioa

Urtero bezala, Errozioa ospatuko dute Al-Andalus elkarteak antolatuta. 09:00etan kafea banatuko

dute. 09:45ean Errozioko salbea abestuko du Al-Andalus elkarte-ko abesbatzak. 10:00etan Errozio-ko Ama Birjina eroango dute Santa Teresa elizara. 10:15ean lore eskaintza egingo diote eta 10:30ean Meza erroziroa. Egun osoko jaia izango da. Etzi, domeka Arrasateko Arruenan, 09:00etan.

LEINTZ GATZAGA Zurtitzako San Martin eguna

Goierri auzoko ermitan San Martin eguna ospatuko dute: 12:30ean, meza, eta ondoren, mokadutxoa eskainiko du Udalak.

Etzi, domeka, Goierri auzoan, 12:30ean.

BERGARA Euskarazko irakurzaletasunaren astea

Astelehenetik zapatara bitartean euskarazko irakurzaletasunaren astea egingo dute Bergaran, Jardun euskara elkarteak antolatuta. Elkar Megadendan euskarazko liburuak merkeago erosi ahal izango dira. Helduen literatura %50 merkeago; gazteen literatura %30; eta, haur literatura %15.

Uztailaren 2an hasita, Bergaran.

BERGARA Ipuin kontaketa

Euskarazko irakurzaletasunaren astearen barruan Agorrosingo kanpoko igerilekuan haurrendako ipuin kontaketa egingo dute. Eguraldi txarra egingo balu San Martin plazan.

Uztailaren 4a, eguaztena, Agorrosin igerilekuan 17:00etan

ERAKUSKETAK**BERGARA Mikel Diezen margolanen erakusketa**

Aroztegin ikusgai egongo da uztail guztian zehar Mikel Diaz zenaren margolanen erakusketa.

Uztailaren zehar, Bergaran, Aroztegi aretoan.

ARETXABALETA 'Miradas del Nepal' erakusketa

Sergio Gonzalez Lopezen argazkiak izango dira ikusgai Arkupeko erakusketa aretoan uztail guztian: *Miradas del Nepal*. Astea zehar 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Zapatutan: 11:00etatik 13:00etara. Domeka eta jaiegunetan itxita egongo da.

Uztailaren zehar, Arkupeko erakusketa aretoan, 11:00etatik aurrera.



GOIENA

BERGARA San Martzial

Asteburu osoan egongo dira ekintzak Bergaran San Martzial jaien bueltan, baina egun handia domekakoa izango da. 10:00etan gurdia abiatuko da San Martzialerantz eta 11:00etan meza nagusia

egongo da. 12:00etan, berriz, dantza saioa eta ondoren, Juan Mari Narbaiza eta Jose Luis Gorrotxategi bertsolariaren emanaldia. Umeendako jolasak eta bestelakoak ere egingo dira egunean zehar.

Etzi, domeka, San Martzialen, 10:00etan.



GOIENA

ARAMAIO San Martin jaiak

Gaur hasi eta domekara arte ez da ekintzarik falta izango herrian. Gaur, 19:00etan hasiko dira jaiak txupinazoarekin, eta sekulako kontzertuez gozatzeko aukera ere izango da: Willis Drummond, Lisabö eta Itziarren Semeak taldeak arituko dira txosnagunean. Gaur, Aramaioko txosnagunean, 23:30ean.

IRTEERA**OÑATI Espeleoabentura irteera**

Ohiko pasarelatik irtenda, Arrikrutzeko galeria aktiboa eta eszentrika ikusteko aukera. Bihar, Arrikrutzen, 10:00etan.

ELGETA Intxortako gerra-gunera bisita gidatua

Domekan bisita gidatua. Irteera ordua eta lekua 10:00etan Espaloiko Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan. Etzi, Elgetako Espaloian, 10:00etan.

DEIAK**ARETXABALETA ESKORIATZA**

'Udaero' egitasmoan izen-ematea Eskoriatzako eta Aretxabaletako Gazteria Zerbitzuak Udaero antolatuta du uztaileko, 12 eta 17 urte arteko gazteendako. Irteerak, aste bukaera pasak, kontzertuak, lehiaketak eta abar antolatuta dituzte. Bihar, Gazteria Zerbitzua eta gaztelekuak, 09:00etan.

ANTZUOLA Tutorea KZgunean

Uztaileko astearteetan egongo da, 09:00etatik 13:00etara. Etzi, Liburutegian, 09:00etan.

ARRASATE Hileko azken ostirala

Hileko azken ostilareko kontzentrazioa burutuko da euskal preso politikoaren eskubideen alde. Gaur, Herriko plazan, 19:30ean.

KIROLA**ESKORIATZA Esku pilota partiduak pilotalekuan.**

Lau 1/2 erdiko partidua Mendizabal eta Chafeeren artekoa izango da. Eskuz binakako partiduan, berriz, Mikel Goñi eta Galarza VI.a Capellan eta Goñi III.aren kontra arituko dira. Gaur, Eskoriatzako pilotalekuan, 18:30ean.

OÑATI Torreazoko XV. Herri krosa.

Etzi egingo dute, Torreazoko jaien barruan, XV. Herri krosa. Egunean bertan ere eman ahal da izena proban parte hartzeko. Etzi, domeka, Torreazon, 11:00etan.



GOIENA

OÑATI Fan Hemendik! eguna

II. Fan Hemendik! eguna egingo dute. Herri bazkaria egingo dute eta 19:00etan manifestazioa. 20:00etan kontzertuak egongo dira, Ingo al deu?, BITZ, Iheskide, CC621 eta El Trono de Judas taldeekin. Bihar, Oñatin, 12:00etan hasita.

ZINEMA**EIBAR****COLISEO****Miel de Naranjas**

Egubakoitzean: 22:30.
Zapatutan: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeketan: 17:00, 20:00.
Asteleneetan: 20:30.

Maxima Seguridad

Egubakoitzean: 22:30.
Zapatutan: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeketan: 17:00, 20:00.
Astelenean: 20:30.

Ice Age 4

Zapatutan: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeketan: 17:00, 20:00.
Astelenean: 20:30.

GASTEIZ**GURIDI****Ice Age**

Egubakoitzean: 17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

Las Nieves del Kilimanjaro

18:00, 20:15, 22:30.

El profesor Lazhar

Egubakoitzean: 18:00, 20:15, 22:30.

Men in black II

Egubakoitzean: 17:30, 20:00, 22:30.

La suerte en tus manos

Egubakoitzean: 18:00, 20:15, 22:30.

Blancanieves y la leyenda del cazador

Egubakoitzean: 17:30, 20:00, 22:30.

Tengo ganas de ti

Egubakoitzean: 17:30, 20:00, 22:30.

FLORIDA**Retrospectiva Ana Diez: Paisito**

Martitzenean: 20:00.

Ice Age 4

Egubakoitzean: 12:00, 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatutik egunera, baita: 12:00.

Los cachorros y el código de marco polo

Egubakoitzean: 12:00, 18:00.
Zapatutik egunera: 12:00.

Evelyn

Egubakoitzean: 20:15, 22:30.

Marvel, los vengadores

Egubakoitzean: 12:00, 17:30.
Zapatutik egunera: 12:00.

Ellas

Egubakoitzean: 20:15, 22:30.

Muppets

Egubakoitzean: 12:00.
Zapatutik egunera: 12:00.

Moonrise Kingdom

Egubakoitzean: 18:00, 20:15, 22:30.

Don gato y su pandilla

Egubakoitzean: 12:00, 17:30.
Zapatutik egunera: 12:00.

Marley

Egubakoitzean: 20:00, 22:30.
Martitzenean: 22:30.
Eguazten eta egunetan: 20:00, 22:30.

Hysteria

Egubakoitzean: 18:00, 20:15, 22:30.

Las chicas de la sexta planta

Egubakoitzean: 18:00, 20:15, 22:30.

GORBEIA**Ice Age 4**

Egubakoitzean: 18:15, 20:15, 22:15.
Egubakoitzean: 00:15.
Zapatu, domeka eta jaiegunetan, baita: 16:15.

3D Ice Age 4

Egunero: 17:15, 19:15, 21:15.
Egubakoitzean: 23:15.
Zapatu, domeka eta jaiegunetan: 15:30.

El enigma del cuervo

Egunero: 17:15, 19:15, 21:15.

Inmaduros

Egunero: 18:20, 22:30, 22:40.
Egubakoitzean: 00:50.
Zapatu, domeka eta jaiegunetan, baita: 16:10.

Tengo ganas de ti

Egunero: 17:10, 19:40, 22:10.
Egubakoitzean: 00:40.

Maxima Seguridad

Egunero: 20:20, 22:20.
Egubakoitzean: 00:20.

Men in black

Egunero: 18:00, 22:20.
Egubakoitzean: 00:40.

3D - Men in black

Egunero: 22:10.

Sacame del paraíso

Egunero: 18:20.

Blancanieves y la leyenda del cazador

Egunero: 17:00, 19:30, 22:00.
Egubakoitzean: 00:30.

Acto de valor

Egunero: 20:15.

La sombra de los otros

Egunero: 22:30.
Egubakoitzean: 00:45.

Los vengadores

Egunero: 17:30.

Sombras tenebrosas

Egunero: 20:30.

Intocable

Egunero: 22:40.
Egubakoitzean: 00:50.

Don gato y su pandilla

Egunero: 18:20.
Zapatu domeka eta jaiegunetan, baita: 16:20.

Los cachorros

Zapatu, domeka eta jaiegunetan: 16:00.

Lorax

Zapatu, domeka eta jaiegunetan: 16:30.

BOULEVARD**Ice Age 4**

Egunero: 17:30, 19:30, 21:30.
Egubakoitzean: 23:30.
Zapatu, domeka edo jaiegunetan, baita: 15:30.

3D Ice Age 4

Egunero: 18:00, 20:00, 22:00.
Egubakoitzean: 00:00.
Zapatu, domeka eta jaiegunetan, baita: 16:00.

Men in black

Egunero: 18:00, 20:15, 22:30.
Egubakoitzean: 00:45.

Tengo ganas de ti

Egunero: 18:30, 21:00.
Egubakoitzean: 23:30.
Zapatu, domeka eta jaiegunetan, baita: 16:00.

Blancanieves y la leyenda del cazador

Egunero: 19:00, 21:30.
Egubakoitzean: 00:00.
Zapatu, domeka eta jaiegunetan, baita: 16:30.

Acto de valor

Egunero: 20:20, 22:35.
Egubakoitzean: 00:50.

Project X

Egunero: 20:25, 22:25.
Egubakoitzean: 00:25.

Hysteria

Egunero: 17:45.
Zapatu, domeka eta jaiegunetan, baita: 15:45.

Intocable

Egunero: 18:10.

Los juegos del hambre

Egunero: 17:30.

Cuando te encuentre

Zapatu, domeka eta jaiegunetan, baita: 16:10.

Marvel, los vengadores

Zapatu, domeka eta jaiegunetan, baita: 15:30.

KRITIKA**HYSTERIA ★★☆☆☆**

Zuzendaria: Tanya Wexler.

Herrialdea: Estatu Batuak.

Urtea: 2011.

Aktoreak: Hugh Dancy, Maggie Gyllenhaal, Jonathan Pryce.

Iraupena: 103 minutu.

Garai aldaketa

Hysteria-n kontatzen zaigu bibragailu elektromagnetikoen sorkuntza. Historia Ingalaterran kokatzen da, Victoria erreginarengana. Urte haietan emakumeen eskubideak oraindik oso murriztuak egon arren, baziren gauzak aldatu nahi zituzten emakume kementsuak. Gizartea tradizionala bazen ere, teknologiei eta asmakuntzei zegokienez pauso berriak ematen ari ziren. Hor dauzkagu burgesia pozik edukiz dirua egin nahi duten medikuak, denei laguntzeko pauso berriak eman nahi dituzten beste medikuak, teknologi berriak sortzen dituzten asmatzaileak eta aldaketa sozialen alde lan egiten

duen pertsonak. Hau da, tradizioaren eta modernitatearen arteko gatazka sumatzen da.

Aipatutako giroan mugitzen da Hysteria. Komedia da honen tonu nagusia. Alde batetik bibragailu eta klitori masajeari emateko teknikekin momentu dibertigarriak lortzen dira. Bestetik, komedia erromantikora ere jotzen da. Medikua tradizional baten alaba borrokalaria eta solidarioak norgehiagoka bat baino gehiago izango du bere aitarekin lan egiten duen mediku gazte batekin; badakizue nola askotan gorrotik maitasunera pasatzen garen. Eta umorea eta maitasun harremanen inguruan emakumeen eskubideen aldeko

mezua izango da. Osagai horiekin komedia gozagarri bat egin daiteke, baina kasu honetan ez gara horrenbestera helduz. Dena ezagunegia egiten zaigu, ez dago sorpresarako tokirik. Gauzak nabariegia dira, gehiegi azpimarratzen da esan nahi den guztia. Zuzendariari trebezia falta zaio ikusten diren egoerei zerbait desberdina ateratzeko. Hysteria denbora pasatzeko filma da, erabilitako ironia eta Hugh Dancy, Maggie Gyllenhaal edo Jonathan Pryce aktoreen lan ona filmaren osagai aipagarrienak dira. Filma ikusi daitekeen arren, arrastorik ez duten horietakoa da.

ANTONIO ZABALA



goiena

2012-06-29

BUKATZEKO

Herririk ez baduzu, etorri Gatzagara

- ▶ Aquarius-en azken publizitate kanpainaren protagonistetako bat da Leintz Gatzaga
- ▶ Herririk ez daukaten "hiritar umezurtzak" adoptatuko dituzten herriak proposatzen dituzte

ARRITXU BARRUSO | LEITZ GATZAGA

Oporrak iristen direnean asko eta asko nor bere herrira joaten da, baina hiriburuetan hazi eta bizi diren beste askok ez daukate herririk. Aquariusek dio: "Herri bat duena zortekoa da". Publizitate kanpaina deigarriak eta dibertigarriak egiten ditu beti Aquarius markak, eta, oraingo honetan, herririk ez duten horiei herri bat emateko helburua azaldu du. Bada, Aquariusek hiritar edo "urbanita umezurtz" horien dako egiten dituen proposamenen artean dago Leintz Gatzaga, Elantxobe (Bizkaia) eta Urritzolarekin (Nafarroa) batera.

Bizilagun xarmangarriak

Aquariusek Gatzagaren inguruan dio gatzarekin lotura handia duen herria dela eta bertako bizilagunak salatuak eta xarmangarriak direla. Oraingoan, 400 eskaritik gora jaso dituzte eta Gatzagak 60 lagun inguru adoptatu ditu. Aquariusek berak erabakitzen dun egun-pasa edo arratsalde-pasa Gatzagara joan nahi duten hiritar umezurtz horietatik zein onartu.

Eta zer aurkituko dute hiritar horiek Gatzagan? Eskaintza bereziak bertako jatetxe, taberna edo bisita gidatuetan. Turismo Bule-



Gatzagako Pilar kalea. | MIRARI ALTUBE



Huérfanos de pueblo da Aquariusen publizitate-leloa. | AQUARIUS.COCACOLA.COM

goko Aitziber Gorosabelek adierazi du hasieran zalantzak izan zituzten arren, kanpainan parte hartzea erabaki zutela, herria promozionatzeko beste modu bat izan daitekeelako.

Udan, beraz, beste turismo mota bat ere etorriko da gurera: hiriko umezurtzak.

AZKEN BERBA

AGURNE BARRUSO



'Batu Gaitezen' Bilduren aurka

2009an Markel Olanok *Batu Gaitezen* ekimena egin zuen publiko. Abertzaleak batzeko proposamen gisa aurkeztu ziguten ekimen hori.

Bitartean Euskal Herriko ezkerreko soberanistak Biltzen hasi ginen. Egin genion EAJ-ri horra batzeko deia. Erantzuna borobila izan zen: EZ.

Hiru urte beranduago agertu da *Batu Gaitezen* haren benetako helburua. EAJ Batu da bai, PSE eta PPrekin Batu da Bilduren aurkako erasoan. Alduntzinen zentsura mozioa, Donostiako Gobernuaren ilegalizazio mehatxua... Eta eskua sutan jarriko nuke BATU dela hauteskunde ondoren Jaurlaritza EHBilduren esku egon ez dadin. Denborak erakutsiko digu hori ere.

Bitartean Ezkerreko Independentistek Biltzen jarraitzen dugu eta jarraituko dugu; euskal herritarrek hala eskatzen dutelako, proiektu sendoa osatu dugulako eta elkarlanean sinisten dugulako. Ez inoren aurka, herri honen arazoaren konponbidearen alde baizik.

Garbi dago Egibarren EAJn gero eta gehiago agintzen duela Urkulluk; Espainian eroso bizi nahi duen EAJk, boterea eskuratzeko edozeinek paktatzeko arazorik ez duen EAJk, abertzaleoi eraso eta Raxoiri elkarlanerako eskua luzatzen dion EAJk.

Orain Arrasaten

Benetan pisua galdu nahi duzu?

Rosa Sarabia doktoreak

konsulta berria irekiko du:

Pronokal metodoa

Zientzia eta zorrotasuna pisua galtzeko

- Kontrol mediku zorrotza
- Pisu galtze handia - Gose gabezia

Esan baietz
betiko

Bilbon: Clinica Sarabia: Ercilla kalea, 42.

CMU centro médico UDALAITZ

Euskal Herria plaza 3. ARRASATE
Tel.: 943 79 44 22.

Rosa Sarabia doktorea

Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna

OBESITATEAREN ETA GEHIEGIZKO PISUAREN UNITATEA
BOTOXA - EZPAINAK - MESOTERAPIA
BARIZEAK - HAZIERA FAKTOREAK
BULARRAK - SUDURRA - SABELALDEA

Medikuntza estetiko eta kirurgia plastikoa